

Hizkuntzalaritza konparatua eta aitzineuskararen erroa

Joseba A. Lakarra
EHUko irakaslea

Artikulu honetan, euskal erroaren azterketarako interesgarri gerta litezkeen hizkuntza batzuetako arazo eta azterketa-ereduak oparo aurkezten dira, gero euskararen berreraiketari dagozkion ondorioak zirriborrazteko. Aitzineuskara zaharrerako CVC forma kanonikoko erro monosilabikoaren proposamenetik abiatuaz, disilabikoetan erroa bigarren silaban izan zitekeela baieztatzen da, konposaketa nabarmenduz hitz berriak sortzeko modu ia bakar gisa, aitzineuskararik zaharrenean hitzak hazteko moduetarik bat erreduplikazioa (ezkerrerantz eta zatika) izan zitekeela ahaztu gabe eta tonuarena bezalako alternantziek izan zezaketen garrantzia baztertu barik. Bide batez, etimologia zenbait kritikatu eta bigarren graduko barne-berreraiketaz lortutako berri batzuk defendatzeaz landa, kartvelikoa eta aitzineuskararen artean erlazio sistematikoa ikusi nahi edota europera zaharra aitzineuskararekin berdindu gura luketenen aurkako argumentuak agertzen dira.

In this article, I present a prolix series of problems and case-studies in a variety of languages that may be of interest for the analysis of the Basque root, as well as a sketch of their possible consequences for the study of the prehistory of Basque language. As the initial hypothesis for Pre-Proto-Basque, a canonical monosyllabic root is proposed of the form CVC; I then demonstrate that in disyllabic words the root would have been in the second syllable. In this framework, composition becomes the main —almost the only— productive mechanism for new word formation in Proto-Basque. Of course, we can never forget that (leftwards and truncated) reduplication could have been a possible strategy the oldest periods of Proto-Basque used to increase its word-inventory: we don't forget the importance of alternations due to pitch, or maybe tone, differences. At the same time, I criticize some old etymologies and I defend new etymologies by internal reconstruction of second stage; I also present arguments against analyses that try to find a systematic relation between Kartvelic and Proto-Basque or a correspondence between the latter and Old European.

1. Sarrera aitzineuskararen berreraiketaz*, 1

Ahaidegabeko hizkuntza (eta euskara zuen berariazko aipagai hori zioenean) historiagabea, edota —Mitxelenak (1963) zehaztu bezala—, historiaurregabea zela baieztatu zuen Antoine Meillet-ek (1925: 12). Urte asko igaro arren geroztik, ez dira era berean aitzinatu euskararen ahaidetasunei buruzko frogak (ikus Trask 1997), eta oro har, Meilleten iritziak bere hartan dirau oraindik orain, nahiz eta urrutiago jotzeko eskubidea, eta inoiz aukera, izan. Aitzinamenduak, bistan denez, alorreko beharginen lanetik eta metodo berri eta sendoagoak (hots, sakontasun diakroniko handiagoa damaigutenak) egokiro erabiltzetik baino ezin etor litezke.²

Mary Haas-ek eta bestek behin eta berriz arrazoiz markatu duen legez, aitzin-hizkuntza bat ez da benetako hizkuntza bateranzko hurbilketa baizik, eta inoiz ere prototipo horretara iristen ez den hurbilketa, gainera, nahiz eta hainbat arrazoik usu berreraiketa hori —ustez hoberantz— aldatzera eraman. Honela, errealtatearekiko hurbiltasuna areagotuaz doake, baina ikertzailea inoiz ere guztizkoa lortzera iritsi gabe (Haas 1969: 45). Haasen ustez ondokook izan daitezke berreraiketa bat aldatzeko arrazoiak: «(1) A new interpretation of the material on hand»,³ «(2) The discovery of a new daughter language», «(3) Evidence from old loanwords» eta «(4) The comparison of one protolanguage with another» (1969: 46-51).

Euskara genetikoki isolaturik —eta egoera aldatzeko itxaropen gutxiarekin— izaki, ezin Haasen bigarren eta laugarren bideetatik historiaurrean aurrerago jo. Hirugarren bidean aipatutako latinetik eta erromantzetiko maileguk laguntza ederra eman digute (cf. Mitxelena 1957, 1974 eta *FHV*) fonologiaren eta gramatikaren alderdi anitzetan. Izan ere gutxienez Schuchardten garaitik datorren maileguen azterketa zehatzak euskal lexikoaren zati handi baten etimologia eskuratu digu.⁴ Alabaina, honela euskal lexikoaren zati handi baten —are *begiratu* bezalako lehen behaldiko sasi-jatorrizkoen (cf. Mitxelena 1964: 102)—⁵ berri eman arren, eta

*. Lan hau J. Gorrotxategik zuzendutako Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-proiektuaren barnean kokatzen da. Eskerrik asko G. Bilbaori eta I. Igartuari lan hau txukuntzen laguntzeagatik estiloari eta edukinari buruzko ohar baliotsuz.

1. Zati honetarako ikus Gorrotxategi & Lakarra 1996 eta Lakarra prestatzen-b.

2. Euskal linguistika diakronikoan bi garai bereizten dituen obra Mitxelenarena (*FHV* eta 1950-64 bitartekoa batez ere) dugu, noski, Trasken berriketan zenbait makrokonparaketa-zalari gogoratu behar izan dien bezala; hemen ere, bestetan bezala, legea ez ezagutzeak (edo ezagutu nahi ez izateak) ez bide ditu gauzak aldatzen.

3. Bernabé-ren gogoetek (1988: 357 eta hemen § 8.3; cf. Comrie 1993 ere) balio lezakete —beste askorenek legez— berreraiketak (IE fonologiarenak bere kasuan) hizkuntz-teoriaren arabera nola aldatu ohi diren ikusteko; haren ustez IE ikerketetan eragina berantiarra litzateke, hizkuntzalaritza teorikoak beti lehen emaitzak hizkuntza modernoekin izan ohi dituelako. Bidenabar, Ivan Igartuaren lanean aurki liteke lanabesik teoria glotalikoaren inguruan Bernabérena gaurkotzeko.

4. Tovar-ek hasi eta M. Agud burutzen ari den euskal hiztegi etimologikoak latinaren eta erromantzearen hedadura euskal lexikoan zenbaterainokoa izan den argiro erakusten digu. Baitchura-k (1987: 169) dioenez «Comparativistics usually operates only with half of the vocabulary of the languages under investigation, because the other half is attributed to borrowings and left out of sight». Alabaina, ondoren dakarrena jatorrizko lexikoaren eta mailegatuaren arteko bereizkuntzaezta aldarrikatzera dator, Meilletek (1918-19) eztabaida famatu batean Schuchardti aurpegiratu bezala.

5. Antzeko arazoa dugu *aizkora* eta aldaeren etimologiarekin: *aizto*, *aiztur*, *aiztur*, etab. bezala, *haitz*-en eratorri iruditutako arren, lat. *asciōla* (cf. *FHV*) jatorria asebetekoa dugu.

nahita aitzineuskararen berreraiketa batez ere maileguen azterketan oinarritu arren, zer egin hizkuntzaren historiaurrea aztertzeko berebiziko dugun jatorrizko altxorarekin, hots hizkuntza indieuroparren edota ez-indoeuroparren batetik ez datorren lexikoarekin? (Ikus § 8.4.ko oharra erroaz eta etimologiaz).

Fox-ek (1995: 145 hh) –eta hark baino lehen beste askok– erakutsi bezala, bere langileen artean Saussure gaztea (*Memoire*-eko hogeitabatekoa) duen barne-berreraiketa hizkuntzen egitura eredutuaren (*patterned*) zordun dugu, egitura horren zenbait alderdi hizkuntzen historiaren iraganeko garaiak zehazteko baliu daitezkeen neurrian.⁶ Barne-berreraiketaren izaeran bertan dugu beste hizkuntzetara jo gabe hizkuntza baten barneko eredu zenbaitetan, hizkuntza horren lehenagoko garaien bati buruzko frogak aurkitzea. Egia osoa dio Foxek gertakari hau gauza ezagun eta berrikuntza gutxikotzat aurkeztean, hizkuntz hondarrak eta anomaliak hor baitira beti hizkuntz aldaketaren lekuko. Halaber, arrazoi du aipatzean barne-berreraiketaren boterea anomaliak modu sistematikoan erabiltzetik datorrela eta ez dugu bere ondorioarekin ados izatea baino: «The principle is that regular changes within a language will result in systematic alternations between forms, and that examination of these alternations will allow us to recover the original state of affairs» (Fox 1995: 147).

Mitxelenaren metafora batez esatearren (eta berak ohartu legez, agian ez da metafora hutsa) «todo estado de lengua es un sistema ordenado que por su misma ordenación conserva registrado un mensaje que el paso del tiempo vuelve borroso e ilegible. Esta degradación, si no es necesariamente rápida, es continua y se prosigue incesantemente a medida que las unidades y la ordenación correspondiente a las nuevas estructuras van suplantando a las unidades y a la ordenación antigua» (1963: 11). Hortaz, ez dirudi hatsarriko ezinik denik lehenagoko barne-berreraiketa batetik abiatu eta aurrera jotzeko, atetiko lekukotasun berririk ez izanik ere, nahiz eta, ezagun denez, handiak izan zailtasunak hizkuntz egoera berreraiki batean aurreko egoera batera halabeharrez jotzera garamatzen barne-kontraesan aski aurkitzeko.

Gure ikerketa-asmo orokorra hizkuntzaren egitura zenbaiten (mailegatu ez diren morfemen egitura, distribuzio eta konbinaketaren) azterketaren bitartez orain arteko ikerketak erdietsi sakontasun diakronikoa baino haratagokora jotzea litzateke. Zeinnahi hizkuntz-berreraiketaren bezala, gurean ere pausu eta ondorio anitz kontu handiz eta usuenik egiantzekotasun-maila hutsa gainditzeko den epaituaz baino ezin har daitezke. Helburu hori, edota metodologoentzat oraindik onargaitzago izan daitezkeen aukera horren justifikazioa da, nik uste, ene aitzineuskararen erroari buruzko lanaren⁷ azken helburua; baina alferrik modernizatzen geure buruak

6. Gai klasikoa da, noski, berreraikia itxuraz bateratua dela, barneko dialekto eta kronologia bereizkuntzarik gabea... hots, benetako hizkuntzek berezko dituzten tasun funtsezkoak peitu dituelarik; askoren artean ikus bedi Dyen 1969.

7. Cf. «the principles of Internal Reconstruction can be applied to phonological systems, and also to the structure of morphemes. This can, in a sense, be seen as an extension of the standard methodology of Internal Reconstruction presented earlier, which consists in the elimination of alternation by the reconstruction of a single non-alternating source. Here it is variations within systems and between different morpheme structures that are eliminated in favour of uniform patterns, and the consistent

ez azaltzearren,⁸ on da atal hau Foxen beraren aitorrarekin amaitzea: «Interestingly, however, although this application —morfemen egiturekin egindakoa, alegia— of the method can be seen as a logical extension of the basic procedures, chronologically it antedates these procedures».⁹

2. Euskal erroaren azterketak

IE-z, semitikoz edo austronesioz eta beste zenbait familia eta hizkuntzatan gertatzen denaren aurka, ez da erroari buruzko lan gehiegi euskal linguistikazko lanetan, ez sinkronia ardatz hartzen dutenetan eta ezta diakronikoetan ere, alderdi honen garrantzia argiro gutietsirik.¹⁰

Azkueren ehundaka orritako morfologiazko lan mardulean oso gutxi da erroari dagokiona. Izan ere, hitzaurrean azaltzen duenez, euskaltzain lagunek eskaturik afijoei buruzko aurkezpen bat prestatzen ari zen eta gai honetaz oharren bat baino ez dugu eriden ahalko. Azkuek aintzinako izenkietako erroa monosilaboia zela suposatzen zuen (1923-25: 40-41) —kasu guztietarako frogatuezinezkotzat bazuen ere— eta oinarri guztiak erroa gehi atzizkiak osaturik zirela uste zuen, horrela azaltzen zelarik jatorrizko euskal hitzetan hainbat disilabo aurkitzea.

2.1. Uhlenbeck

Uhlenbecken euskal erroarekiko hurbilketa (1947, 1947-48) euskarak omen litzuzkeen estrato-osagai ezberdinak erakusteko ahaleginaren barnean kokatu behar da.¹¹ Egileak argiro aldarrikatu bezala, euskara “hizkuntza mixto”tzat hartzea

application of this principle results in considerable regularization and simplification» (Fox 1995: 178).

8. Dagoeneko baliteke —Kurylowicz-en eta Ventries-en aurkikuntzetarik hainbat hamarkada igaro ondoren— barne-berreraiketaren metodoaren aurkako aurreiritzia (edota metodoa bera denik ere ahanztea Bengtson-ek *Word* aldizkarirako Hualde et alii (arg.) 1995-en iruzkinean egin legez) gure edozein ausardia baino barregarriago suertatzea; cf. Foxek (1995: 181) Lindeman-ez dioena.

9. Beharbada metodo konparatuaren eta barne-berreraiketaren arteko zenbait berezkuntza kontuan hartu beharrekoa da honako hau eta beste zenbait saio klasikoago erkatzerakoan; ikus Lakarra prestatzen-b.

10. Darricarrère-k (1903, 1912) badu erroari buruzko lanik, jakina, horien bitartez euskara hizkuntza IE dela frogatu nahi baitu. Harentzat erro monosilabikoak eta disilabikoak lirateke bi hizkuntz familiotan; Vinson-ek, aldiz, hizkuntza guztietan monosilabo txiki, simple eta abstraktuetarik («un verbe à l'infinifit») abiatu behar dela deritzo. Aditz abstraktuen teoriak ikus Gómez 1998. Bide batez, § 2, zabalago eta zehaztasun gehiagorekin, aurki liteke Lakarra 1997-n.

11. Lakarra 1986-n haren ondoko hipotesiari erantzuten zitzaion: «Si nous faisons attention aux particularités individualisantes du biscayen par rapport aux autres dialectes basques, nous avons plutôt l'impression qu'il nous faut partir de deux dialectes pyrénéens occidentaux anciens qui, pendant une certaine période, n'étaient pas immédiatement voisins, mais qui, entrés plus tard en contact immédiat, se sont rapprochés de plus en plus. De l'un serait donc issu le biscayen; du second, tous les autres dialectes en territoire espagnol et français. Le rapprochement entre le biscayen et le guipuzcoan, en d'autres mots l'effacement graduel des limites indubitablement nettes autrefois, est un procès en cours depuis longtemps et qui se poursuit toujours» (Uhlenbeck 1947: 544). Egia esan, hau guztia bidenabar eta inongo zehaztasunik gabe jaurti zuen eta Tovarrek aspaldi egindako ihardespeneke filologi-gaitasun ezak ekarri zuen ondokook honelakoetan aritu beharra... beharbada, lanean ziren arazo fonologiko eta morfologiko interesgarriagoei kasu handirik egin gabe.

ez zen apartekoa harentzat.¹² Sinetsirik euskara Kaukasoko hizkuntzetarik ezin bereiz zitekeela alde batetik, eta, bestetik beranduagoko eragin iberikoari zor omen zitzaizkion Afrika iparraldeko elementu lexiko eta gramatikalak zituela bere barnean, eta (kaukasieraren fonetika konparatua peitu izaki) euskara-kaukasierazko konparaketa sistematikoa iritsi bitartean, interesgarri zeritzon euskarazko izen- eta aditz-erro analisatugabe ugariak sailkatzeari, ondoren haien artean Añamendimendebaleko zaharrak eta, eliminazioz, atetiko eraginez (kaukasikoa, hamitikoa, zelta, ilirioa, latinetikoa, etab.) azal zitezkeenak banatzeko. Bere arrazoi eta metodoak egun onargarriak begitandu edo ez, kontua da dugun euskal erroen sailkapenik osoenatarikoa eman zigula. Hara hemen laburturik:

a) erro monosilaboak:¹³

- 1) bokalez amaituak: *khe, lo, so, su*, etab.;
- 2) diptongoz amaituak: *gai, gau*, etab.;
- 3) kontsonantez amaituak, “askozaz ere ugariagoak”: *har, gar, hil, lan...*;
- 4) afrikatuz amaitu ugariak: *haitz, antz, hartz, hats, gaitz...*;
- 5) forma erreduplikatuak, ez oso ugariak: *konkor, gogor, garagar*, etab.

b) erro bisilaboak:

- 1) VCV eta CVCV, ohikoak eta euskarak berezkoago dituenak: *habe, aho, ale, harri, begi, behi, beso, xori, eme*, etab.;
- 2) VCVC eta CVCVC “usukoak oso”: *abar, adin, behor, behar, gizon, sagar*, etab.;
- 3) VCCV eta CVCCV “usukoenatarik”: *albo, argi, garbi, zaldi*, etab.;
- 4) VCCVC eta CVCCVC “ohikoak, orobat”: *argal, azkar, bazter*, etab.;
- 5) diptongoarekin (DCV, CDCV, DCVC, CDCVC, VCD, CVCD, VCCD, CVCCD, VCDC, CVCDC, VCCDC, CVCCDC): *aita, leiho, oihu, aihen, leizar, etsai, garai*, etab.

c) erro trisilaboak:

Arrarotzat du bai VCVV zein CVCVV: *egia, herio, lehia*.

Disilabikoez ohar orokor batean dioskunez (1947-48: 65), behin eta berriz desinentzia berberak —antzinako atzizkiak, beharbada— eta inoiz hasierako kontsonanteak (noiz ondoko bokalarekin konbinaturik, noiz bakarrik) aurkitzen ditu, aurrizki fosildu eta agortzat dituelarik azken hauek... Uhlenbeckentzat bada sail disilabiko bitxi bat, oinarriaren bi silabetan bokal bera duena, hain zuzen: *adats, apal, arrats, azkar... bele, xehe, eder, elhe... bihi, idi, ihintz, mihi... mo(s)ko, odol, olo, oro... buru, sudur, zuhur*, aditzen artean ere badakuski eredu fonologiko

12. De Josseling de Jong-ek Uhlenbecken nekrologikan dioenez (1952: 252-253), honek ez zuen neogramatikoen *erlazio genetiko, aitzinhizkuntza, jatorrizko lotura* eta beste hainbat oinarrizko kontzeptu onartzen; euskara bezala, IE, uralikoa, eskimoa eta beste hainbat familia aztertu zituen, baina ez bakoitzaren hasierako homogeneotasunaren banaketaren bitartez, jatorri diferentetako isoglosa eta estrato konbinaketaz sortutako akulturazio prozesu gisa baizik. Oraintsuago antzeko jarrera da Baitchurarena ere (ikus 1987: 169 bereziki).

13. Schuchardtengandik datorren (eta Boudarengan ere aurkitzen dugun “euskararen bokalen geminatzeo (ustezko) joerak” azalduko edo luke atal honetan sailkatzea zenbait bisilabo. Mitxelena 1950-en eta *FHV*-n bada aski ustekizun honetaz.

bereko erro zenbait: *ahantz, atzar, ethen, isil, leher, nahas*. Bokalismo bereko eredu hau uralo-altaikoan ematen den armoniaz oso bestelakotzat eta Kalifornia eta Oregoneko hizkuntzekiko paralelismo osokotzat du¹⁴ eta on deritzo behin-behinekoz “Auñamendi-mendebal zaharreko” gisa sailkatu eta hizkuntza kaukasiarrekiko erkaketetan oso kontuan hartzeari.¹⁵ Oinarri disilabikoak noiz edo noiz baino ez dira aditz erroetarik ateratzen eta orduan ere —baina ez dakar adibiderik— atzizki fosilduen bitartez. Horregatik Uhlenbeckentzat (1947-48: 67) eredu disilabikoa euskal hiztegiaren estrato oso zaharra genuke, errazki banatzen diren atzizki bizi eta emankorrez eraturiko izenki-eratorri aditzetikoak ez bezala.¹⁶

Euskal lexikoiaren “esentzian” barneratzeko bidea behin eta berriz agertzen diren amaierena dugu harentzat. Artean aztertugabeko alorrean sartzen dela eta ezagun direnak ez dituela aipatuko aurreratuaz, ondoko amaiera hauek zerrrendatzen ditu:

- tz / -ts: *adats, hagitz, ahats, ahuntz...* (ehunetik gora adibide).
- ar: *abar, adar, azkar, behar...* (zenbait dozena).
- er: *akher, bazter, bider, eder* («moins nombreux»).
- or: *agor, alhor, behor* eta beste dozena bat.
- ur: *ahur, aitzur, barur, beldur* eta beste dozenaren bat.¹⁷
- el: *gibel, igel, sabel, ubel* eta besteren bat.
- il: ia guztiak berriak *hil*-ez landa.
- an: *aran, buztan*, baina ez omen Auñamendi-mendebal zaharrekoa.
- en: *aihen, auhen, gizen, izen...* eta beste zenbait, jatorri diferentekoak baina inoiz ere *-en* genitiboarekin nahasi behar ez direnak.
- in: *adin, hagin, aitzin, arin* eta beste batzuk.¹⁸
- un: *alhargun, asun, bigun, egun, etab*.
- rri (?): *beharri*.
- ba: ahaidetasun berbetan.

2.2. Lafon

Gehienbat bere tesian (Lafon 1943) eta Uhlenbecken bi artikulua (1947, 1947-48) garrantzitsutan esana gogoratzen bazuen ere, Lafonek euskal erroari buruz argitara zituen ohar laburretan (Lafon 1950) erro hori zehazteko oztopoak gainditzeko, berarentzat *ultima ratio* zen konparaketa euskara-kaukasikoaz (cf. Lakarra

14. Cf. M. Swadesh “Problems of long-range comparison in Penutian” (*Language* 32, 1956, 17-41 [batez ere 25-26]) eta Lakarra 1997, zeinen laburpen den zati hau. “Familia” penutiarraz eta Ameriketako hizkuntzen sailkapenez, oro har, ikus bedi orain L. Campbell, *American Indian Languages. The historical linguistics of Native America*, “Oxford Studies in Anthropological Linguistics”, Oxford U. P., 1997.

15. Mailegu nahiz eratorri izateagatik edo bestelako arrazoiren batengatik desegokiak diren adibideetarako ikus aurreko oharrean aipatutako ene lana; Lakarra prestatzen-b-n ere badira Uhlenbeckek euskararen berreraiketan agertu usteei buruzko ohar zenbait.

16. Aditzaren morfema egituraz Uhlenbeckek, Lafonek eta Traskek diotenaz ikus bi ohar gorago aipatu lana.

17. Azterkizun diren enborrotan *-ur* inoiz atzizkia dela uste du baina besteren batean baita aurrizkidun erro baten zatia ere. «Mais il y aura aussi des mots importés et, peut-être, comme tels, des composés qu’il n’est pas possible de reconnaître» (Uhlenbeck 1947: 570).

18. Horien artean *berdin* edo *urdin*, gero Mitxelenak (1971) aztertuak edota *samin* (cf. 112. oharra).

1998a) landa, bada bertan arretaz miatu beharrekorik. Esaterako, erroa ez dela abstrakzio hutsa erakusten du:

Dans nombre de cas, la racine, en basque, n'est pas une abstraction, mais une réalité: elle peut s'employer à l'état nu, sans préfixe ni suffixe. Au nominatif indéfini, un nom (substantif, adjectif ou pronom) se présente sous la forme du thème nu, et, si ce thème ne contient aucun suffixe de dérivation ni préfixe, la racine y apparaît à l'état nu. Il en est ainsi, par exemple, de *ur* 'eau', de *lo* 'sommeil; dormant', de *su* 'feu', de (*h*)*uts* 'vide', de *gor* 'sourd', de *gu* 'nous' (Lafon 1950: 303).¹⁹

Aditzetan legez, *ur*, *su* edo *gogo* «qui est un mot à redoublement (rac. *go*)» (1950: 305) bezalakoetan ez da zail erroa ezagutzen. Beste zenbait kasutan esanahiz lotutako zenbait hitzetako zati amankomuna bana daiteke: horrela bide dagokio **be*-i *bele*, *beltz*, *belatz* eta *arbel*-en (ibid.). Zailagoak, baina litezkeenak deritze **bar* 'fond', **aun*- 'abondance, grandeur', *ber* (cf. *berrogei*, *bertze/beste*, *berri*) edo *go*-ri (cf. *goi*, *igo*). Badira, azkenik, historikoki lekukotutako euskara hutsez ezin aska daitezkeenak (Lafon 1950: 306-308): *irazi*, *ihes* eta aldaerak, ahaidetasun izenetako *-ba-z* amaituen forma eta esanahia, *aun-*, *ahun-* ala *a-*(*h*)*un-* ahuntzaren izenean, gorputz zati askoren izenean *b-* aurritzia den ala ez... Lafonen ustez metodo konparatua (hizkuntza kaukasiarren laguntza, alegia) izan daiteke euskararen barnean analiza ezin daitezkeen hitzak argitzeko bidea:

Un nom basque, s'il ne contient aucun préfixe ou suffixe connu et dont la valeur soit nette, ne se laisse généralement pas analyser; ou, plus exactement, on ne possède aucun moyen direct de l'analyser. Mais on peut essayer de recourir à un moyen indirect, qui consiste dans l'emploi de la méthode comparative. Il faut chercher des mots appartenant à la même racine dans des langues apparentées génétiquement à la langue basque, c'est-à-dire dans les langues caucasiennes (Lafon 1950: 508).²⁰

Lafonek euskara eta Kaukasoko hizkuntzen arteko "konkordantzia morfologiko" ugari aipatu zituen: 35 bere 1951-52ko lanean; alabaina, konkordantzia horien balioa epaitzeko indieuropeeraz, uralo-altaikoz edo hamito-semitikoz gertatzen zenaren aurka, tipo morfologiko kaukasikorik ez zela aitortzen zuen (1951-52: 92). Egileak berak onartu legez, kaukasikoan ez egitura eta ezta adabakiak ere ez dira berdinak; zenbait elementu morfologiko ez ditu hizkuntza bakar batek baino, eta horietarik bat ere ez da ezer frogatzeko modukoa (1951-52: 94).²¹ Ikusi izan da, gainera, euskara eta hizkuntza kaukasikoak biltzeko ziren froga morfologikoak fonologikoak bezain ahul zirela. Mitxelenak gogoratu zuen marka gramatikalak oro har (eta baita Lafonen saioko gehienak ere) oso laburrak direla, halabeharrari aukera zabalegia utziaz; horrelakoetatik dator, esaterako, belarea izatea IE hizkuntza baten (armenieraren) zein euskararen pluralgilean. Besterik litzateke ez desinen-

19. Ohar bedi artikuluan, erro zaharren forma kanonikoarekiko berariazko iruzkin ez ondoriorik izan ez arren, Lafonen adibide gehienak monosilaboak direla.

20. Halere, bizirik eta emankor diren atzizkien azterketaren eta soilik kanpoko laguntzaz ageriko lirakekeen lekukotasunaren artean barne-berreraiketaren metodoa eskura geldituko litzaigukeela dirudi.

21. Deklinabideko gutxietarik bat, *-rantz* / *-rontz* / *-runtz*, Ricardo Gómezek latinaren eta erro-mantzearen eredura azaltzea proposatu du (cf. fr. *vers* < *verto* : eusk. *ontz-i*) lan argitaragabe batean.

tzia hutsak baizik eta txandakatzeak edota morfema egiturari buruzko legeak amankomunean izatera, baina ez da honelakorik Lafonen eta kideen lanetan.²²

Desinentziak utzi eta inoiz erroaz mintzo zenean, Lafonek aitzineuskararenaz zuen ikuspegia ere ez zen egokiegia. Aditzetako aurrizki eta atzizkiak baino ilunago izanik izenkietakoak, horiek argitzeko metodo konparatura jotzea aldarrikatzen du. Baina bere euskal erroari buruzko lanaren gailur gisa aurkezten duen adibideak ez du bi hizkuntz familien ahaidetasuna sendotzen, batean eta bestean erro eta atzizki berberak eta konbinaketa berekoak direla erakutsiaz: euskarazko *g-/kider*, *-ar* georgierazko *Kid-* ‘suspendre, saisir’ (mingrelieraz ‘prendre dans sa main, saisir, se saisir de’) eta svanoko *Ked-* ‘prendre’ erroarekin erkatzean eta euskarazko formarentzat, Uhlenbeckek beste izenki batzuetan aurkitu uste zituen *ar*, *-er* atzizkien bitartez, «on peut penser qu’il en est ainsi dans le mot précédent et que la racine est *kid-*, *gid-*» (Lafon 1950: 307) dioelarik, euskaraz silaba eta erro akabuan ezinezko den herskaria proposatzen du,²³ berreraiketa erraza eta gainerakoen bermekoa ez baina teoria osoaren ahuleziaren erakusle egiten delarik.²⁴

2.3. Bouda

Mitxelenak (1950) Bouda eta gainerako ikertzaileen euskara-kaukasiar etimologiaz (neurri batean euskara-kartveliarraz) egindako iruzkina berrius dezanarentzat begibistakoa gertatuko zaio kritikatuak aitzineuskararen erroaz (zein aitzinkaukasikoaz) teoria garbi bat ez izanak dakarren ondorio gaiztoa.²⁵ Izan ere, etimologia asko ez dira gaizki soilik elementu mailegatuak jatorrizkotzat ematearren —dela euskaraz, dela kaukasikoz—²⁶ edota lege fonetiko *ad hoc* zenbaiten bitartez justifikatuak izatearren (salbuespenak erabiliaz zein legearen testuinguruak aldatuaz). Arrazoi hauen aldamenean eta inoiz arrazoi horiekin batera (esateko *motz-en* kasuan) Mitxelenak (1950: 440) analisi morfologiko desegokiak edota etimologia jakin baten alde egiteko asmo hutsez proposatuak aurkeztea aurpegiratzten dio Boudari: hortik *m-otz* baina *ma-ts* edo *i-rizi-gi*.²⁷

22. Traskek (1997: 392hh) erakusten duenez, ondoko 40 urteotako lana ezin da gehienetan aitzinamendutzat izan.

23. Hortzetakoa gainera! Ez da hau inork (aitzin)euskal morfotzat emango lukeena, nik uste. Ez dirudi Morvan-ek (*Lapurdum* 2.ean) proposatutako CVT etimologia euskara-uralikoez ere inora garamatzatenik. Honetaz eta Morvanen tesiaz beste toki batean mintzatuko naiz astiroago: cf. Lakarra prestatzen-c.

24. Mitxelenak (1979b: 350) iberiar onomastikako konposatu eta eratorrien forma kanonikoa 2+2 eta 2+1 dela suposatzen du, hizkuntza horretan 2 litzatekeelarik erroaren silaba kopuru handiena; testuinguruagatik baita euskaraz (akitanieraz) ere, beharbada (ik. Lakarra 1997).

25. Aurkeztutako korrespondentzia fonetikoaren sasikotasunaz ikus Vogt 1955 (337-338) eta Mitxelena 1968.

26. Mitxelenak aipatu lan horretan eta gainerakoetan ematen dituen erromantzetikoei gehi bekizkie Vogtek (1955), Schmidt-ek (1989) eta Klimov-ek (1991) salatu bezala IE, semitiko edo altaikotik kartvelierak eta gainerako Kaukasoko hizkuntzek (eta hauek beren artean) hartutako maileguak; ikus Lakarra 1996 eta 1998a.

27. Ez dut hemen ukituko —testuan ukitzen den kontuari dagokionez ezinbestekoa balitz ere— Mitxelenak hurrengo ahapaldian Boudari egiten dion erantzukia; izan ere honek euskara higadura fonetikorik ez lukeen hizkuntza baillitza dihardu eta honela «los sonidos de una palabra vasca, por una especie de generación espontánea, proliferan y se multiplican» (ibid). Vogtek (1955: 334) ere aurpegiratzten dio Boudari «L’analyse des mots [kaukasikoak, alegia], en radicaux et affixes, est trop souvent faite *ad hoc*, pour les besoins de la cause, sans les explications susceptibles de la justifier».

Mitxelenak 1950eko lanean oraindik ezagutzen ez zuen Boudaren urte bereko bat²⁸ izan daiteke egilearen metodoak eta baita hutsuneak, aitzineuskararentzako erro-teoria baten falta ezer baino lehen, ikusteko tokirik egokiena, bertan «j'enfile ici les plus belles perles de mes observations qui ont établi l'unité linguistique du groupe euscaro-caucasique et présente ce collier» (207. or.) baitiosku egileak. Euskal formak morfemetan banatzean hauen eta erroaren inguruan egiten diren proposamenak beren fonotaktikaz dakigun guztiaren aurka doaz; hara begirada arin batean kausitutakoak: *ih-i*, *eh-i* 'facile' (209), *lab-ur* (211), *garb-i* (214), *oke-l*, *oke-la* (216), *ag-eri* (216), *i-gord-i* (216), *ud-a* (218), *e-tse* (221), *sabe-l* (222), *sat-arri* (223), *a-tz-o* (223), *e-zk-ur* (224), *e-zte-n* (224), *zab-ar* (224), *uzk-i* (224), *e-z-ti* (225), *uzt-a* (226), *o-zpi-n* (226), *e-zku-tu* (226), etab. Hots, herskari ahostun zein ahoskabeak erro akabuan, txistukari likidoak hasieran, bokalik gabeko erroak (inoiz gertakari guztiok erro berean), ozen hutsak desinentzian, afrikatuak erro hasieran...

2.4. Ikerketa gehiagoren beharraz

Izatez erro zaharra monosilabikotzat zuen Azkuek ez bezala, Lafonek eta —batez ere— Uhlenbeckek euskal erro ñabarra aurkeztu dute: aditz-erro gehienbat monosilabikoaren alboan, izenki-erro disilabikoa (nahiz eta monosilabo eta polisi-laboekin) erakutsi digute, batzuen eta besteen barnean ere egitura fonematikoari dagokionez azpizail anitz direlarik.²⁹

Mitxelenak *Lenguas y protolenguas* bikainean gogoratu legez, anomalia historikoak berreraiketan interesgarri direlarik lehenagoko erregelata eta baldintza zaharragoetarik abiatuaz azal daitezkeen neurrian,³⁰ begibistakoa dugu euskarazko erroaren egiturak, historikoki dituen irregularitateak kontuan izanik, iraganean urruti eraman gaitzakeela azalpenik emateko gai izan gaitezen neurrian. Kontrako aukera, hots, erro eredu sailkatze eta zerrendatze soila, erosoago eta seguruagoa bide da; izan ere, ez ginatke bakarrak hortik jo bageneza eta, aurki ikusiko dugunez, euskara ere ez litzateke lehen hizkuntza zeinarentzat forma kanoniko anitza proposatu izan den. Uste dut, ordea, bai hizkuntza horien historiaurrearen garai zaharragoen berreraiketarako eta baita euskararenetako ere bide

Mongoliera eta turkiera *ez direla* genetikoki loturik frogatzeko Serebrennikov-ek egiten dituen amarruak salatzen dituelarik Baitchurak (1987: 162hh), oso Boudarenen antzeko aurkitzen ditugu; alabaina, ondoren Baitchurak berak ematen dituen hatsarri glotogonikoak ikusiz gero, ez naiz segur egileak horiekin frogatu nahi duen ahaidetasun horretaz.

28. Ez du Vogtek ere aipatzen (ezta Mitxelenarena ere) bere 1955ekoan, nahiz eta hura biltzen duen Urkixoren Omenaldiko Uhlenbecken lana aipatu. *Iker*-10.ean ikus daitezke orain Mitxelenak Holmer-i egindako garai hartako gutunetan Boudaren lanez agertzen duen eszeptizismoa.

29. Trasken (1997: 172hh) badu hainbat ohar interesgarri aitzineuskararen fonotaktikaz eta morfema egituraz; horietako zenbait (euskarazko V- aniztasuna, esaterako) Lakarra 1998b-n ikertu dut eta prestatzen ari naizen lan zabalago batean ukitu gogo ditut gainerakoak hobeto. Nolanahi ere den, Trasken erro kanonikoaren formula —(C1)V(C2)C3V(C4)— Uhlenbecken zerrendak baino murriztago bada ere, zabalegia dela eta haboro zehaz daitekeela eta zehaztu behar dela uste dut.

30. Hautatutako adibidea teoria laringalarena da: kasu ezagun batean «consiguió el triunfo mostrando que la irregularidad histórica no era otra cosa que el reflejo de una regularidad prehistórica» (Mitxelena 1963: 50; ikus hurrengo oharraren amaiera ere).

erraza bide agorra gertatu dela.³¹ Erro teoriak edozein berreraiketa eta konparaketatan duen betebeharrak garrantzitsuaren aldarrikapenean datza ondoren datozen gogeton oinarria.

3. Zenbat forma kanoniko?

3.1. Erroa indieuroperaz

Honela hasten zuen Benvenistek bere 1935eko indieuroperazko izen-eraketari buruzko monografia eraginkorra:

L'objet essentiel de la grammaire comparée, depuis une soixantaine d'années, a été de poser des correspondances entre les langues indo-européennes, et d'expliquer, en parlant de l'état qui définissent ces correspondances, le développement des dialectes attestés. On met donc au compte de l'indo-européen tout ce qui semble hérité dans chacun des dialectes, avec la conviction, implicite ou avouée, qu'on ne saurait sans danger pousser la restitution au delà du prototype immédiat. Depuis le *Mémoire* de F. de Saussure, le problème de la structure des formes indo-européennes elles-mêmes a été presque complètement négligé. Il paraît communément reçu qu'on peut analyser l'évolution de l'indo-européen sans se soucier de ses origines, qu'on peut comprendre des résultats sans pousser jusqu'aux principes. De fait, on ne va guère au delà de la constatation. L'effort, considérable et méritoire, qui a été employé à la description des formes n'a été suivi d'aucune tentative sérieuse pour les interpréter. Là est sans doute la cause principale du malaise actuel de la grammaire comparée: si la recherche proprement comparative tend à s'éparpiller en travaux de plus en plus menus, c'est qu'elle a oublié les questions fondamentales; et si bien des linguistes se détournent de la comparaison, c'est pour s'être laissés aller à croire que l'on n'avait plus de choix qu'entre le connu et l'inconnaissable (Benveniste 1935: 1).³²

Jucquois-ek erakutsi duenez, liburuaren eskaintzako Meillet maisuari dihoakio kritikaren zati handi bat. Izan ere, Meilletek sarri esan zuen egokitzapenak zirela linguistika konparatuaren egiteko bakarra (cf., esaterako, Mitxelena 1963:

31. Berreraiketaren mugak jakitea ere beharrezko gertatzen da, ezagun denez. Bomhard-ek bere nostratikoaren berreraiketaren aitzinean garbiri azaltzen duena edozein hizkuntza familiaren berreraiketari heda dakiokela deritzot (cf. § 8.1. beheago): «It is necessary to be quite clear concerning my assumptions regarding root structure patterning in Proto-Afroasiatic, because the assumptions I have made here are critical to the viability of the lexical comparisons I have made between Afroasiatic and the other language families considered in this paper» (1991: 58).

Mitxelenak (1963: 40) «ejemplo típico de las actividades de reconstrucción proseguidas en el escalón más alto, conocido o restituido, que aspiran no sólo a penetrar en el pasado, sino también a comprender mejor las relaciones que entrelazaban los términos –cuyo número es siempre indeterminado en las protolenguas– son las investigaciones acerca de la “forma canónica” de morfemas o raíces» diosku.

32. Benvenistek (1939) hitz-hasiera eta -amaierako kontsonante konbinaketari begira hizkuntza “arinak” eta “pisuak” berezi zituen, latina eta grekera (hasiera pisua, amaiera arina) bereziki, baina baita beste hainbat hizkuntza ere (pertsiera, finougrioa, altaikoa, burushaskia eta beste hasiera arina eta amaiera pisua) kontuan harturik. Horrezaz landa, bada ohar interesgarrikerik hasierako *r*-kontsonantearen faltaz hainbat hizkuntzatan, euskara barne.

41); harentzat hizkuntzalaritza konparaketa hutsean agortu ez arren, litekeena da haren ospe eta jardun erraldoiak Benvenistek azaldu nahi dituen bezala egitekoak eta metodoak hartzetik berreraikitzaile eta aitzinhizkuntza-gramatikolari-gaiak atzeratzea, konparaketa usu txikierietan gauzatu eta desbideratuaz, maisuaren ikuspegi orokorrik ez izateagatik:

Ce qu'on a enseigné jusqu'ici de la nature et des modalités de la racine est au vrai, un assemblage hétéroclite de notions empiriques, de recettes provisoires, de formes archaïques et récentes, le tout d'une irrégularité et d'une complication qui défient l'ordonnance. On enregistre des racines monosyllabiques (**bher-*) ou dissyllabiques (**g^weyə-*); des racines bilitères (**d̄ō-*), trilitères (**per-*), quadrilitères (**leuk-*), quinquilitères (**sneig^wh-*); des racines à voyelle intérieure (**men-*) ou à diphtongue (**peik-*); à voyelle initiale (**ar-*) ou à voyelle finale (**p̄ō-*): à degré long (**sēd-*) ou à degré zéro (**dhək-*): à diphtongue longue (**sr̄ēig-*) ou brève (**bheudh-*), à suffixe ou à élargissement, etc. On serait en peine de justifier et même d'énumérer complètement tous les types de racines qui sont attribués à l'indo-européen. Il y a ici un abus de mots qui trahit une doctrine indécise. On n'obtient pas de l'indo-européen en additionnant les diverses formes indo-européennes d'un thème verbal ni en projetant dans la préhistoire des particularités d'un état de langue historique. Il faut essayer, par de larges comparaisons, de retrouver le système initial sous sa forme la plus simple, puis de voir quels principes en modifient l'économie (Benveniste 1935: 147-148).

Hau zen mende hasierako egoera, oro har.³³ Estrukturalistatza jo daitekeen azterketa batez, Benvenistek ez du bilatzen soilik artean erdietsigabeko indieuroperaren lehenagoko garai batera iristea, baizik eta, era berean aitzinhizkuntzaren barnean eboluzioa eta bilakabide diakronikoa ezartzea. Azken finean, zeharbidez eta oharkabean baino ez bada ere, Jakobson baino lehen ere bazen aitzinhizkuntzak benetako hizkuntza gisa ulertzen zuenik,³⁴ historikoki lekukotutako hizkuntza naturaletako ezaugarri, murriztapen eta izaerarekin, alegia:

La tâche la plus urgente est donc de restaurer la notion d'indo-européen, en l'arrachant à cette conception empirique et au fond négative: est indo-européen tout et cela seulement qui, postulé par la comparaison, ne résulte pas d'une innovation. Dans l'ouvrage dont voici le premier volume, l'indo-européen sera considéré, non comme un répertoire de symboles immuables, mais comme une langue en devenir, offrant dans ses formes la même diversité d'origine et de date qu'une langue historique, et permettant à son tour, quoique restituée, une analyse génétique (Benveniste 1935: 1-2).

Saussureren IE bokalismoaren teoriak eta fonema hitita zenbait hark proposatu koefiziente sonantikoekin elkartzean Kurylowiczek egindako aurkikuntzak la-

33. Bopp, Schleicher eta XIX. mendeko beste zenbait hizkuntzalarik erroaz zuen ikusmoldeaz, *vide* Jucquois 1979. Harrigarri egiten zait Maurer-ek (1947) Saussure, Meillet, Möller, Kurylowicz eta beste aipaturik Benvenistaren izena ez den lan osoan zehar agertzen; Sommerfelt-en (1945) lanean aitzindarien pentsamoldea egokiro azaldu ondoren, Benvenistaren teoriak suposatzen duen alorraren eraldaketa ez da ezkututzen. Bidebatez, hark arrazoi izatera IE zaharrean hitz-kategoria gutxiago zela ondorioztatzen du; azken gertakari hau genuen aitzineuskara zaharrean ere, zalantzarik gabe (cf. Lakarra 1995).

34. XIX. mendean Fortunatov-ek ere egin zuen honen guzti honen inguruko gogoetarik. Gogoratu Jakobsonek ireki berreraiketa eta tipologiaren arteko eztabaida, IE-ren kontsonantismoan bereziki gauzatu; Lakarra prestatzen-b-n ari naiz honetaz luzazago, baina cf. hemen § 8.4.

gundutako IE-aren morfologiaren azterketa baten ondoren, Benvenistek³⁵ definizio orokor batean biltzen ditu IE erroaren eta haren ezaugarriez analisi kate luze batean lortutako ondorio guztiak:

- 1.a. Erro IE monosilabikoa eta trilateroa da, bi kontsonante diferente eta *e*, oinarritzko bokala, konbinatzen dituelarik.
- 2.a. Eskema iraunkor honetan kontsonanteak zeinnahi izan daitezke, beren artean diferenteak badira eta ahoskabe bat eta ahostun hasperenduna konbinatzen ez diren bitartean.
- 3.a. Atzizki alternante baten bitartez erroak bi txanda-enbor lortzen ditu: I. Erroa gradu betean eta tonikoa + atzizkia zero graduan: II. Erroa zero graduan + atzizkia gradu betean eta tonikoa.³⁶
- 4.a. Atzizkiari soilik luzapen bat gehi dakioko, dela I enborrekoari, dela erroaren eta II enborreko atzizkiaren artean (infijazioa).
- 5.a. Lehendik luzaturik edota atzizki bat harturik den enbor bati beste luzapen edo atzizki bat gehitzea soilik izenki huts diren oinarrietan gerta daiteke (Benveniste 1935: 170-171).³⁷

3.2. Erroa semitikoak.

Fezko Hayyudj-k X. mendean horrela aldarrikatu zuenetik, uste erabat orokorra izan da erro semitikoak hiru kontsonantez osatzen zirela (Lipinski 1997: 201); hara gramatika konparatu famatuena hamar mende beranduago horretaz dioskuna:³⁸

35. Benvenistek eta ondokoen analisiaren deskribapen (eta kritika) baterako ikus bibliografian Jucquouisen lanak (eta Taillardat 1984 eta Watkins 1984 haiek zertxobait beratzeko); aitzineuskararen erroaren azterketan izan lezaketen pisuaz beste une batean aritu gogo nuke.

36. Bide nabar, zuluaren izen-klasa + erro konbinaketa ere ez da horren urrutiko eskema honetatik: «A Zulu noun consists of a noun-class prefix plus a root followed, optionally, by extensional suffixes (...). The extensional suffixes (...) are toneless. Noun-class prefixes may take either of two forms: a “full” form, which carries a high tone, or a “short” form, which is toneless. (...) The noun root may have from one to three syllables any of which may be high-toned insofar as that is consistent with the HH Condition» (Clark 1989: 59-60).

37. Szemerényi (1978: 137) eszeptiko agertzen da erro-morfema guztiak bakar batzuetara mugatzearekin baina salbuespen guztiak partikulak eta pronominalak direla aitortzen du; cf. orobat Watkins 1984. Ikus 65. oharra austronesioan diren erro-egiturari buruzko antzeko salbuespenez.

38. Ikus Amimi & Bohas 1996 (eta lehenago Galand 1984) hizkuntza semitikoetan erro-eskemak izandako aldaketaz eta, era berean, gorde duen iraunkortasunaz. Aurreko zenbait ikertzaileen lanez «nous allons montrer que l’inefficacité de ces traitements provient de ce qu’un élément morphologique n’a pas été pris en compte: le schème, dans la terminologie traditionnelle, ou le squelette, dans la terminologie contemporaine» dioskute (1996: 1); hara beren ondorioak: «Notre étude montre au contraire que sous la diversité apparente, toutes les variations de la position de la voyelle sont des manifestations actives de la position de la voyelle des anciens schèmes et nous amèneront donc à motiver leur persistance, tandis que le timbre de ces voyelles est strictement prédictable, vu la réduction de toutes les voyelles périphériques à schwa (...). La persistance du schème sur tant de siècles ne manquera pas d’étonner le linguiste peu familier avec le domaine sémitique»... halere artikuluko argudioek sakoneko egitura iraunkor horiek proposatzea beharrezko egiten dutela markatzen dute.

Bide batez, arabieraren barne-azterketa batez Bohasek ateratzen duen ondorioaren arabera “erro trilateroa” ez da lexikoaren erlazio semantikoak azaltzeko behar bezain abstraktua, eta abstraktuegia dugu, aldiz, morfologiaren abiapuntu izan dadin (Bohas 1997: 193).

The Semitic languages present a system of consonantal roots (mostly triconsonantal), each of which is associated with a basic meaning range common to all members of that root: e.g. *ktb* 'to write', *qbr* 'to bury', *qrb* 'to approach', etc. These roots (root morphemes) constitute a fundamental category of lexical morphemes (...). The linguistic reality of consonantal roots is shown not only by their lexical implications but also by the laws governing the compatibility or otherwise of radicals (which do not concern the vowels) (...) and in the transcription of foreign words. Only the pronouns and some particles lie outside this system of roots (Moscati 1964: 71).

Tradizio semitikotik landa ere hizkuntzalaritzan aspaldi hartutako ideia dugu:

En hebreo, lo mismo que en otros idiomas semíticos, la idea verbal en cuanto tal se expresa mediante tres consonantes características (con menor frecuencia dos, o cuatro). Por ejemplo, el grupo *sh-m-r* expresa la idea de 'guardar', el grupo *g-n-b* la idea de 'robar', el grupo *n-t-n* la idea de 'dar'. Naturalmente, estas series de consonantes son abstracciones de las formas que se emplean en la realidad. Las consonantes están vinculadas entre sí, en formas diferentes, por vocales características que varían de acuerdo con la idea que se desee expresar (...) (*El lenguaje*, FCE México 1977, 7. berrarg., 71-72. or.).³⁹

Moscatik (1964: 72) adierazten duenez, historikoki erro trikontsonantikoek gehiago handia osatzen dute; askozaz gutxiago dira bi edo lau kontsonanteko erroak eta oso urriak batekoak edo bostekoak, hiru kontsonante baino gehiagokoetan bigarren graduko eraketak aurki daitezkeelarik. Markagarri da, esaterako, Sabar-ek (1982: 149-150) eta bestek semitiko modernoan eta klasiko-ondorengoan erro laukoitzak, dela jatorrizko erroen hedakundez, dela hizkuntza ez-semitikoetarik mailegatuaz, dela onomatopeiaz eta mimetismoz sortutako berriez, ugalduez doazela esatea. Badira, ordea, erro-kontsonante bi amankomunean izaki, esanahi bera edo bertsua dutenak ere. Horrela, adibidez, hebraieraz *prd* 'to separate', *prm* 'to tear', *prs* 'to split', *prš* 'to break down', *prq* 'to pull apart', *prr* 'to dissolve', *prš* 'to distinguish', etab. Aditz hauek guztiek amankomunean dituzte *pr* erro-kontsonanteak eta 'banatu' oinarritzko esanahia. Lexikoi semitikoan hedaturik den fenomeno honek erro trikontsonantiko asko ez ote den bikontsonantikoetarik eratorria galdetzeraz garmatza, eta are sistema bikontsonantikoa ez ote zen trikontsonantikoa baino lehen semitikoan (Moscati 1964: 72).

Moscatiren erantzun ezaguna ezezkoa da. Nahiz eta aitortu (a) adierazten dituzten kontzeptuengatik (cf. *dam* 'odol', *yad* 'esku' edo *yam* 'itsaso') izenki bilitero zahar eta trikontsonantikoetara ezineramanak izan arren hizkuntzotan eta (b) aditz ahuletan hainbat erro bikontsonantiko direla non gehiago diruditen—bereziki beste bilitero batzuekin semantikoki bat datozenetan— beranduko hedakundeak ezen ez antzinako kontrakzioak⁴⁰ eta nahiz eta guzti honi lotu lehen

39. Martinet laburragoa da: «La forma normal de los lexemas de una lengua se llama a veces forma canónica. La forma canónica en chino es el monosílabo y en las lenguas semíticas tres consonantes, con o sin vocales intermedias. Estas son lenguas en las que esta noción tiene un sentido evidente. Es más difícil hallar una forma canónica para el francés, por ejemplo. Sin embargo, hay que tener en cuenta que en el lenguaje corriente las palabras largas tienden a reducirse a disílabos del tipo *mé-tro*, *vé-lo*, *té-lo* o *té-vé*» (*Elementos de lingüística general*, Madrid, Gredos, 2. arg., 1978, 124-5. or.).

40. Hirugarren argudioa hamitiko eta kutxitikoaren konparaziotik datorrenez, ikus bedi § 6.1.

erakutsi hainbat erro ustez trikontsonantikoek zati bikontsonantikoetan ematen diren berdintasun semantikoak, hara zein den bere ondorioa:

There is, however, no sufficient reason for maintaining, as some have done, that the entire Semitic stock of roots was originally biconsonantal. It is a more likely supposition that originally there existed roots with either two or three consonants (as well as a smaller number with one only or with more than three) and that at a certain stage in the development of the Semitic languages the triconsonantal system prevailed —extending by analogy and thus bringing into line biconsonantal roots through the adoption of a third radical (Moscati 1964: 73-74).

Konparaketak ematen zion laguntzaz landa Frajzyngier-ek (1979: 3-5) azterketa sinkronikoak eta barne-berreraiketak emandako argitasunak erabili zituen kontrakoa frogatzeko. Hasteko, segidan diren bi kontsonante (dela C1 eta C2 zein C2 eta C3) ezin izan daitezke homorganikoak; alabaina, bada salbuespen garrantzitsu bat, C2 eta C3 erabat berdinak (geminatuak) zilegi egiten dituen, alegia. xyy-erroak azaltzeko ez erro singleak baizik eta eratorriak direla eta goiko erregela soilik oinarrian betetzen dela baina ez eratorrian litzateke azalpen naturala, eta bestelako (inflexio zein deribaziotiko) lekukotasun askea duena, gainera. Bestalde, Frajzyngierrek argudiatzen duenez, erregela soil batez iturri beretik atera daitezkeela erro guztiak: hots, geminatuak ez lirateke jatorriko, lexikoian soilik erro mota bat dugularik, gainerakoak erregela batez sorturik. Honela R1R2 > R1R2R2 eta R1R2R3 > R1R2R2R3 gehi bokalizazioa aski litzateke hizkuntza semitikoetan agertzen diren erro-sail guztiak azaltzeko. Norbaitek deribaziorako beste forma edo erregelaren bat suposatu arren, geminatuak eratorriak lirateke eta ez oinarrikoak edo soilak.⁴¹

3.3. Izenkietako enborrak nim-yokutsean eta aitzin-yokutsean

Whistler eta Golla-k (1986) 1944ko Newman-en lan bat jarraiki ondoko ereduak bereizten dituzte nim-yokutsean izenkietako enborren azken silabaren arabera:

IA) enbor monosilabikoak;	IIBb ...CVC;
IB...CV;	IIIBc ...CaC (~...CoC).
IIA ...CiC (~...CuC);	
IIBa ...CV.C;	

41. Webb-ek (1988) arabierarako oso antzeko azterketa egiten du arrazoiei dagokienez, ondorioak ezberdinak badira ere: harentzat arabieraz, hizkuntza semitikoetan bezala, oso muga hertsia direlarik erroan kontsonante berberak edo homorganikoen aurka, erro geminatuak oso bereziak lirateke distribuzioari dagokionez, bigarren eta hirugarren kontsonante berbera dutelarik. Geminatuen ohiko analisiek eta baita sortzaileen ere sakonean erro bortitzak direla eta azaleko ezberdintasunak metatesi eta bokal erorketari zor zaizkiola dioten bitartean, Webbek, aldiz, erro bortitzak eta geminatuak sakonean nahiz azalean bereziak direla defendatzen du, geminatuak izatez bikontsonantikoak direlarik, trikontsonantiko izatera geminazio erregela batez aldatuaz.

Webben ustez historikoki gertatu dena soilik fonologia, morfologia eta aitortu baina gaizki ulertutako hitz-luzeraren arteko elkarlanaren bitartez baino ezin uler daiteke. Kausatibo eraketako erregela geminatzailea izanik horri lot zekiokkeen aditz berretuetako hirugarren kontsonantearen sortze-erregela. Orobat, aditz gehienak ere dagoeneko hiru kontsonanteko izateak taldera erakar zezakeen sail hau. Azken honetan analogiak eredu hedadura eta aldaketan duen garrantzia ikus Galand 1984.

Hauetarik IA, IB, IIBa eta IIBb yokutsaren beste adar zenbaitetan ere azaltzen dira eta aitzin-yokutsean ere bazirela suposatzen dute. IIA sailekoak eta IIBc-ko urriak oinarrian CVCC eredukoak bide dira, bigarren bokal ahula nominatiboe-tan baino azaltzen ez delarik, IIA enborretan goiko bokala eta behekoa IIBc enborretan bilakaturik. Aitzin-yokutsean *CVCC eredu eta epentesi erregela nominatiboetarako eman zen ikusteko familiako gainerako lekukotasunak aztertu beharra dugu.

Buena Vista hizkuntzetan datuak urriekiak dira CVCC-enborrak *i*-epentesia-rekin (=nim-yokutseko IIA saila) ala CVCVC enborrak (=nim-yokutseko IIBb saila) diren jakiteko; ez dirudi, gutxienez, *a*-epentesirik denik inola ere. Bestalde, badirudi hizkuntza hauetan nominatiboko bigarren bokala gorde egiten dela deklinabide kasu guztietan.

Poso creek adarrean antzina CVCVC zuten, bigarren bokala aurretiaz ezagun zelarik lehendabizikoaren kopia baitzen; honetan ere, jakina, lehendabizi epentesi erregela bat izanaren frogak aurki daitezke bokal horren ezarketan:

$$V \rightarrow \begin{cases} i / CiC _ \\ u / CúC _ \\ o / CóC _ \\ e / gainerakoetan \end{cases} \quad (\text{Whistler \& Golla 1986: 344})$$

Aitzin-yokutsarentzat izenkietan enbor eredu bakarra berreraiki da, *CVCC, kasu oblikuoetan *CVCC- zelarik eta *CVCVC absolutiboan, azken honetan 1. bokala azentuduna zelarik eta 2.a erregela batez aurretiaz atera daitezkeen bokal epentetiko laburra. Areago dena, (cf. Whistler eta Golla 1986: 353), badirudi aitzin-yokutsarentzat berreraikitako eredu morfologiko hau bat datorrela miwok eta utiar familietako bokal armoniko altuaren epentesiaren bitartezko enbor-eraketa prozesuekin, horrela orotan familia penutiar zaharreko⁴² ezaugarri baten aurrean ginatkeelarik.⁴³

42. Ezagun da familia penutiarra ez dutela hizkuntzalari gehienek onartzen Sapir-en eta besteren lanak gorabehera; Uhlenbeckek ustezko familia horretako fenomeno batzuekin lotzen zituen euskarazko erro disilabikoetako bokal bereko sailak; ikus beherago § 2.1. eta Lakarra prestatzen-b.

43. O'Grady-k (1987) pama-nyungan hizkuntzetan erro monosilabiko gehien jatorria disilabikoa dela erakusten du; zehazki, bi bidetatik bilakatzen dira disilaboak monosilabo: a) **r*-ren sinkopa, eta b) bokal apokopeak honek ekarri ohi duen kontsonante talde bakuntzeekin; hala ere ez da ausartzen guztiak horrela zirela esatera, baizik eta Europa mendebaleko hizkuntzek bezala edozein tamainatako edozein esaldi-kategoriatako hitzak zituztela, eta hizkuntzon lehenagoko garaietan monosilaboak ez zirela faltan edota oso mugatuak.

Dixon-ek (1980: 172-3), aldiz, hizkuntza australiar gehienetan disilabikoak nagusi direla onartu arren, aitzin-australiarren hizkuntza modernoetan baino hitz eta erro monosilabiko gehiago zirela aldarrikatzen du. Lehengo monosilaboak erreduplikazioz (*bibi*, *gugu*) eta bokal eransketaz (-*a* gehienetan) luzatu ziren; markagarri iruditzen zait, Dixonek markatu bezala, lehen eta bigarren silabaren artean izan daitezkeen kontsonanteak hitz akabuan izan daitezkeen berak direla.

Aurreko lan batean (Dixon 1970) egile berak dioenez, Australiako hizkuntza moderno gehienetan hitzek kontsonantez hasi eta gutxienez bi silaba izan behar badituzte ere, oligoloz hitz guztiak bokalez hasten direla eta amaitu ere asko horrela amaitzen direla erakutsi zuen. Eraldaketa honetan, besteak beste -luze/labur bereizkuntzak bokaletan ere galdu egin dira eta erdiko sudurkariak ere herskaritu

4. Erro eta morfema baldintzak

4.1. Yuma

Muga markak ezartzen dira fonologian beharrezko direnean baina ez beti erabat justifikaturik; gertakari honek argudioei zirkulartasuna edota *ad hoc* itxura eman diezaieke. Langdon-ek (1975: 218) mugak hizkuntzaren egitura morfosintaktikoari buruzko informaziotzat eta ez erregela fonologiko hutsez ulertzea proposatzen du. Fonologia hutsak zilegizta lezakeen muga silabarena genuke, hau batzuetan muga morfosintaktikoekin bat datorrelarik eta beste batzuetan ez. Kontua da hatsarrizko arrazoirik ez dela muga ez-fonologikoek eragin fonologikorik izan dezaten; duten edo ez duten hizkuntza bakoitzean ikusi beharko den arazoa dugu. Muga fonologiko hutsek eragin fonologikoa izan dezaketela onartuaz, azken finean hiztunaren gaitasunaren barnean baitira,⁴⁴ Langdonek —hizkuntza horietako morfologia eta sintaxiaren zenbait unitate oinarritzko finkatzeko— mugak erabili beharra duten yuma hizkuntzetako fenomeno batzu aztertzen ditu.

Fonologikoki yuma hizkuntzetan silaba azentudun bat eta aurretik eta atzetik mordoxka azentugabe biltzen dituzten hitzak agertzen dira. Azentudun silaba erroa izan ohi da, CVC egiturakoa delarik berau gehienetan, nahiz eta inoiz CV, VC edo V ere (beti azentudunak) izan daitekeelarik. Inguruko morfemak C, V edo CV izan ohi dira, silaba baino katea luzeagoak (edota are CVC bera) polimorfemikoak izan daitezkeen susmoak sortuaz. Yuma hizkuntzetan hitzak hainbait silabatakoak izan daitezkeelarik, errazki ikus daiteke beren barnean morfema muga anitz izan ahal dela. Horretaz landa, hizkuntzotan bokal- eta kontsonante-ablautak dira, ukitzen dituzten erroen esanahia —pluraltasunari lotutako fenomenoetan, demagun— aldatuaz (Langdon 1975: 211).

Langdonek soilik erro barruan gertatzen diren kontsonante eta bokalen arteko asimilazioak edota mugaz-gaindi baino gertatzen ez diren aldaketa fonologikoak aztertzen ditu, hizkuntza hauen fonologian erro- eta enbor-mugak aipatu beharra erakutsiaz. Aitzin-yuman hitzaren barnean ondoko egoera ikusi uste du:

Within the word, various degrees of strength can be recognized, each representing different susceptibilities to lenition. Strongest would be the root, centering around a stressed vowel, often flanked on each side by a consonant; and within the root, the root-initial consonant is the strong one par excellence, root-final consonants being less strong by virtue of their being poststress. Prefixes and suffixes surround the root with segments which are by definition unstressed and are therefore candidates for lenition, with suffixes being in the weakest possible position, being both poststress and unstressed. In

(*prestopped*)—, hasierako kontsonante guztiak erori dira eta baita hitz amaiera eta hasierako bokal topaketetan lehendabizikoa, honela azaleko egituran morfema mugak eta silaba mugak askotan bat ez datozelarik: *yúgu* > *úgu* 'tree, wood', *gúman* > *úMan* 'thigh', *inágigúla* 'you go!' < *inága* 'you' + *igúla* 'go-imperative'. Enbor amaierako bokalak soilik inflexio aurrean eta esaldi-amaiera-gunean ageri ohi dira. Bidenabar, interesgarriak dira Dixonen oharrak ologoz sortzeaz lirakeen (baina hizkuntzaren egoeratik inoiz berretsi ahalko ez bide ditugun!) izen-sail sorrera lirakeen semantikoki oinarrituriko C- / Ø-alternantziez.

44. «The units they delimit are obviously part of the competence of speakers of the language and are therefore readily accessible to them» dira Langdonen hitzak (1975: 218).

unstressed position, vowels tend to reduce or even disappear altogether or, alternately, are inserted to avoid unwanted consonant clusters (Langdon 1975: 230).

Honek guztiak azaltzen du erregela fonologikoak soilik erroetan, edo erroaz landako osagaietan, gertatzea: zergatik *a* laburra erroan bere inguruko kontsonante bortitzeekin asimilatzen den baina ez kontsonante horiekin beroriekin kokagune ahuletan; edota zergatik den horren zaila ulertzen (fonologia soiletik abiatuaz) *t*-ren alofonoen distribuzioa.

4.2. Koda indieuroperaz

Indieuroperaren erroko kontsonanteen agerraldi-murritzapenak azaltzeko asmoz sortutako teoria anitz izan da;⁴⁵ alabaina, saio orok puzzle heterogeneo batekin egin du topo. Iverson eta Salmons-ek (1992)⁴⁶ erro egituraren murritzapenak (EEM) azal zitzakeen arrazoi fonologiko askeak bilatu dituzte silaba eta koda zilegiztatzearen teoriatik abiatuaz.

Ezer baino lehen, EEM ez dira bestela ere aitzinindieuroperaz (AIE-z) —berreraiketarik laburreneko herskari guztiak kontuan izanik— oso agerraldi eskasa duten⁴⁷ erro-herskari-bikoitzen murritzapen orokorren zati txiki bat baino. Erro-herskari-bikoitzen urritasuna markagarria delarik, badira AIEko kontsonanteen distribuzioan erabakitzaile gertatzen dena ez EEM baizik eta bestelakorik dugula pentsatzera garamatzaten arrazoiak. Dena dela hasierako kontsonantea, amaitu ozenez (66,01 %) edo laringalez (17,32 %) amaitzeko joera du AIE erroak, bukaerako herskariak soilik % 14 direlarik (ahostun, ahoskabe nahiz hasperendun barne), horren ugari izan arren hizkuntza horrek bere inbentario fonologikoan duen herskari kopurua.⁴⁸ Iverson & Salmons-ek (1992: 301) markatu bezala, erro-herskari-bikoitzen eskasia erro-amaiera-herskaridunen eskasiaren ondorio naturala da. Bestalde, amaiera-herskaridun erroen falta AIE-n hizkuntza honen ozentasun (*sonority*) handiko amaieren aldeko joeratik dator; erro hasieran, aldiz, herskariak osoaren % 51 inguru dira, azken proportzio hau hobeki egokitzen zaiolarik AIE-aren sistema kontsonantikoaren konposizioari.

AIE-ren erro-herskari-bikoitzean litezkeen bederatzi osaketetarik, ohiko hiru EEM guztiz ezagun direlarik ere, ez da gauza bera gertatzen gainerako guztien urritasunarekin. Halere, murritzapenak dituzte gainerako konbinaketa guztiek ere, Iverson & Salmons-ek (1992) erakutsi legez; halaber, munduan diren eta izan diren hizkuntza askok amankomunean dituen silaba egitura-ereduetarik jalgitako murritzapenetarik dator gertakari hau: hizkuntza guztiek dute CV silaba; zenbaitek

45. Famatuena glotalikoa, behar bada; oinarrizko ohar eta bibliografia-laguntza baterako ikus § 8.4.

46. Ik. halaber Iverson & Salmons datagabea; honetan bada ohar laburren bat ere kodagabeko erroak berreraikitzeak nostratikoarekin eta besterekin erkatzeko dakartzan aldaketek.

47. ± % 3,5 (71 2000tatik) Pokorny-ren lexioian dialektalak kendu ondoren (cf. Iverson & Salmons 1992: 296).

48. Iverson eta Salmons-ek, puntu honetan neutral agertu arren, artikulazio hirukoitzarekin jokatzeko dute; Brugmann-en laukoitzarekin emaitzak are larriagoak lirakeke. Izan ere, soilik txistukariz amaitutakoak dira urriago (% 2,81) eta ohar bedi zeinen txistukari gutxi diren IE-n eta, jakina, bai batzuen eta bai besteen ozentasuna ozen eta laringalena baino txikiago dela.

badu CVC ere, eta hizkuntza hauetarik batzuetan zeinnahi kontsonante zilegi da, dela hasieran, dela amaieran. Badira beste zenbait hizkuntza, ordea, silabaren kodan murriztapenak dituztenak baina ez silaba hasieran.⁴⁹ Orobat, ez da ez IE-z eta ezta handik kanpo ere, amaieretan ahostun nahiz ahoskabe baina hasieran soilik ahoskabeak, edota hasieran neutralizatuak baina amaieran tinko eusten dituen oposizio fonologikodun hizkuntzarik. Honengatik guztiagatik —Goldsmith, Prince eta enparauak jarraituaz— Iverson & Salmonsek (1992: 306) silabarekin batera koda ere bigarren zilegiztatzailea dela aldarrikatzen dute. Aipagarri da kodan kontsonante konbinaketari buruzko ozentasun murriztapenak direnean, murriztapen horiek beti laguntzen dituztela kontsonante ozenenak, gertakari hau Vennemann-en “egitura silabikoaren lehentasun legeekin” bat datorrelarik: herskariak izaki apalenak ozentasun hierarkian (bokal > glide > likido > sudurkari > frikari > herskari), horiek dira unibertsaiki beste edozein baino lehenago kanpo gelditzeko hautagaiak, baldin eta delako hizkuntza batek ozentasun-behar nimiñoena ezar baleza. Badirudi hau dela AIE-ren kasua.⁵⁰

Konpara bedi malayalam hizkuntza dravidikoaren kasua. Hizkuntza hau silaba-koda gabekoa da. Hitzunei *bhakti* ‘devotion’, *campa* ‘jasmine’ eta *dabba* ‘tin can’ ahoskatzeko eskatzen zaienean *bha-kti*, *ca-mpa* eta *da-bba* eman ohi dute, beren aldameneko hindian *bhak-ti*, *cam-pa* eta *dab-ba* egiten duten bitartean (Mohan 1989: 591). Silaba egitura bi hizkuntzotan diferentea dela oso erakusteko adibideak biltzen ditu Mohanek hitzjokoetan eta antzekoetan (1989: 592, 4. oh.). Hitz-amaieran, eta salbuespen bezala, soilik *m* eta *n* kontsonanteak onartzen dira eta hitzen batek beste kontsonanteren bat balu gune horretan \varnothing -epentesia pairatzen du, are ingelesetiko eta beste hizkuntzetatik mailegutan ere: *maas + ewite* > *maasewite* baina *kaat + kuttə* > *kaatəkuttə* edo *maas + pooyi* > *maasəpooyi* eta ing. *belt* > *beltə*, *power* > *pawarə*. Kodaren aurkako argumentu gehiago dator geminatuekiko hitzunen ulerpenetik: *amma* ‘mother’ eta *kutti* ‘child’-en malayalam-hiztunentzat, hurrenez hurren, 3 eta 4 segmentu dira, 4 eta 5 hindi-hiztunentzat, aldiz. Malayalam-hiztunek geminatuak segmentu bakartzat hartzen dituzte; hindi-hiztunek ez, silaba baten akabuko eta hurrengoaren hasierako bi ezberdin baizik; gehi bekio hindi-hiztunek ez dituztela bereizten malayalameko geminatuak soilatarik.

Lehenagoko CV egoera batetik abiatuaz, Benvenistaren teoriak azaldu egituran gailurrera iristen den IE-zko erroaren garapen-kronologia aurkezten dute Iverson & Salmonsek (1992); hau da, CVC hedatugabea, I. enborra CVC-C, II. enborra

49. «In Mandarin, the only consonants to appear in the coda are the nasals; at the end of the word in (Modern) Greek, generally only [n] or [s] occur, and in Spanish also only nasals or continuants. In the Bantu language Luganda, on the other hand, or in the Austronesian language Selayarese, or even in Japanese, an obstruent stop may appear in the syllable coda, but only if it is homorganic with a consonant in the onset of the following syllable» (Iverson & Salmons 1992: 306).

50. Bidenabar, “Obligatory Onset Condition” delakoa jarraiki, malayalamak ez du bokalez hasten den silabarik. Historikoki malayalamak asko mailegatu du sanskritotik. Ondorioz asimilazioa hainbestekoa izan da non malayalamak sanskritoaren zenbait talde kontsonantiko onartu dituen, bidenabar sanskritotik hartutakoan kodak oro desagertaraziaz, lekat *m* eta *n*-ez amaituak. Beste hizkuntza dravidiko batean, tamilez, euskara zaharrean bezala kontsonante taldeak hautsi egiten dira bokal epentesiaz (Mohan 1989: 616).

CC-CV (zero gradua edo ablauta erroan — gradu arrunta [e] luzapenean). Egileon ustez, AIE-ren erro egitura C V C_(+ozen) litzateke, honako hau erantsiaz:⁵¹

Though this supports positing a stage of (P)IE where roots were overwhelmingly, if not strictly, CVC, it is possible to suppose that at some prior stage PIE was a predominantly open syllable, CV language, and that the prevalent CVC root in PIE came about because a set of consonantal augments, now largely obscured affixed themselves to the earlier CV syllables. The final consonants would then later have undergone word-, stem- or root-final weakening, resulting in the pattern of sonorant-final preferences noted here. Lenition of earlier, less sonorant root-final segments [...] thus offers a direct reconciliation of the coda restrictions described in section 2 above with the classic, Benvenistean pattern of CVC root structure for PIE: CVSon < CVC < CV + C (Iverson & Salmons 1992: 309-310).

Bestalde, CVTT amaierako herskari-bikoitzeko errorik ez izatea kodako ozen-tasun murriztapenetik ateratzen da; izan ere **dekt* ezinezkoa da **dek* lehenago ezinezkoa izaki:

This is precisely the result that will obtain if double-stop CVC roots actually were as rare as we have calculated them to be. In particular, taking the source for CVCC roots to have been CVC plus extension, as per Benveniste (1935), then the fact that the post-vocalic C in CVCC is always a consonant of relatively high sonority derives automatically from the general preference at the CVC stage of PIE for high sonority codas, i.e. CVC was actually CVR, hence “extended” CVC+C equates with CVRC (Iverson & Salmons 1992: 312-313).⁵²

4.3. Afijazio baldintzak txineraz

Richter-ek txinera modernoaren hitz-eraketa ikertzen duelarik, hizkiak hizkuntzako gainerako unitateei nola atxikitzen zaizkien aztertzen du, honetan erregularitate sintaktikoak, morfologikoak, fonologikoak eta semantikoak direla aldarrikatuaz (1993: 33).

Haren ustez lau unitate oinarriko dira txinera modernoan gramatika-egiturak deskribatzeko: hitza, esaldia, morfema lotua eta morfema lotuen bilduma.⁵³ 14 hizkirekin eratutako 1400 hitzetan enborretatik % 74 hitzak, % 13 esaldiak, % 9 morfema lotuen bildumak eta % 4 morfema lotuak direla aurkitzen du (1993: 34-35).

Hizkiek enbor-gaiei ezartzen dizkieten baldintza fonologikoen artean silabata-suna kokatzen da; hots, zenbait aurrizkirekin lotzekotan monosilaboak baino ezin dira izan. Esaldiak eta morfema lotuen bildumak beti polisilaboak izaki, soilik hitzak

51. Austronesiotik polinesiora egindako kontrako aldagetak, hots, koda galeraz eta silaba irekien aldeko joeraz ikus Kruppa 1971 eta hemen 101. oharra eta hari dagokion testua.

52. Benvenisteren eskema lehenagoko CV garai batera eramanaz Szemerényirentzat oso arkaiko diren eta egitura hori hartzeko joera handia duten izenordain, partikula eta afijoak sailkatzea lor daiteke.

53. Richterrek Aronoff-en hitz-eraketari buruzko hipotesi batzuk gezurtatzen ditu, honako honetan “Word Based Hypothesis” delakoa, alegia. Bestetik “Unitary Base Hypothesis” deritzona, gehienetan hizkiak hitz-sail diferenteetako enborrekin batera baitaitezke.

eta morfema lotuak izan daitezke haien enbor. Beste zenbait hizkik hitz-sailarekiko baldintzak ezartzen ditu: adjektiboak eratzeko aurrizki batzuek soilik aditzekin batera daitezke; gainera horietako batzuek azpikategoriazioa ere ukitzen dute, bakarrik aditz iragankorrekin konbinatzean (Richter 1993: 37). Azkenik, ukapeneko zenbait adjektibo-aurrizki ezin erants dakioke [ezezko] tasuna duen enbor bati.

Europar hizkuntzetan bezala, txinera modernoan ere badira zenbait fenomeno fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta semantiko erroari hizkiak inposatutako baldintzen ondorio gisa azal daitezkeenak (Richter 1993: 46). Horietarik batzuk, Richteren ustez, lehendabizikoz txinerarentzat kausitu dira eta Europako hizkuntzetan ez zen antzekoren berririk eta beharbada txinerarenak eta haren ahaideenak baino ez dira (konplexutasun gradua eta silabatasuna, alegia). Hizki guztiek ez dituzte lau sailetako baldintzak ezartzen. Gehienetan silabatasunari dagozkion baldintza fonologikoak dira (noiz enbor monosilabikoa, noiz disilabikoa eskatuaz) eta enparauetarik askotan baldintza sintaktikoak (hitz-sailak).

5. Erroa eta hizkuntz-elkarteak

5.1. Txamera

Asiako ekialde eta hego-ekialdean aspaldikoa da monosilabismorako joera. Joera hau jatorri diferenteko hizkuntzetan kausitzen da, familia austronesikoan kokatu ohi diren hizkuntza txamikoetan, adibidez. Hizkuntza hauetan eredu monosilabiko analitikoaren ezaugarri oinarrizkoak ditugu: a) morfema monosilabikoa, b) hitz konbinaketa, ez afijazioa, eratorpenean, c) esaldiko esanahi gramatikala gauzatzeko lanabes lexikoen erabilera, d) isolamendu osoa sintaxian (Alieva 1991: 220). Hizkuntza txamikoetan ezaugarri guztiok aurkitzen direlarik mendebaleko austronesioari buruzko aldaketa handia izan dute; areago dena, kontuan izanik ikertzaileek aitzin-mendebaleko austronesioarentzat morfemen ehuneko larria disilabikoa berreraiki dutela eta aitzin-txamerarentzat erdia pasatxo baino ez delarik, ondoriozta genezake dagoeneko aitzin-txamera ere jo zuela monosilabaketa prozesuak.

Txam hizkuntzetan beste batzuetan baino areago joan izan arren prozesu honetan, egungo egunean badirudi aldiz amaitua dela, aldiz aitzina doala; hots, hainbat morfema monosilabikok sakoneko egitura disilabikoa du eta noiz bata, noiz bestea ager daiteke hitz solteetan zein esaldietan. Zenbait ikertzailek markatu du txam hizkuntzen morfema aldakortasuna; halere, guzti honetatik ezin atera genezake morfema disilabiko orok alomorfo monosilabikoa duenik (eta alderantziz), eta gainera hiztunen araberako aldaketak ere gogoan izan behar dira.⁵⁴ Hainbat morfema, bereziki mailegu anitz, soilik egitura monosilabikoan ezagutzen dugu. Bestalde, txamerako erro-morfemen aldakortasuna ez da soilik kuantitatiboa (silaba kopuruan) baina baita kualitatiboa (fonema aldakortasunaren bitartezkoa) ere.

54. Orobat aitzin-lexikoaren barnean % 1 edo trisilaboa dela. Hau bisilabo egin daiteke bigarren silabaren lepotik: *talimô* ~ *talmo* 'hat', *talipan* ~ *tampan* ~ *tapan* 'eight', *thalipan* ~ *thapan* 'nine', *kojuwa* ~ *kojwa* 'cause', etab. (cf. Alieva 1991: 223).

Hizkuntza hauetan, enbor disilabikoak dituzten Indotxinako gainerako hizkuntzetan legez, azken silaba da parterik garrantzitsuena. Aurrekoa agertu ez arren edo laburturik gorde arren, esaldia ez da aldatzen; akabuko hori, aldiz, morfema eta hitz askea dugu. “Silabaurreko” (*presyllables*) usukoenak *o*, *to*, *po*, *lo*, *li*, *mung*, *mu* ditugu eta horien jatorria eztabaidatua bada ere, joan den mendetik markatu izan da mendebaleko austronesioz eta mon-khmer hizkuntzetan *t*-, *p*-, *k*- eta *m*-hasierako aurrizkiak direla. Izatez etimologikoki aurrizkiak badira ere, hizkera modernoan beren esanahia ez da argia hitzuntentzat eta hortik gainerako “silabaurrekoak” bezala ezabatu ahal izana. Bisilaboak bi eratan bilaka daitezke monosilabo, a) lehen silabaren ezabaketaz eta b) osoaren kontrakzio baten bitartez:

Aitzinaustronesioa	Txam	Bilakabidea
* <i>pilak</i> ‘silver’	<i>po-riak</i>	<i>pria?</i> ~ <i>ria?</i>
* <i>tipit</i> ‘thin’	<i>to-pih</i>	<i>tpih</i> ~ <i>pih</i>
* <i>kabav</i> ‘buffalo’	<i>ko-paw</i>	<i>kpaw</i> ~ <i>paw</i>
* <i>libu</i> ‘thousand’	<i>li-pow</i>	<i>lpow</i> ~ <i>pow</i>

Alievak (1991: 224) erakusten duenez, forma-hautapena ez da soilik estilistikoa, ikertzailearen batek uste bezala: hitz teknikoek eta ohiko ez direnek gordetzen dute hobekienik lehen silaba, eta idazkera tradizionala ezagutzen dutenen ahotan gainerako hitzetan ere forma osoagoak eriden litezke.⁵⁵ Bestalde, hitzak sintagma bezala erabiltzen direnean, subjektu edo objektu gisa forma disilabikoei ematen zaie lehentasuna eta monosilabikoei, ostera, hitz konposatuetan.

Lehen aurreratu dugunez, aldaketa kualitatiboak ere badira hizkuntza hauetako morfemetan, hauek ezagutzea zailduaz. Oro har, silabaurreko hasierako kontsonantean gertatzen dira, aurrizkiak eurak aldatuko bailiran: *tangin* ~ *kangin* ‘hand’, *tilam* ~ *kilam* ‘inside’, *poco* ~ *koco* ‘already’, etab. (cf. Alieva 1991: 225). Halaber, monosilaboetan: *twa* ~ *kwa* ‘two’, *tlaw* ~ *klaw* ‘three’, etab. Bestalde, Indotxinako hainbat hizkuntza monosilabikotan legez, erro amaieran ere ozenaldaketak izan litezke: *khan* ~ *khal* ‘skirt’, *kothan* ~ *kothal* ‘umbrella’.

Lehen silabaren ahultzea eta haren eta erro-aitzineko kontsonanteen aldakortasuna areagotzea, monosilabaketa prozesuari lotuak dira Alievarentzat (1991: 226); aitzinaustronesioan erro-morfemetan fonema alternantziak aipatu izan badira ere, eta nahiz eta erreduplikazioetan Indotxina aldean ere horrelakorik izan, ez dira aski txameran aurkitu dugun egoera azaltzeko. Txameraren eboluzioa guztiei lotua da eta Asia hego-ekialdean hain handia da hizkuntzen eboluzio bateratzailea, non hizkuntz-elkarteaz mintza gaitzkeen. Alievaren ustez (1991: 227) txamera Indotxinako hizkuntz-elkarte horren adibide tipikoa genuke, bere egitura eta lexikoan hizkuntz-batasun horretako ezaugarri anitz hartu dituelarik, lehengo ezaugarri genetiko austronesioak galduaz. Hortik txameraren izaera mixto eta heterogeneoa:

In the convergent evolution inside the language-union the spoken form of Cham participates, together and simultaneously, with some other spoken idioms of the area

55. Idatzi zaharretan austronesioz ohiko diren eta izan diren disilabiko eta trisilabiko ugari aurki daiteke (cf. Alieva 1991: 226).

belonging to various genetic stocks. The general course of development in the Indochinese language-union as in the wide East Asian area —and many linguists have already manifestly shown it— leads to the formation of a system characterized by tonal monosyllabism, analytism, isolation. These are the conditions that are continuously influencing the evolution of Cham to monosyllabism and at the same time result in the utmost heterogeneousness and variability of this language in its present state (Alieva 1991: 227).

5.2. Erroa kartvelikoz eta indieuroperaz⁵⁶

Kartveliar (K) hizkuntzen eta indieuroparren arteko erlazioen ikerketa gutxienez Leibniz-en garaian hasten da. Geroztik Bopp-ek analogia materialak eta egiturazkoak oinarri harturik K hizkuntzak IE familiaren barnean kokatu zituen, zehatzago honen kaukasiar adarrean. Bi hizkuntza multzoon arteko konparaketak bere alde ez zuelarik erlazio sistematikorik, bestelako bideei lotu zaizkie azken bi mendeotan hizkuntzalariak K hizkuntzen ahaideak bilatu nahian: gutxienik Max Müllerr-en turania, Marr-en kartveliko-semitikoa, ibero-kaukasikoa, euskaro-kartvelikoa eta hipotesi nostratikoak hor izan dira. Azken hirurak agertzen dira ikertzaileen artean entzutetsuen, baina Klimov-ek dioskunez «Though all three claim to be self-sufficient, each, apparently dissatisfied with the arguments adduced till now, is still seeking further factual corroboration» (1991: 325).⁵⁷

Aipatu Boppen muturrera zein nostratikoa onartzera iristen ez diren ikertzaileek ere egiturazko antzekotasunak aitortu dituzte bi hizkuntz familia hauen artean (cf. Klimov 1991: 330 eta haren bibliografia). Eredu- edo elkarte-linguistikoaren birtartez azaldu nahi izan diren ezaugarrien artean ozenen sistema, ablaut ereduak, erroaren egitura eta morfema konbinaketa, sintaxi aktiboa eta beste zenbait aipatu izan dituzte Gamkrelidze-k (1966) eta Gamkrelidze & Ivanov-ek (1995 [1984], etab.) nahiz beste zenbait ikertzailek.

Erroarekin zuzenean sartu aurretik, hizkuntza kartvelikoetan hori baldintzatzen duten bi fenomenori buruz (ozenez eta ablautaz, alegia) zenbait ohar egingo dugu, haien morfonologia hobekiago uler dadin. Gamkrelidzek eta Machavarianik (cf. Gamkrelidze 1966) 6 bokal (*e, a, o* luze eta laburrak) berreraikitzen dituzte AK berankorrerako eta bokal bakarreko sistema AK zaharrenerako. Kontsonanteak 30 dira, herskari, txistukari, afrikatu eta frikariak barne, eta aurrekoak, erdikoak eta atzekoak bereziaz azken bi multzoetan. Guzti honetatik landa ozenak (*j, w, r, l, m* eta *n*) aurkitzen ditugu (Gamkrelidze 1966: 70). Hauek bost kokagunetan ez dira silabikoak: (1) Eten ondoren eta bokal aurrean, (2) bokal ondoren eta eten aurretik, (3) bokal baten eta kontsonante baten artean, (4) bokal artean eta (5) kontsonante eta bokal artean georgieraz. Silabikoak dira aldiz (1) kontsonante ondoren zein

56. Zati hau Lakarra 1998a-ko batzuen laburpen denez, jo beza hara irakurleak zehaztasun gehiagotarako.

57. Hipotesi horiek, bereziki K hizkuntzak IE-kin lotzen duen nostratikoak, kartvetologiarren artean arrakastarik zergatik izan ez duten ulertu nahian, Klimovek aipatzen dituen arrazoien artean (ikertzaile zenbaiten metodologian izan daitezkeen hutsez landa), bi genituzke nagusi: konparatisten lanetan kartveliar linguistikan 60ez gero izandako aitzinamendua ez ispiatzea, eta K hizkuntzen gramatika konparatua beste familiekin erkatzeko konpondu beharko litzatekeen hainbat puntu larri oraindik askatzeke izatea.

eten aurrean, (2) enbor-amaieran kontsonante ondoren, (3) kontsonante artean, (4) eten ondoren eta kontsonante aitzinean.⁵⁸ Erroa atzizki eta aurrizki bat baino gehiagorekin konbina zitekeelarik monobokalismoaren hatsarria zen nagusi: hots, forma polimorfemikoetan, nahiz aditz nahiz izenki, soilik morfema bat izan daiteke gradu normalean; gainerakoak edo zero graduan (gehienak) edota gradu luzatuan dirateke.

Gamkrelidzek deskribatzen duen AK IE-ren oso antzekoa da egiturari dagokionez; egileak berak dioenez (1966: 83) erro eta atzizkien egitura eta horien konbinaketa sintagmatikoa AIE-rako Benvenistek emandako erregela berberak erabiliaz deskriba daiteke. Gamkrelidzeren ustez, isomorfismo honen oinarrian bi hizkuntz familia hauek beren garapenaren uneren batean lotura historikoak izan dituztela («the same *Sprachbund*») eta baita aitzin-aberriak (*homeland*) hurbilak ere ondorioztatu behar genuke, eta ideia hauek aski zabalduak ditugu hizkuntzalaritza konparatuan.⁵⁹ Harris-ek (1990) Gamkrelidzek eta Ivanovek (1995 [1984]) kartvelikoa eta indieuropearen artean proposatu bost paralelo fonologiko nagusi miatzen ditu: kontsonanteen inbentarioa, ozenen sistema, erro eta afijoen forma kanonikoa, horiek konbinatzeko era eta ablaut-sistema. Hara bere emaitzak:

In the last three categories there are also important differences, including differing interpretations of the CVC formula for root structure, differing constraints on this formula, exceptions to this formula and that for suffixes, use of prefixal “character vowels” in verb forms, use of prefixal agreement markers, different vowel alternations involved in ablaut. Whether or not the structural similarities are great enough to qualify as “isomorphic” in Kurylowicz’s sense of this term, these phenomena in these two language families are not *identical* in the ordinary sense of this word.

Wherever possible, I have cited examples from Gamkrelidze and Machavariani 1965 or from Gamkrelidze and Ivanov 1984 in order to make the point that the authors of the latter work are well aware of the phenomena discussed here. This suggests that in the

58. Bi ozen konbinatzen direnean zein silabiko eta zein ez-silabiko bihurtzen den gobernatzen duten legeak dira: «The choice of the allophone is determined by the character of the sonant and its surrounding. Thus the sequence /-rwV/ is realized as [-rwV] and [-ruV] indiscriminately [...] /Cw/ before /*r *l *m *n/ is realized as [Cu], while the following /*r *l *m *n/ are nonsyllabic [...] The same sequence /Cw/ before /*j/ is realized with nonsyllabic [w], while the /*j/ is syllabic» (Gamkrelidze 1966: 72). Ozenen distribuzio ereduak —beranduagoko garapenez eta aldaketa fonetikoez oso ilunduak geratu aurretik— AK-ko bokal aldaketen sistema morfofonemikoarekin guztiz lotuak ziren: «The ablaut variations of vocalic phonemes determined CK structure as a whole and were used, along with affixation, to form different grammatical and lexical categories. Combinations of morphemes into complex sequences obeyed definite rules of vowel gradation. For example, the base of the transitive verbal form **dr-ek*- ‘bend’ is characterized by the zero-grade allomorph of the root morpheme compounded with the full grade of the suffix **-ek*, while the corresponding intransitive base **der-k*- ‘bend, stoop’ represents the full-grade allomorph of the root and zero grade of the suffix. Such variations of zero and full grades of the root and suffix form structurally well-defined patterns of alternating verbal bases» (Gamkrelidze 1966: 63).

59. Halere, ikus Charachidze 1986-87 eta Diakonoff 1990. Lehenak Gamkrelidzek eta Ivanovek IE-en aitzin-aberria hegoaldean semitekin eta ipar-ekialdean hego-kaukasiarrekin kontaktuan zela eta “Kaukaso txikian”, Transkaukasiako eremu menditsuetan kokatzen dutelarik, berak ez du hori garbi ikusten eta uste du IE-tarren aitzin-aberria ekialdera izateak argitu behar duela kartveliarrena eta ez alderantziz (orobat datazioari dagokionez); Charachidzek (1986: 220) nahiago du suposatu IE-ren jatorria Mesopotamia eta Arexes artean dela eta kartveliarrena ibai horren iparrera. Diakonoffek Kaukasoko eta hegoalderagoko hizkuntz egoera konplexua laburtzen du, bide batez «It is my considered opinion that the Indo-European language speakers never left their homeland» (1990: 56) gehituz.

quotation above these authors are using the word *identical* in some special sense. It is important to have these details discussed again here, since many readers of their work will otherwise interpret *identical* as meaning 'exactly alike'. Clearly the sub-systems of these two proto-languages are not alike in their details (1990: 92).

Gamkrelidzek eta Machavarianik lehenik (1965) eta Gamkrelidzek eta Ivanovek ondoren (1995 [1984]) kartveliko batuaren erroa forma kanonikoa CVC eta atzizkiena -VC deskribatzen dituzte. Honetan bide datza IE eta K batua isomorfoak direla esateko oinarria, formula berberak baitira IE-rentzat ere, eta bai batean eta bai bestean "C" nahiz ozen, nahiz kontsonante izan daitekeelarik. Alabaina, Harrisek gogoratzen duenez, bi familietan formula horren gauzatzea aski diferentea izan daiteke: esaterako, "C" kontsonante talde "harmonikoa" izan daiteke K-z, nahiz morfema hasieran, nahiz morfema akabuan (cf. **t'q'aw-* 'hide, skin', **šwed-* 'remain, be left', **leɣw-* 'fig' **rečx* 'wash', etab., in Gamkrelidze & Ivanov 1995: 223); IE-z ez da horrelakorik.

Halaber, egia da IE-ak (eta, bidenabar, baita Vennemann-en (1994) "europera zaharrak" ere) morfema aitzineko s likidoa izan lezakeela, baina ez da horrelakorik morfemaren gainerako guneetan kartvelikoz (**da-stw-* 'hartz') gertatu bezala. Kartvelikoz Cs- (edozein C + s, cf. **ps* 'urinate') nahiz ozen + s + txistukari (**msxal-* 'pear') agertzen zaigu, ez aldiz IE-z. Nahiz batean nahiz bestean, formulako "C" C bat gehi ozen bat izan genezake: erro-hasieran C bat eta ozen bat eta erro-akabuan ozen bat gehi C. K-z, baina ez IE-z, jakina, erro-hasierako "C" ozen bat eta C bat nahiz talde bat izan daiteke (cf. **rt'q'* 'hit'). Erro-akabuko "C"-pean C bat, zein talde bat gehi ozena aurki genezake. K-z, "C" kontsonante gehi w gauza daiteke; konbinaketa hau (morfemako bana gertatzen delarik gehienez ere) Gamkrelidzek eta Ivanovek kontsonante ezpainkaritutzat hartzen dute, horrela IE-z direnekin erkatuaz.

CVC erroaren forma kanonikoarekiko diren salbuespenen artean K-z C, CV, CCV, VC eta beste eriden daitezke. Hauetarik IE-z CV izenordain eta partikuletara mugatzen da, VC gehixeago azaltzen da eta gainerakoak ez dira agertu ere egiten. IE-k baditu CVC erroaren forma kanonikoarekiko bestelako muga batzuk ere, dela (ohiko eran azaldurik) (1) herskari bera bi C kokagunetan azaltzeko debekua, eta (2) ahostun hasperenduna eta C ahoskabe bat konbinatzeko debekua. K-z (1) zilegi da, cf. **deda* 'mother', **dud* 'tip', etab. Ez hori bakarrik; ez da soilik bi C berdin izan ditzakegula K-z, baizik eta Machavarianik formulatutako erregelata batek dioenez, (3) C hauok ezpainetakoak edo hortzetakoak balira, nahita nahiez berdinak izango dira ahotsean eta glotalizazioan: horrela **pab*, **pap* eta **p'ap* ezinezko dira K-z. Badirudi erro kartveliko gutxi dela (2)-n emandako erakorik, baina Klimoven hiztegi etimologikoan badira **kab-* 'know' eta **kad-* 'err, be mistaken'.

IE-ren eta K-ren erroek amankomunean duten eta Gamkrelidzek eta Ivanovek beren teoria glotalikoaren bitartez azaltzen duten zenbait muga, ez dira soilik bi familia horietan azaltzen, eta bai C glotalikoak dituen beste hizkuntza askotan ere. Harrisen ustez (1990: 86) ez da antzekotasun handirik K-ren eta IE-ren erroen CVC formulen artean, dela "C" gautzatzeko diren aukera anitzengatik, dela formu-

laren salbuespen ugariengatik. Orotara, K-ren eta IE-ren erroak aski ezberdin ditugu. Zenbait erro kartveliko, besteak legez CVC formakoak izan arren, ondorengoak bezalakoek ez dirudite IE-renak: *brg-* 'fight', **rc'q'a-* 'water', **rt'q'-* 'gird', **msxl-* 'pear', **mcer-* 'insect', etab.; alabaina, honelako erroak ugari dira oso K-z.

Aurreko deskribapenak IE-ren eta K-ren erro eta afixoen forma kanonikoek amankomunean gauza handirik ez dutela erakusten du. K-ren erroen forma gehienbat C talde harmonikoek mugatzen dute alde batetik eta CVC erako erroetan bi glotal ezberdin izateak bestetik; IE-k soilik bigarren muga —unibertsala edota oso zabaldua munduko hizkuntzetan berau— du amankomunean.

6. Erroa eta erlazio genetikoaren frogak

6.1. Erroa afroasiatikoz

Ikusi dugu (cf. § 3.2.) Moscatiren erantzuna ezezkoa zela semitiko zaharrear erroa biliteroa ote zen galdetzean, nahiz eta horren aldeko frogak sinkronikoak eta barne-berreraiketarik eta —atal honetan aurkeztuko ditugun— konparaziotik datozenak izan. Hain zuzen ere, semitikoz *qt'* 'er(h)o' edo *p'l (f'l)* 'egin' bezalakoei kutxitikoz *qal*, *fa*⁶⁰ dagokie, eta gainerako hizkuntza kamito-semitikoekiko eraketak hipotesi bikontsonantikoa laguntzen du argiro.

Erro semitikoaren ohiko ikuspegi trilitero hau Diakonoff (1970, 1975, 1984) eta beste hainbat egilek berrikusi dute azken hamarkadetan, dela barneko argudioetan, dela konparaketatik jalgietan oinarriturik. Paradigma aldaketa interesgarria, nolahi ere ez osoa, begizta daiteke Chaker hamitistaren bi garai diferentetako hurrengo pasarteak erkatuaz:

L'une des originalités du sémitique est l'existence dans cette branche d'une très forte majorité de racines à trois consonnes. Une situation analogue est aussi généralement admise pour le chamito-sémitique commun: les racines bilitères ne devaient y être attestées qu'un assez petit nombre. De ce point de vue, les faits berbères sont apparemment assez différents; dans l'état actuel de la langue, si les racines triconsonnantiques sont très nombreuses et certainement majoritaires, il n'est pas moins vrai que le berbère connaît une proportion non négligeable de racines bilitères et même monolittères (phénomène particulièrement sensible dans le lexique de base). Cependant, la comparaison interdialectale et les recherches diachroniques montrent qu'une grande partie de ces racines bi- ou monoconsonnantiques ne sont que d'anciennes racines trilitères ayant perdu une ou deux radicales en raison d'une usure phonétique particulièrement forte en berbère (...). Ce correctif une fois apporté, on aboutit pour le berbère à un état de chose somme toute assez comparable à celui du sémitique et des autres branches de la famille (1984 [1975]: 238).

depuis près d'un siècle, des thèses biliaristes (...) et trilitaristes (...) s'affrontent, avec autant d'arguments sérieux de part et d'autre (1990: 177).

60. Adibideetan ageri eta Moscatik eta gainerako egileek argiro markatu legez, kutxitikoz erroa bikontsonantikoa da eta bokalismoa iraunkorra. Ikus honetaz gehiago ondorengo oharrean.

Erabat barneratua zen ikuspegia aldatuaz joan da, halako moduz non Lipinskik zein Bohasek aldarrika dezaketen ozenki ezen «contrary to the traditional opinion, the basis stock of the Semitic vocabulary appears to consist of monosyllabic root morphemes (...) that can be extended by affixes, which are either lexical morphemes» (Lipinski 1997: 202-203) edota «nous croyons être parvenu à justifier une position diamétralement opposée à celle de la majorité des chercheurs, laquelle s'est imposée comme une *doxa*, depuis le début du siècle et prétend que les racines triconsonantiques sont des primitifs» (Bohas 1997: 193).⁶¹

Txadikotik, egipziera zaharretik, bereberretik eta hizkuntza kutxitikoetatik atera dezakegun lekukotasuna bat dator semitikoan (cf. § 3.2.) ikusitakoarekin; hots, azken honetan egundaino gordetako erro bikontsonantikoaren geminazio erregela aitzinhizkuntzatik (afroasiatikoaren garaitik) guztiek jaso eta gordea dugu. Frajzyngierrek erakutsi duenez (1979: 5), hizkuntza guztietan bilakabide horren bitartez aditzaren intentsibo-ohiko-pluraleko formak sortzen dira, eta hori bide zen aitzin-afroasiatikoan forma erreduplikatuek bide zuten balio orokorra, oraindik talde bakoitzak zer gorde eta zer berritu duen erabat argitu ez den arren.

Hizkuntzalaritza kamito-semitikoaren (eta afroasiatiko osoaren) barneko arazorik arazotsuenetakoa semitiko eta kamito-semitikoaren erroaren interpretazioa dela erakutsi du Diakonoffek zenbait lan garrantzitsutan.⁶² Egitekorik beharrezkoenatarik ere bada, orobat, zeren eta soilik hori askatzeak erraztuko du hizkuntza semitikoaren eta kamito-semitikoaren azterketa konparatu hertsia; zehatzago, aitzin-formak berreraikitzea ia ezinezkoa da aitzinsemitikoaren mailako erro-egitura ulertu gabe, eta ulerpen eta berreraiketa hau gabe ez genuke inongo modurik hizkuntza kamito-semitikoaren gramatika historiko eta konparatu zientifikorik prestatzeko (cf. Diakonoff 1970: 453).

The latest argument which has recently been advanced in favour of retaining the term "Hamitic" was, as far as I know, the supposed fact that the Hamitic roots are mainly biconsonantal while those of Semitic are triconsonantal. Our work on the Comparative Historical Vocabulary of Afrasian (CHVA) has shown without a shadow of doubt that this is wrong. The Common Afrasian roots were in principle biconsonantal; most of them have been extended to a triconsonantal status either by reduplicating the second consonant of the root, or by adding a real or fictitious 'weak' consonant (forming either *mediae infirmae* or *tertia infirmae* roots), the choice between the formation of a *secundae geminatae*, a *mediae infirmae* or a *tertia infirmae* secondary stem is virtually non-predictable (i.e. these types of the root are allomorphic at the Proto-Afrasian level). An additional method of forming secondary roots is the one well known from Proto-Indo-

61. Bestalde, badirudi lehenago aipu zen (cf., adibidez, Diakonoff 1970: 453hh) jatorrizko izenki erroetako bokalismoaren iraunkortasunaren eta aditzeko bokalismoaren izaera funtzionalaren arteko aspaldiko oposaketa ere ahuldu egin dela: Lipinskik (1997: 202) arabieraren eta ekialdeko semitikoaren -a-, -i- eta -u- aditz-ereduen tinkotasuna markatzen du, «reveal a relative stability of radical vowels, which should therefore be regarded as forming part of the root» gaineratuaz (etzana neurea da).

62. Lehenago, Lafonek aipatzen duen Marcel Cohen ere aldekoa zen; bidenabar, euskara eta kartvelikoa edota kaukasikoa (?) diren egoera oso bestelakoa dela erakusten du eta Lafon ohartua zen honetaz: «La grande preuve de la parenté des groupes chamito-sémitiques, [...], réside dans l'identité d'ensemble des systèmes morphologiques, tant pour la structure générale que pour l'aspect même des éléments formatifs: beaucoup sont pareils à première vue, d'autres se ramènent facilement à la similitude» (Lafon 1951-52: 92); ikus Lakarra 1997b.

European, viz., the adding of a suffixed (very rarely a prefixed) consonant 'complement' to the root. In about 90 % of the cases (at least in that part of the vocabulary which we have worked through) the so-called 'three-consonantal roots' can with a great certainty be derived from a well attested biconsonantal root plus a complement which is used to modify the main semantics of the biconsonantal root. Note that the 'biconsonantal cum complement' roots are well attested not only in Semitic but also in Cushitic, Berber and Egyptian, and though they are somewhat more rare in the Chadic and some of the Cushitic languages, the reason for this phenomenon is: (1) the loss of external inflection which later also caused losses in the final stem consonants and (2) the loss of a number of Proto-Semitic phonemes in Late Stage languages (Diakonoff 1984: 1-2).⁶³

6.2. Aitzin-ipar-yuki-wappoa.

Elmendorf-ek erakutsi izan du (ikus haren 1997ko lana eta han aipatu bibliografia) badela Kalifornia erdialdeko zenbait hizkuntza genetikoki lotuak direla esateko arrazoirik. Hots, yukiak, huchnomak eta itsas-hegiko yukiak osatzen duten hurbileko taldeak batetik eta wappoak beste aldetik amankomunean dutena ez litzatekeela aurreko ikertzaile zenbaitek (Sawyer-ek eta Alichter-ek, alegia) esan bezala mailegu, elkarte-fenomeno eta hurbilketa prozesuen ondorio, baizik eta guztien aitzin-hizkuntza litzatekeenaren hondarra.

Berehalakoan ikus daitekeenez, wappoak eta gainerakoek CVC erro egitura amankomunean dute izen eta aditzetan; alabaina, honek ez du berez erlazio genetikorik erakusten, oso zabaldua baita munduko hizkuntzen artean, lan honetan bertan ere zenbait adibide badirelarik. Baina besterik da, aldiz, hizkuntza horiek guztiek amankomunean dituzten erro aldaera paraleloei dagokienean, aitzin-hizkuntzan emankor eta historikoki lekukotuetan agortu egin diren prozesuak izaki. Hori da batez ere amankomuneko irregulartasunek esaten digutena. Elmendorfen lana baino lehen ere ezaguna zen iparraldeko yuki hizkuntzak hurbil izan arren lexiko, fonetika eta morfologian ez zela beste horrenbeste gertatzen haien eta wappoaren artean eta, hortaz, bi multzoen arteko erlazioa izatekotan ere urrutikoa eta denbora sakontasun handikoa izango genuke.

Iparaldeko yukia CVC da batez ere (**kiw* 'arrow', **mam* 'berry', **lal* 'lake', etab.), CV zenbait eta CVCC gehixeagorekin. Elmendorfek azken hauetaz dioenez (1997: 75) «These final clusters may reflect old stem-formative processes» eta handiagoak guztiak azter bide daitezke polimorfemiko edo mailegu gisa. Wappoan CVC eta CVCV dira egitura ohikoenak, markagarri delarik CVCV gehienbat CVC erroa gehi -V enbor hedadura gisa uler daitekeela.⁶⁴ Ipar-aitzin-yukian bezala, wappoan ere aipagarri da ezaugarri sintaktiko asimetrico bat, Izen + Izen eta Izen + Adj egituretan: konposatuetan modifikatzaile + burua (**?ol-pal* 'leaf' (lit. 'tree-leaf'), **sim't-?ol* 'buckeye-tree', etab.) baina buru + modifikatzailea Izen + Adj-etan: **?on-k'at* 'mud' ('earth-wet'), **?uk'-hoht* 'ocean' ('water-big'), etab.

63. Bomhard-ek (1991) ere ontzat eman eta osotoro aipatua.

64. Hortaz, goragoko maila horretan CVC monosilaboa delarik. Baitchurak (1987: 170) altai-koarentzat ere egitura hori berreraiki daitekeela uste du, turkieraz dagoeneko aldatua eta eskuraezina bada ere.

Wappoak hitz monosilaboetako hotsen konbinaketan baditu zenbait muga, aitzin-ipar-yukiko morfema bukaerako berberak izan ez arren oso antzekoak direnak:

In one-syllable Wappo words of the form C1VC2, followed by juncture (pause), any consonant except glottalized continuants may occur as C1, but if C2 is occlusive (a stop or affricate) it will be only a marked member of its series, that is, aspirated or glottalized. With final resonants, Sawyer's formulation is that «combinations of glottalization and voicelessness with *m*, *n*, *l*, *w*, and *y* are limited to syllable-final position» (Elmendorf 1997: 77).

Aitzin-ipar-yukian, wappoan legez, kontsonante glotalizatuak soilik silaba akabuan agertzen dira; badira amaiera herskari soilez dakarten silaba gutxi batzuk, eta horietan gehienbat *h* + herskari edota herskari glotalizatua (nahiz ? + herskari taldea) berreraiki daiteke yuki hizkuntzaren baten edo besteren laguntzaz. Silaba-akabuko herskariak glotalizazio edo aspirazioz markaturik berreraiki balitez orduan wappoarekiko paralelismoa erabatekoa litzateke.

Fonema agerpenaz dituzten murrizketa paraleloez landa, C1VC2 erroetan antzeko aldaerak dakuskigu wappoan eta ipar-yuki hizkuntzetan. Horietarik askok dagoeneko funtzionalak ez diren enbor-eraketa eta ablaut prozesuak direla dirudite, aldaera-sareak nahiz C1, nahiz V, nahiz C2-n gerta litezkeelarik: wappo *hol* : aitzin-ipar-yuki **?ol* 'tree', wappo *kew* : aitzin-ipar-yuki **kiw* 'arrow', etab. Aldaera eta txandaketa zahar horien esanahia iluna bada ere, Elmendorfek modalizat berreraiki ditu. Azterketarako laguntza haboro datorkigu antzeko fenomenoak dituen wintu hizkuntzatik: morfema akabuko -C-ri dagozkionak aditzaren kategoria sintaktikoak dira (egoera, prozesua, ekintza...), C1-i morfema barneko hots-sinbolismoa eta V aldaketak aintzinako erro eratorpen prozesuak edota bokalen luzapenak aditzen ekintza edo intensitatea nahiz objektuaren edo pairatzailearen pluraltasuna. Orotara, wappo eta aitzin-ipar-yukiaren arteko azterketa konparatu gehiago beharrezko bada ere azterketa gramatikalaren eta barne-berreraiketaren bitartez fosil morfologiko hauetariko zenbaiten jatorrizko balioa antzemateko, badirudi yuki familiara eta wappo isolatura baino hedatu ez ziratekeen mailegu gisa ez bien etorki litzatekeen hizkuntza beraren hondar eta lekukotasuntzat baizen hartzea litzatekeela zuzenago.^{64b}

6.3. AN-txinera

Gondak markatu legez (1949/51-52: 323) indonesioaren izenki-oinarrien ("words-bases") gehiengo nagusia bisilabikoa da: malay. *mati*, *mulut*, *pengal*, *pintal*; javan. *gawé*, *sugih*, etab. Dempwolff-ek (1934-38) bere aitzinaustronesioaren

64b. Noonan-ek (1997) salish familiako hizkuntzen artean deskribatzen duen erro-inbertsioak (χ^w ay 'thaw' / $ya\chi^w$ 'thaw', etab.) bere arrarotasunean suposatzen duen lotura genetikoaren frogar metodo konparatuaren gainerako baldintzak ere betetzen direlarik, oso sendoa da. Izan ere salish hizkuntza guztietan (eta aitzinsalishean) Noonanek 101 kasu aztertzen dituelarik, ez dirudi erraz denik horrelako dozenaerdi adibide aurkitzen familia diferenteetako hizkuntzetan; are gutxiago prozesu orokor baten lekuko bezala erakustea kasu solte horiek: aitzineuskarazko **eNala*/**eLana* (cf. FHV) euskaraz bakarretarik genuke.

berreraiketan proposatueterik % 96 bisilabikoa zen. Lau silaba edo gehiagotako hitzak bi hitz disilabikotan banatzeko joerak hizkuntza hauek edozein oinarri eredia inposatzen saiatzen direla erakusten du: sanskr. *svayamvara* 'self-choice of a husband by a girl' > malay. *silam bara*; holan. *karnemelk* 'buttermilk' > javan. *karan mélik*, etab. Jatorrizko hizkuntzan monosilaboak ziren asko bisilabo gisa bertakotu dira: holan. *dienst* 'service' > javan. *dines*, holan. *pacht* 'ease' > malay. *pakaj*, etab.⁶⁵

Dahl-ek (1976: 10) Dempwolffen berreraiketaren ondoren deskribatzen duen hizkuntz-egoera (aitzinaustronesia) ere Gondak deskribatutako indonesioaren oso antzekoa agertzen da. Dempwolffek berreraikitako monosilaboak CVC dira; nagusi diren bisilaboen artean honako hauek bereiz daitezke:

- a) CVCVC;
- b) CV(N)CVC eta CVCCVC (bi monosilabo berdinekin).

Oinarri trisilabikoek ondoko formak dituzte: CVCVCVC, CVNCVCVC, CV(N)CVCVC, CVCVNCVC, CVCV(N)CVC edo CVCVCCVC (bi monosilabo berdinekin), direnean sudurkariak eskubiko kontsonantearekiko homorganikoak direlarik; lau silabatako oinarri gutxi azaltzen da eta direnek bi disilabiko arrunten batuketa dirudite.

Blust saiatu da zenbait lanetan (1988a, 1988b)⁶⁶ izenkietako bigarren silaban erroa aurkitzen; horretatik atera da izenki-oinarria, dela osoko erreduplikazioz (*baq-baq*), dela zatikakoaz (*lu-lun*), afijo (aurrizki) "semantikoki hutsak" gehituaz, sudurkari gehiketaz (*bəntas < bə-tas*) eta fonosinbolismoaren bitartezko erro-aldaketaz (cf. Zorc 1990).⁶⁷

Potet-ek (1995) tagalo modernoarentzat ere gehienbat CVC erro silababakarreko sistema aurkitzen du maileguak kendu ondoren; enborrak, aldiz, bisilabo edo trisilaboak dira oro har, eta eskizazioz (herskari glotal bat bi bokalen artean tartekatuaz), duplikazioz (zatikazko CV- erreduplikazioaz) eta erreduplikazioz eratzen direlarik hauek. Hitz monosilabikoetan erroa silaba bakarrean da, jakina, bestela bi diferentetan aurkituko dugu. Enborrak hazteko aurrizkiak, artizkiak nahiz atzizkiak dira, konposaketaz landa.⁶⁸ Gondak indonesiorako duela ia mende erdi aurkeztua ere bide beretsutik zihoan:

65. Preposizioak, determinazio partikulak, etab., aldiz, monosilabikoak dira inoiz (Gonda 1949/51-52: 323); cf. 37. oharrean IE-z.

66. Baina gogora bedi Gondaren antzeko azterketa goiko testuko aipuan.

67. Nothofer-ek (1990) Blusten iruzkin latza egiten du, baina badirudi ondoko ikertzaile gehienek honen teoria jarraitzen dutela.

68. Interesgarria deritzot Potetek bere saioaren azken ondoriotzat dakarrenari, austronesioaren berreraiketaren azken urteotako sakontzearen adierazle nabarmen baita: «Thus, there are two sets of Austronesian words available for comparison: those which have a root in common, and those which have a radical in common. I am convinced that the former are much anterior to the latter. So far, Austronesian studies have mainly dealt with radicals. For roots to have become the new trend is a welcome development» (1995: 370).

Let us now consider the structure of the IN languages. They do not possess an inflectional system which might be compared with the IE or Semitic inflections; the morphological frame-work is very poor; in most IN languages the formation of words forms a much poorer and less variegated chapter than in the field of IE linguistics. The sound-system is, comparatively speaking, characterized by stability. Most word-bases (...) are disyllabic (...). Monosyllabic roots (usually represented by the second syllable of the word-base) occur unchanged through many series of words with similar meanings (...). The word-base may be formed from the root by complete doubling and partial reduplication (...), by combination with another root (...), by adding a (prae)formans (...), etc. From word-bases derivations are formed by doubling and reduplication (often with variation of the vocalic element (...); but in most cases by derivation with affixes (Gonda 1949/51-52: 92-93).

Bestalde, osagarrien jatorria zeinnahi ere den, erroari emandako arretak hizkuntza austronesioen kanpotiko erlazioak ikertzeko aukera zabal zezakeen. Hori zen Lewitz-ek eta Jenner-ek (1973) zuten ideia zenbait forma austronesiotako azken silaba mon-khmer hizkuntzetako oinarritzko formekin erkatzean; izan ere, baldin eta hizkuntza austronesioak austronesio-aurreko garai monosilabiko batetik abiatu badira eta mende hasieran Schmidt-ek aurkeztutako austrikoaren hipotesia zuzena balitz, austroasiatikoaren eta austronesioaren arteko erlazioa frogatzeko giltza austronesioaren erroa izan daiteke hain zuzen ere (cf. Blust 1988a: 54).⁶⁹

Txinera zaharraren (cf. Sagart 1993b) eta austronesioaren berreraiketa gaurkotuetan oinarriturik, Sagart arestian bi familien arteko erlazio genetikoaren aldeko frogak aurkezten saiatu da (Sagart 1993a eta 1994).⁷⁰ Sagarten frogak fonologi-koetan —eta egileak kultur hitzak ez diren berbak lotzen dituzten arretaz osatutako konparaketa lexikoak ere badakartza— txineraren monosilaboak eta austronesierazko hitzetako bigarren silaba erkatzen da, eta, halaber, txinerazko tonuaren eta herskari oposaketan jatorria azal dezakeeten lege fonetikoak ematen, txinera

69. Zaila egiten da bibliografia eskuragarri eta eraginkor ugari ekartzea Th. Sebeok-ek ("An examination of the Austroasiatic language family", *Language* 18, 1942, 206-217) hipotesia miatu eta baztertu zuenetik hurrengo atalean aipatzen den Reid-enganaino; halaber, ikus Chen 1995 eta van Driem 1997. Lehendabizikoak dioenez (1995: 165) ikertzaile txinarrek txinera eta kam-tai hizkuntzak bildu ohi dituzte; europar eta amerikarrek kam-tai eta austronesioak. Bigarrenean «The Sino-Bodic hypothesis posits that the Bodic languages together with Chinese make up a genetic grouping named Sino-Bodic, or Northern Tibeto-Burman, within the greater Tibeto-Burman language family» irakurtzen dugu (1997: 462).

70. Vovin-ek (1994a, 1994b) aztertzen du Benedict-ek AN ez txinerarekin baizik eta japonierarekin erkatzeko egindako saioa. Hara Vovinen ondorioak: «The conclusion from the above must undoubtedly be that Benedict's work has serious defects when judged by the methodology of traditional comparative linguistics: 1) his comparisons are not based on a set of regular phonetic correspondences; 2) there are almost no common Japanese and Austronesian morphological markers that are not a result of an incorrect morphological analysis of Japanese; 3) comparison of PAN [=Proto-Austronesian] with OJ [=Old Japanese] instead of PJ [=Proto-Japanese] often makes Benedict propose inadequate etymologies; 4) his lack of awareness of recent developments in the reconstruction of PJ also leads to untenable and very often ad hoc reconstructions; 5) there are lexical ghosts among the Japanese entries, attested exclusively in Benedict's book; and 6) the general number of Austronesian etymologies for Japanese with reasonable semantics is very small» (1994a: 111). Berdin beste lanean, non hipotesi honetaz «has low credibility» (1994b: 369) dioen, eta austronesioa austroasiatikoarekin eta ainuarekin lotua izan daitekeela proposatzen (1994b: 386).

zaharraren silaba barneko *-j-* eta *-r-* austronesioaren artizki bezala (*-in-* eta *-ar-* hurrenez hurren) ere azalduaz.^{70b}

6.4. Nikobarera

Hizkuntza austronesioen eta Asia hego-ekialdeko zenbait hizkuntzaren (*Austriac*) arteko ustezko erlazioak aspaldidanik izan dira aipu. Mende hasieran Schmidtek ondoko baieztapena egiten zuen:

I find the proof of this firstly, in the fact that their phonological systems are exactly the same; secondly in the complete agreement of their original morphological systems; thirdly, in a number of important and not so important points of grammar, namely (a) the postposition of the genitive, (b) the use, and to some extent the form of the possessive, (c) the existence of exclusive and inclusive forms of the first person plural pronoun in a number of these languages; and fourthly, in the extensive agreement of their lexicons (*apud* Reid 1994: 324).

Oraintsuko Reiden azterketa batek, erabateko batasuna ukatu arren, antzekotasunak halabeharrezkoak izateko gehiegi eta garrantzitsuegi direla erakusten du (orobat Diffloth 1994-k ere). Nikobar irletako hizkuntza malayerarekin erkatu ohi da aditzetan aurrizki, artizki eta atzizkiak izanik bietan. Halere, erroa mon-khmer hizkuntza gehienetan ezagutzen den morfologia berekoa edo halatsukoa aurkitzen dugu: CV(V)(C) erro monosilabikoa da nagusi, aurretik CV egiturako aurrizki azen-tugabeak edota erreduplikazio fonologikoki aldakorrak har ditzakeelarik (cf. Reid 1994: 325).

Nikobareraz **pa-* eta **ka-* aurrizki kausatiboak eta **-um-*, **ma-/am-* artizki agentiboak, *-*an-/in-* instrumentala eta **-a* objektu-atzizkia azaltzen dira, hizkuntza austroasiatikoetan ohi legez. Sintaxian nikobarera SVO da mon-khmer hizkuntzak bezala, eta ez VOS austronesioa legez; burua-atributoa ordena (I+adj./erlat., VO) du eta era honetako hizkuntza askoren moduan preposizioak. Menpeko esaldiak eta “juntagailu-atributiboak” *-na* eta *-a* morfemez egiten dira, *-ta-*ren bitartez lokatiboak. Aitzin-austronesioa tipologikoki egungo nikobareratik oso gertu zen. Hau, berez ez bada ere erlazio genetikoen froga, Reidek aurreko ezaugarrietan eta beste zenbaitetan ere aurkitu ditu hala funtzio- baizik nola forma-antzekotasunak.

Nikobarera lexikoiari dagokionez aspaldidanik ez denez austroasiatiko, pentsatu ahalko litzateke morfologia ere austronesikotik mailegatua dukeela. Hipotesi honek bi arazo nagusi ditu Reidek azaltzen duenez: batetik, mailegaketak jo ezin duen ezer ez bada ere,⁷¹ ez dirudi egiantzekoa aditz sistema osoa (aurrizki, artizki eta atzizkiak barne) mailegatzeari, baina hizkuntza-emaileko erroak

70b. Vovinek (1997) eta Sidwell & Zhon-ek (1997) ez dute txinera eta AN-ren arteko lotura genetikoa onartzen ez eta Sagartek erabilitako metodoen egokitasuna ere. Halere (1997: 318), uste dute haren etimologia zenbaitek substrato-erlazioa erakutsiko luketela. Lan hauek –eta hor iruzkintzen duten Wangen bilduma– ezinbestekoak gertatzen dira txineraren erlazio genetikoen inguruko hipotesiez jabetzeko.

71. Mailegaketaren (ustezko) joera eta mugez izan den bibliografia ugarian ikus daitezke Campbell 1993, eta Moravcsik 1978b. Haarmann-ek (1990) glotokronologian oinarritako lexikoaren kontzepturako suposatzen duen oztopo larriaz dihardu.

hartu gabe. Bestetik, aipatu diren nikobareraren ezaugarri morfologiko —ustez jatorri austronesikoko— zenbait, munda hizkuntzetan eta dira, austronesikoaren eraginetik urruti, alegia. Kontrako bidetik, nikobarera austronesiotzat jo bageneza, orduan nikobareraren berlexikalizazio falta azaldu beharko genuke, eta baita zergatik ez dituen mon-khmer hizkuntzen ezaugarri morfosintaktiko gehiago hartu, edota, aldiz, zergatik bere morfologia “austronesia” gainerako hizkuntza austroasiatikoe-tan ere azaltzen den.

Reiden ustez (1994: 340) azalpenik arrazoizkoena ondokoa genuke: nikobarrera hizkuntza austroasiatiko kontserbadorea litzateke oso, aitzin-austroasiatikoaren morfologia eta sintaxia ongi gorderik eta familiako gainerakoek izan duten thai eta txineraren eraginik gabe, bere bazterreko kokaguneagatik. Aldiz, austronesiar biztanlegoaren aldetiko asimilazio erabatekoa (eta lexiko-eraberritzea) gertatzeaz landa, bestelako populaketa ez-austronesio eta ez-austroasiatiko eman zen irletan, honek azaltzen duelarik nikobareraren lexikoko alderdi ez-austroasiatiko.

6.5. Euskara eta kartvelikoa⁷²

Ezagun denez (cf. Mitxelena 1964: 60) euskara mundu guztiko hainbat eta hainbat hizkuntzarekin erkatu dute mendeetan aztertzaile samaldek. Hauen artean, ordea, zenbait ikertzaile ofizioko ospetsuk euskararekin modu landuago batez parekatu dituztenak hizkuntza kamito-semitikoak eta kaukasikoak izan dira soilik. Arestian Traskek (1997: 392 hh) egindako errepasuan ikus daitekeenez, aspalditik, mende luze batez geroztik behintzat, izan dira saioak euskara Kaukasoko zenbait hizkuntzarekin lotu nahian. Saio horietan helburua erdiesteko asmoa azkarra izan da horretarako garatua zen hizkuntzalaritza konparatuaren oinarriak betetzeko baina. Arrazoi tipologikoen eta genetikoen balioaren nahasketak, eremu bateko nahiz besteko maileguen eta jatorrizko formen arteko bereizketa eza, morfema-zatiketa eta morfologi-azterketa oker eta interesatuak, Kaukasoa diren ia berrogei hizkuntzetan noiz honetatik noiz hartatik, noiz garai zahar lekukotutik (gutxienetan georgiera zaharraz landa) noiz asmatutik zein gogora datorren hiztun gutxi batzuen dialektotik hartutako formak ikus ditzakegu lan-deslan honetan.⁷³

Mitxelenaren ikerketaren (1957, *FHV*) ondoren aitzineuskararen berreraiketa fonologiko eta lexiko zabal eta sendoa izaki, ez da horrelakorik gertatu Kaukaso aldean, edo hobe, hango hizkuntzalaritza aitzinatu ahala argiago geratu da zenbait hizkuntza (kartvelikoak nabarmenen) genetikoki beren aldetik loturik izan arren, ez

72. Atal hau Lakarra 1998a-ren laburpena da.

73. Trasken iruzkinaz kanpo ikus bitez zabalago Mitxelenaren 1950, 1964 eta 1968 eta Vogt 1955. Montella, Monti & Raucci-k 1989an hizkuntza kaukasikoen kokapenaz ari direlarik euskara eta horien arteko uestezko erlazioez proposatu diren hipotesi nagusiak deskribatzen dituzte, lan horretan beren aldetik kritika-izpiritu handiegirik erakusten ez badute ere. «Secondo Michelena e Dumézil i rapporti stabiliti tra basco e lingue caucasiche settentrionali da un lato e basco e lingue caucasiche meridionali dall'altro, potrebbero favorire la soluzione dello spinoso problema delle correlazione tra le lingue caucasiche dei due versanti» (282) esatea nahasgarri baina ezin izan daiteke, ondoren «Altrimenti, ribadisce Michelena, la comparazione dovrebbe limitarsi ai soli elementi pancaucasici, del resto rarissimi» gehitu arren. Vogti ematen zaion arreta edo toki laburra eta (guztia onartzen ez bazaio ere) Boudari uzten zaion hedadura, “autoritate-sistema” bitxi baten adierazgarri dira.

zela orobat jazotzen gainerakoen artean eta egiantz urria zuela guztiak familia bakarrera eramateko esperantzak; are gutxiago, jakina, **aitzin-kaukasikoa eta euskara.⁷⁴ Bouda, Lafon eta enparauak euskara eta Mediterraneoaren handiko alderdiko hizkuntzen artean egokitasun fonetiko eta morfologikoak bilatzen saiatu arren, metodo konparatuari atxikiak nekez onar lezake haien garaipenik, kontuan izanik, batetik, ezagun zaizkien jokutriak eta metodo honek —eta edozein berreraiketak— berarekin dakarren eta ikertzaileok bete ez duten hizkuntzon historiaurrea argitzeko beharra, bestetik.

Gorago (§ 5.2.) bidenabar kartvelikoaren erro egituraz ikasi duguna aitzineuskararenarekin konpara bageneza, hain eskasak lirateke amankomuneko ezaugarriak non zail bailirudike horren urruti diren bi hizkuntza edota bi hizkuntz familia ediretea. Izan ere, A(itzin)E(uskara)-ren erroa CVC genuke, K-rena —edota IE-rena— bezalatsu, baina hartan ez bezala -T ezinezko delarik; IE-z legez, bestalde, AE-z eta E-z ere ez da K-z aurkitzen den talde harmonikorik. AE-z ez zen s likidorik, ez hitz hasieran ez bestetan; are gutxiago Cs- nahiz ozen + s + txistukari talderik. K eta IE-z morfema hasieran “C” = kontsonante + ozen (edo alderantziz morfema akabuan) izan badaiteke ere, AE-z ez zen horrelakorik; K-n gertatzen denaren aurka, eta IE-z legez, AE-z ezin zen “C” = ozen + kontsonante morfema hasieran edo “C” = kontsonante taldea + ozen amaieran izan, eta ez zen bertan kontsonante + w talderik nahiz kontsonante ezpainkariturik ere.

CVC erroaren salbuespenak, ezagutzen ditugun neurrian, AE-z IE-zko (izenordain eta partikuletako) CV-tik hurbilago agertzen dira K-ren ugarietarik baino:⁷⁵ cf. *ni, hi, gu, zu, *ha-r, no-r, ze-r...*⁷⁶ IE-z bezala AE-z ere ezinezko da herskari bat bi C kokaguneetan azaltzea edota ahostun hasperenduna eta ahoskabe bat konbinatzea, K-z gertatzen denaren aurka; halaber, AE-z ez zen K-z gertatzen den ahots eta glotalizazio berdintasunik. Izan ere, Lakarra 1995 eta beste lanen batean Iverson eta Salmons jarraiturik ozentasunaren eskala erabiliaz azaltzen da silaba-erro berean bi T ez izatearen arrazoia. Glotalizazio murriztapenak, direla K-k bere aldetik dituenak, IE-rekin baterakoak edota biek beste zenbait hizkuntzarekin agertzen dituztenak, ez dira aurkitu AE-z, era horretako kontsonanteen lekukotasunik ere erakutsi ez den bezala.

Harrisek ikusi legez, IE-k eta K-k CVC formula amankomunean izan arren, “C” gauzatzeko diren aukera anitzengatik, edo formularen salbuespen ugariengatik, ez da antzekotasun handirik bi hizkuntza familion erroen artean. Erkaketa

74. Cf. «[...] en comparaciones que van más allá de las lenguas kartvélicas las leyes fonéticas nos son, *a priori*, desconocidas, y por ello no tenemos criterios para poder diferenciar entre correspondencias surgidas históricamente en lenguas emparentadas genéticamente y semejanzas fortuitas en lexemas de lenguas sin ningún parentesco. Cada comparación genética, por lo tanto, tiene que colocarse, en la medida de lo posible, en grupos de lenguas estrechamente emparentadas, para reconstruir, con ayuda de correspondencias fonéticas regulares, lenguas madre no documentadas» (Schmidt 1989: 763).

75. Beste lan batean (Lakarra 1998b) tratatu dut Vennemannek eta Traskek aipatzen duten euskarazko ustezko V- ugaritasuna; erreduplikazio-hasierako kontsonantearen (ikus § 9.9.) eta herskari hasperendunen galerak badu hor zer esanik eta, alderantziz, ez dirudi Vennemannek suposatu laringal erorketarik izan denik (eta ezta horrelakorik suposatu beharra denik ere).

76. Lehendabiziko lauren kasuan baliteke gorago jotzerik ere noizbait izatea.

erraza ez bada ere —bataren eta bestearen K-rekiko urruntasuna dela bide— AE esango genuke IE baino are urrutiago dela. Gainerako morfemei dagokionez, -V formako atzizki kartvelikoak ere ez ziren ezohiko garairik zaharretan, baina badirudi garai horietarik izan direla -C(V) erakoak ere. Hortaz, atzizkien forma kanonikotzat -VC azaldu arren, gutxienez salbuespen anitz zela onartzen du Harrisek (1990: 87). Aurritzien formaz mintzatuz geroz, erro eta atzizkietan adinako ugarietasuna aurkituko genuke; ondorengoak, bederen, kartveliko batudanikoak dira: V-, C- CV-.

AE-ren erroa CVC genuke, K-rena —edota IE-rena— bezalatsu, baina hartan ez bezala -T ezinezko delarik; bestalde, hango atzizkien -VC forma (ibid.) ez dirudi E-z bakar ez nagusi izan denik, are -VT aurretiaz kanpoan utzi ondoren ere: cf. *-ra-t < -ra-da*, *-tik < -ti-ka*, *-rik < -ri-ka*, *-t < -da*, *-k < -ga*, etab., baina *-gaitz / -kaitz*, *-rantz* lehenagoko erroetarik (cf. Lakarra 1998b). Erka bedi ondorengoa euskararen eboluzio morfologikoaz jakin uste dugunarekin: «The Kartvelian languages employ prefixes, suffixes, and circumfixes. While the last of these may distinguish this family's morphological rules from those of Indo-European, the circumfixes show evidence of being secondary, the result of combining prefixes and suffixes in a unified function» (Harris 1990: 88) eta, batez ere, ondoko «Prefixes may have been more important than suffixes in inflection and derivation in archaic Common Kartvelian».⁷⁷ Ez deritzot irudi hau AE-ren egiturari egokitzen zaionik: deribazioa urria izan dela berandu arte begitantzen zaigu —*goR-i* eta *goR-din* bezalakoak askozaz errazago dira banatzen edozein aurrizki baino—⁷⁸ eta ugari konposaketa, akitanieraz oraindik ikusten den moduan: horietarikoak (edo maileguak) bide ziren, ez soilik gorago aipatu TVTV guztiak, baizik eta are (C)V(C)CV(C) egiturakoak ere: *zezen*, *lagun*, *argal*, *odol*, *hazkar* (*hazi* + *-kor* diosku Mitxelenak), etab.

AE eta AK-aren morfema konbinaketan antzekotasunen bat aipatzekotan erreduplikazioa atera daiteke beharbada: Gamkrelidze eta Ivanov (1995 [1984]: 257-8) K hizkuntzetan erreduplikazio sistema zahar bat berreraikitzen dute, zatikazkoa, lehen hotsaren ahosuntzeaz, erreduplikatutako aurrizkiaren ondotik *n* bat gehituz, eta *i*, *e*, *o* zein *a* bokalarekin: georg. *borbal* 'wheel', georg. *datv-i* 'bear', etab. Badirudi AE-z hitzak ezkerrean zoko zatikako erreduplikazioz haz zitezkeela (cf. Lakarra 1995 eta prestatzen-a) baina, nahiz aurrizkiaren bokalean nahiz kontsonanteetan, bada diferentzia markagarririk eta, bestalde, Harrisek gogoratu (1990: 89-90) erreduplikazioaren izaera ia unibertsalak (cf. Moravcsik 1978a) are ahulago egingo luke bien arteko edozein erkaketa.

77. «As is well-known, Proto-Indo-European had no prefixes» dio Lehmann-ek (1968: 406).

78. Berriz ere austronesioarekiko paralelismoa: «The most common method of fashioning word-bases consists in the indissoluble union of a formative element, which in much the largest number of cases occupies the first place, with the root. Brandstetter and other scholars unjustly called these formatives prefixes» (Gonda 1949/51-52: 330).

7. Morfologia monosilabikoaren froga eta adibideak

7.1. Kontsonante alternantziak aitzin-morfologiaren aztarna

Pulleyblank-ek (1992) txinera zaharraren berreraiketa oinarri sendoagoetan eta kritikaren ohiko estandarretan kokatzeko lau desiderata aurkeztu zituen: 1) eskura daitezkeen hizkuntz teoriarik hoberena erabiltzea; 2) txinera zaharra berreraikitze txinera ertainaren berreraiketa zuzena izatea; 3) berreraiketa-gidari gisa tipologiak duen egitekoa; 4) ediren daitezkeen lekukotasunak oro erabili beharra era batekoei ere enparauen aitzinean lehentasunik eman gabe. Gainerako puntuek duten garrantziaz —horien euskal “ordainez”, hobe— gero egingo dugun ohar zenbaitetara igorriaz, lot gakizkion azkenengo atalean “C. Sino-Tibetan comparisons and morphology” deitutako buruari.⁷⁹

Pulleyblank (1992: 379-80) bat dator Karlgren-ekin honek bere txineraren barne-berreraiketa klasikoa txinera eta tibeteraren arteko konparaketak albo batera utzi behar zirela aldarrikatzean. Bere adostasuna areagotzen da Karlgrenek txinera eta tibeteraren artean ez berba solteak baizik eta familia osoak konparatzea eskatzen duenean:

In general, however, I think Karlgren was right to insist that, rather than compare individual lexical items in Chinese and Tibetan or other related languages, one ought first to establish “word families”, that is, sets of etymologically related words based on a common root, in each of the languages separately (Pulleyblank 1992: 380).⁸⁰

Alabaina, txineraz zenbait eredu aurkitu arren, Karlgren eta bere jarraitzaileek ez zituzten argitu erregularitate horien atzean ziren prozesu morfologikoak. Geroztik Haudricourt-ek eta bestek erakutsi izan dute txinera zaharrean bazela -*s morfema bat txinera ertainean deribazio-tonu baten jatorria zena eta tibetera klasikoko -s atzizki batekin ere konparatu izan dena. Pulleyblankek proposatzen duen ikerketa-lerroa aurrekoek ireki bidexka hori zabaltzera doa:

As I have argued repeatedly, there are many other ways in which comparisons with Tibetan can suggest how processes of affixation may explain word-family relationships in Old Chinese. One of the most important of these is the ablaut between the two rhyme vowels, *ə and *a, which, I believe, corresponds to the alternation between -o and -a in the Tibetan noun suffixes, *mo* ~ *ma*, *bo* ~ *ba*, etc., and to the similar alternation in Tibetan verb conjugation (ibid).

79. Horren aurretik aurki daitezke, orobat atal berean, «A. Transactions and loanwords» eta «B. Pre-E[arly]M[iddle]C[hinese] Forms». Lehendabizikoaz, § 8.koa landa, ikus ohar batzuk nire 1996ko lanean eta prestatzen-b-n.

80. Cf. «Karlgrén (1933) believed that the many Old Chinese word families whose members exhibit similarity in phonological form and express related meanings indicated diverse, now defunct morphological processes. The sheer abundance of such word families in Old Chinese and in other Tibeto-Burman languages decidedly points in the direction of a morphologically complex proto-language which has undergone drastic simplification. In reconstructing the earlier morphological systems, it will be necessary to distinguish...» (van Driem 1997: 470-471).

Afrika mendebaleko (Senegaleko) seereer-shin hizkuntzan ere kontsonante mutazioak dira bai izen-, bai aditz-morfologian.⁸¹ Hara, esaterako, aditzeko adibide zenbait singularra / plurala bereziaz:

a.	<i>a-xon-a</i>	's/he died'	b.	<i>a-ga?-a</i>	's/he saw'
	<i>a-nGon-a</i>	'they died'		<i>a-nga?-a</i>	'they saw'

Izenetan mutazioa klasearen arabera da eta hiru txandakatze izan daitezke:

a.	'hiria'		b.	'adarra'	
	<i>saax</i>	5. klas.sing.		<i>o-jaan</i>	10.klas.sing.
	<i>a-caax</i>	4. klas.pl.		<i>xa-can</i>	11.klas.pl.
	<i>o-njaax</i>	12. klas.txikig.sg.		<i>fo-njan</i>	13.klas.txikig.sg.

Mutazioa aurrizki-ezarketa motatzat du Mc Laughlinek:

In deriving forms from the underlying representations in both voicing and continuancy mutations, we have posited the association of a single feature: [voiced] for the a-grades, [-continuant] for the b-grades, and [+nasal] for the c-grades. We will consider these features to be part of the representation of the class prefix, so that each prefix, in addition to possibly consisting of an overt (C)V sequence, also contains one of these features. Those prefixes without an overt (C)V consist of a sole feature. Prefixes conditioning the a-grade contain the feature [voiced]; those conditioning the b-grade the feature [-continuant]; and those conditioning the c-grade contain the feature [+nasal]. Mutation, then, is regarded as a type of prefixation (1992-94: 290).

Sino-tibeteraren ikertzaileek bigarrengotzat edota segmentu-morfologiatik eratorritzat dutela aitorturik ere, Henderson-ek (1976) morfologia prosodikoaren lekua eta pisua aldarrikatu zuen. Izan ere, segmentu-morfologiaren ustezko lehentasun hori baliteke ohiko eurozentrismoaren ondorio huts izatea eta, nolana ere, hainbat hizkuntzatan hain itzalia eta soildua da non prosodiaren bitartez baino ezin antzeman daitekeen aurreko garaien batean hizkuntza horiek zuten egitura morfologikoa. Hara bere ikerbidea:

I propose to exclude from consideration such overt morphological features as prefixes, or verbal particles which could be regarded as morphological elements, in order to concentrate upon phonological features which are an integral part of tonic syllables, and which appear to show signs of having at one time been the expression of live morphological processes. I shall be concerned therefore with (1) initial consonants, (2) final consonants, (3) tone (Henderson 1976: 2).

Honela, burmeera eta txin hizkuntzetan hasierako hasperendun eta hasperengabeen arteko txandaketak aditz-erlazioak (noiz iragankor / iragangaitz, noiz kausatibo / ez-kausatiboa) adierazten ditu. Hasperendun formetarako s-aurrizki baten galera suposatzen du Hendersonek beste zenbait ikertzaileekin batera:

81. Hurrengo pasarteotako adibide eta analisisirako ikus Mc Laughlin 1992-94.

<i>kwe: te</i>	'to break' (intr.)	<i>hkwe: te</i>	'to break' (trans.)
<i>kya. te</i>	'to drop' (intr.)	<i>hkya. te</i>	'to drop' (trans.)
<i>pwin. te</i>	'to open' (intr.)	<i>hpwin. te</i>	'to open' (trans.) ⁸²

Bestelako erlazioak ere badira hasierako kontsonanteen artean: ahostun eta ahoskabeen artean batetik eta glotalizatu eta glotalizatugabeen artean bestetik. Jakinik herskari ahostun arruntak beheko tonuekin eta gainerakoak (glotalizatuak barne) goikoekin loturik direla karen hizkuntzan, uler daiteke txinera zaharreko hitz familia ugaritan bezala, hemen ere formarekiko sistematikoki lotu baina esanahiz berezirik agertzea hainbat hitz.

Lushai eta iparraldeko eta erdialdeko txin hizkuntza zenbaitetan aditzik gehienek bi edo hiru enbor dituzte tonu aldaketak eta gramatikazko testuinguru diferenteak direlarik beren artean:

Tonal variation is often accompanied by variation in final consonants and sometimes the inflection is expressed by variation in the final consonant (or absence of consonant) alone, without accompanying tone change, as in the following examples from Tiddim Chin:

e.g.		Stem I	Stem II	
	(a)	<i>go:</i>	<i>go: t</i>	'to dry up'
	(b)	<i>pua</i>	<i>puak</i>	'to carry'
	(c)	<i>ha:</i>	<i>ha:t</i>	'to be solid'
	(d)	<i>pha:</i>	<i>pha:k</i>	'to overtake' (Henderson 1976: 6) ⁸³

Löffler jarraituaz *-t / -k* txandaketak iragangaitz / iragankor oposaketen adierazle gisa azalduko lirateke.

7.2. Dinka

Sudanen mintzatzen den Nilo-mendebaleko dinka hizkuntza monosilabikoa da baina morfologia konplexua du.⁸⁴ Honela, hitz monosilabiko asko konplexuak dira, haien morfologia erroaren txandaketa morfofonologikoez adierazten delarik. Izenetan txandaketa horiek numero eta kasu inflexioa eta aditzetan eratorpena, edo subjektu eta topiko inflexioa gauza dezakete. Bokal luzera, tonua, ahostasuna, bokal kalitateak eta azken kontsonantea dira fonologikoki txandaketak islatzen dituztenak (cf. Andersen 1992-94: 2).

Hitz monosilabo gehienek CVC egitura dute, noizean behin C- edo -C falta badute ere. Kontsonante guztiak ager daitezke enbor-aitzinean; enbor-amaian, aldiz, ahostunak ez dira ahoskabeen bokalez hasitako atzizkiren baten aurreko alofonoak baizik. Bokalek, diptongoek eta triptongoek hiru gradu dituzte eta guztiak orotan ager litezke. Tonuak ere hiru dira eta bokal luzera, kontsonanteen ahostasuna eta bokal kalitateaz askeak dira.

82. «The comparative rarity of forms showing the vestigial remains of the old *s*-prefix in Tibeto-Burman languages is perhaps confirmation of Wolfenden's contention that prefixed forms in these languages are in general older than suffixed forms» diosku Hendersonek (1976: 4).

83. Lehendabiziko bi adibideetan tonu laua eta beste bietan goranzkoa agertzen da.

84. «Unlike monosyllabic languages like Chinese and Vietnamese» dioen arren Andersenek (1992-94: 2), ikusi dugu baieztapen hau ez dela guztiz egiazkoa.

Dinkaren aditzak hainbat kategoria ditu (“simple”, “centrifugal”, “centripetal”, “benefactive”, “benefactive-antipassive”, “antipassive”) eta horiek gauzatzeko bidea soilik erro barneko txandaketa dugu, zortzi txandaketa mota ateratzen direlarik luzera / tonu / ahostasun klaseen artean.

Tonuari dagokionez, ereduak ez dira erabat garbi (cf. Andersen 1992-94: 46); halere, esan daiteke tonua ez dela lotzen hiru morfologi-parametroetarik (erro klasea, eratorpen estatusa, inflexio estatusa) bakar batekin ere. Honela, ez da erro klase bakar bat ere enbor-tonu berarekin agertzen denik eratorpen eta inflexio kategorietan zehar eta ezta alderantziz ere. Zenbait aditzetako tonu batzuk testuinguruak baldintzatutzat jo ohi dira; alabaina, testuinguru hori fonologikoa ez eze gramatikala ere bada: topikoa subjektu-izen sintagma denean tonua behekoa da baiezko esaldietan eta goikoa, ostera, ezezkoetan eta ez-deklaratiiboetan. Atzizkietako tonuak enborretako arabera auresan daitezkeenez, atzizki-tonua enbor-tonuaren menpe azaldu beharko da. Baina hemen ere testuingurua ez da soilik fonologikoa:

From Table 9, which shows the root tones and the derivational tones, it is clear that, in general, the derivational tones are dependent on the root class. Table 10 shows the inflectional tones and the contextually determined tones. As can be seen, inflectional categories are not always characterized tonally, while roots and derived derivational categories always are. Only two inflectional categories, NTS and PAS:CT, always provide their own tones. For all other inflectional categories the presence or absence of a tone is dependent on the derivational status and/or the root class of the stem (Andersen 1992-94: 59-60).

Andersenek 4 tonu-motatako (estratu) eredu proposatzen du dinkarentzat: 4) Testuinguruak auresandako tonua; 3) Inflexio-tonua; 2) Eratorpen-tonua; 1) Erroko tonua. Laburtuaz, ahostasunean, bokal luzeran eta tonuan aurkitutako txandaketak morfologi-mailaketaren alde mintzo dira, erro-, eratorpen- eta inflexio-informazioarentzako estratu bereziekin. Morfologi-mailakatze eredu erabiliaz hara nola aztertzen duen Andersenek bere 120. adibidea:

(120)	<i>węec</i>				
	kick:CP:2S				
	‘Kick it hither!’				
(121)			<i>voice</i>	<i>length</i>	<i>tone</i>
	inflectional layer	(2S)	—	—	H
	derivational layer	r(CP)	[+breathy]	+1	L
	root layer	(‘kick’)	—	1	F

The phonetic realization of (121) will be a half-long vowel (whose two morae are provided by the root and the derivational morpheme, respectively) with a breathy voice quality (provided by the derivational morpheme) and a H tone (which is provided by the inflectional morpheme, and which suppresses the tone provided by the derivational morpheme, that tone itself suppressing the tone provided by the root) (Andersen 1992-94: 61).

7.3. Tonu morfologiaz Asiako ekialdean eta Afrikan

Sino-tibetar hizkuntzetan tonu aldaketak funtzio morfologikoak bete litzakeela dirudi, tonuaren bitartezko eratorpena edota izen eta izenordainetako forma zuzena (*direct form*) eta zeharkakoaren (*oblique form*) artekoa nahiz ahaidetasun erlazioetako hitzetakoa, esaterako:

The relationship between the derived *chiuh-sheng* forms and the corresponding basic forms was evidently one of tonal contrast, sometimes associated with an alternation between voiced and voiceless initials, and possibly in some instances with the loss of a former suffix. Downer argues that morphological derivation by tonal variation may date back to Archaic Chinese and is thus a very old feature in the Sino-Tibetan language family. Karlgren's reconstruction suggest an alternation not of tones but of voiced and voiceless final stops. Either way, there is evidence for the very ancient origins of such forms in Chin and allied languages (Henderson 1976: 10-11).

Vietnamera bezalako hizkuntza monosilabiko batean ere segmentu-morfologia eta intonazio-morfologia bereizten da:

Vietnamese morphemes are of two distinct types —the very small class of intonational morphemes on the one hand (...), and the vast body of segmental morphemes on the other. Segmental morphemes have allomorphs composed of consonants, vowels and tones (or at least one of these types of phonemes). Intonational morphemes are phonologically inseparable from segmental morphemes, but in morphemic terms they are considered distinct (Thompson 1963: 45).⁸⁵

Kameruneko bamileke hizkuntzan jatorrizko lexikoko morfemak monosilabikoak dira salbuespen gutxirekin. Voorhoeve-k (1965: 322) silaba eta morfema egitura bat datozela aldarrikatzen du eta (N)C(w)V(C) laburtzen silabarena⁸⁶ eta (N)C(w)V(C) + T[onua]1 morfemarena. Segmentuz landako egitura horren azterturik ez zuelarik Voorhoevek, ez digu Andersenek dinkari buruz emandako tonu-morfologiaren deskribapenarekin erka daitekeenik aurkeztu; halere, gaztigatzen digu zenbait morfemak bina tonu dituela: «The morpheme /cUm/ 'prune' must contain at least one low tone, and one high one, separate from each other» (1965: 329). Anlisi sakonago batek silaba-barneko tonu-morfemak agertuko ote?

Nigeriako igbo hizkuntzan aditz-enborra monosilabikoa da (cf. Zsiga 1992: 103). Gero, bi enbor konbinatuaz edota zenbait hizki "hedatzailez" informazio semantikoa erants dakioko. Inflexio guztia, ordea, ez da nahita nahiez segmentu-bidezkoa:

Two or more stems may form a compound verb, and the verb may be modified by one or more "extensional" suffixes which add semantic information such as manner or direction. Verbal prefixes indicate infinitive, participial or inflected form, and inflectional suffixes indicate time reference or temporal aspect. Inflectional affixes do not alter the semantic structure of the verb (...). *In some verb forms the (segmental) inflectional suffix is optional,*

85. Gogoan izan bedi zenbait intonazio-morfema silaba baino handiagoak direla (zenbait segmentu-morfema besarkatzen dutelarik, beraz) eta beste batzuk, aldiz, silaba baino txikiagoak; cf. Thompson (1963: 43).

86. Izenordain eta partikula zenbaitetan falta da C-; CC taldeak heterosilabikoak dira.

as tense and aspect are often indicated by tonal changes, and there is no inflectional suffix in the infinitive or participial forms (Zsiga 1992: 103; etzana neurea, [J.A.L.]).⁸⁷

8. Oharrak erroaz eta berreraiketaz

8.1. Erlazio genetikoaren frogak eta erroaren forma kanonikoak

Campbellek (1973) hizkuntzen urrutiko erlazio genetikoaren ikerketa-bideak aztertzen ditu, ustezko Boliviako uru-txipaya eta hizkuntza mayen artean proposatutako urrutiko erlazioa miatuz.

Gainerako erlazio linguistiko guztiak bezala, urrutikoak ere hizkuntzen arteko antzekotasunen menpe dira;⁸⁸ arazoa antzekotasunen azalpen genetikoak aldezen duen eta halabeharrendaren, hedakundearen edo unibertsalen bitartezko azalpenak saihesten dituzten kasuak aurkeztea litzateke. Usuko jokabidea hitz-zerrendak prestatzea eta hots- eta esanahi-antzekotasunak dituzten hitzak berdintzea izan da, aski den adinako antzekotasun kopurua zenean erlazio genetikoak aldarrikatuak. Aipatu halabeharrendaren, hedakundearen eta unibertsalen eragina ezabatzeke ahalegin gutxi egin delarik Campbellen ustez (1973: 66), metodo honetan oinarrituriko erlazioak ez dira asebetekoak. Beste batzuek kuantifikazioaren bitartez subjektibotasuna gutxitu nahi izan dute; Bender-ek (1969), esateko, 21 hizkuntza aztertuz honelako ondorioak atera uste zituen:

100 hitzetako zerrenda batean bi egokitzapen CVC-k % 94ko segurtasuna eta hiruk % 99koa ematen digute, bokalak eta kontsonante paretarik bat berbera badira eta beste pareak soilik ezaugarri bateko ezberdintasuna badu edota bokalak albo batera utziaz kontsonanteak berberak badira... (Campbell 1993: 66-67; gainerako baldintzetarako ikus Campbell hor bertan)⁸⁹

87. Jungraitmayr-ek Afrika-mendebaleko mande hizkuntzak aztertzen dituelarik kontinente horretako hizkuntza askorekin tonu-morfologia ez ezagutzearan eta horien monosilabismoa jatorrizkotzat eta "primitibismo-ezaugarritzat" jotzean egindako akatsa salatu du: «It is a strange and striking fact that the role of semantic-etymological tones had long been recognized for East-Asian languages before it was realized that most African languages are also simply not analyzable without the recognition of tone. (...) At any rate, they also display secondary primitivity, i.e. secondary monosyllabicity, a minimum of segmental grammatical features but a maximum of suprasegmental, i.e. tonal morphophonology» (Jungraitmayr 1990: 30-31). Egile beraren ustez Afrika mendebaleko hizkuntza isolatzaileak garai eransleetarik letozke, europarzentzismoak latin polisilabikotik datorren frantses monosilabikoaren paralelismoa ikusten ez duelarik; honek eta Jucquoisek erroaren azterketaren inguruan salatu duten "metafisika" eta ideologiaz beste uneren batean aritu beharko.

88. Eta hortik inoiz ezin erabaki izana ere, cf. Campbell 1995. Bide batez, «the syllable structure and morpheme structure largely coincide» diosku (161) ketxuera eta aimararenei buruz. Halere, «The combined weight of the grammatical and lexical evidence, while not sufficient to 'demonstrate' a genetic relationship between Quechuan and Aymaran languages, is adequate enough to make the hypothesis tempting» (195); cf., aldiz, A. D. Rodrigues & W. Dietrich "On the linguistic relationship between Mawé and Tupí-Guaraní", *Diachronica* 14, 1997, 265-304: «The conclusion points to the probability of Mawé having split from a Mawé/ Aweti/ Tupí-Guaraní branch of the Tupí stock before the dispersion of the Tupí-Guaraní family as such».

89. Bouda 1950-ean (eta § 2.3.an ikusi dugu egileak bere "perlak" bildu zituela) ez dira Benderen baldintza minimoak ere betetzen; ikus Lakarra 1997 zenbait adibidetakarako.

Campbellek suomieraren, kaktxikelaren eta ketxueraren arteko “antzekotasunak” erabiliaz Benderren ondorioak ez direla sinisteko eta areago dena lexiko-miaketan oinarritutako metodoek erlazio genetiko suposatu bai baina frogatu ezin dituztela erakusten du: «I conclude, therefore, that no method of lexical scanning or counting in and of itself is valid for finding distant genetic relationship» (Campbell 1973: 68).

Sapirrek egiteko horietarako proposatu zituen “ezkutuko ezaugarriak” ere ez dira beti halabeharretik, hedakundetik edo unibertsaletatik aske (Campbell 1973: 68-70), eta Campbellek horiek —lehen aipatu baldintzetan— eta egokitzapen fonetikoak, biak, ikusten ditu beharrezko urrutiko erlazio genetikoak frogatzeko. Greenberg-en *mass-comparison* metodoa kritikatuaz⁹⁰ Campbellek ez du uste onargarria izan daitekeenik gutxi-gora-beherako egokitzapenak eta berauek CV edo VC segida laburretan onartzea. *Matching* eta *sound correspondence* bereziaz,⁹¹ edozein erlazio-proposamenek egiantzik izan dezan Campbellek oinarritzko hiztegiko hainbat *matching* eskatzen ditu (ibid.). Bestalde, gogoratzen du CV formako *matching*-ak ez direla CVC-enak bezain askeak halabeharretik, onartezin begitانتzen zaiolarik horietan eta luzeagoetan kontsonante soila bat etortzea.⁹² Azkenik, egokitzapen semantikoa nahita nahiezkotzat du eta onomatopeiak bazterkizun dira hots-kidetasunak ez historiari baizik eta erreferenteari zor baitakizkioke (1973: 72).

Laburtu ditugun gogoetok Olson-ek proposatutako uru-txipaya eta hizkuntza mayen arteko 121 kognadotako zerrendari ezartzean, Campbellek (1973: 85) hoskidetasunak 35 kasutan gutxienez irregularrak direla aurkitzen du, bi hizkuntz familien lotura genetikoaren aldeko proposamena horrela larri ahulduaz. Gaineratik, 40 etimologia eman ziren aitzin-mayaren beste horrenbeste berreraiketa okerretarako eta 6 kognadotan Olsonen mayazko formak txipayako binarekin lotu zituen. Bi ustezko korrespondentzia ezabatu behar dira, mayak jatorriz zapoteketik mailegatuak direlako eta beste hiru susmagarriak dira txipayan (beharbada ketxumaratik hartuak).⁹³ Olsonen adibideetarik 30etik gora ez dira CVC izatera iristen eta sail horretatik hoskidetasun erregularrak ez dituztenak ere kendu behar dira. Guztira 121 kognadoetarik portzentaia handia da halabeharri ateak itxi ez dizkiona, are handiagoa bederlatzi onomatopeia, dozenerdi zatiketa morfologiko oker —gogora,

90. Duela 25 urte, hain zuzen ere, Greenbergek berak 1987 baino lehen ez zuela kritikarik izan esan arren. Lakarra prestatzen-b-n arituko naiz astiroago, Greenbergen (eta ondokoan) metodologiaz eta euskarari buruz izandako eraginaz; bidenabar, Campbell ez zen izan bakarra eta ez lehena ere hura kritikatzeko: cf. Fodor 1966.

91. «A matching is a tentative sound correspondence which becomes a real correspondence only when one is able to reconstruct a valid protoform. Correspondences are assumed to descend from a common source genetically, whereas matchings may in fact be due to a number of other things as well, borrowing, onomatopeia, etc., not excluded» diosku (1973: 71).

92. Hizkuntza IE-etan CVC baino txikiagoak onartzea zilegi da hor aurretiaz dakigularik hizkuntzok jatorri berekoak direla; alabaina, ez da gauza bera gertatzen beren ahaidetasuna erabakitzeaz aztertzen ditugunekin eta hauetan forma laburrekin ez dakigu halabeharra ala erlazio historikoa den. IE hizkuntzetan euretan ere (ingelesa eta hindiaren artean, zehazki), Hock eta Joseph-ek (1996) ustezko kognadoen % 50 baino gehiago halabeharri zor zaiola defendatzen dute; ezin pentsa, bada, behin “garaituz geroz” metodoaren baldintzak eta hertsipenak lasaitu eta beratu behar direnik.

93. Cf. § 6.5. eta Lakarra 1998a-n Mitxelenaren eta Vogten iruzkinak Boudaren saioez.

halaber, aurreko oharrean esana— eta berrogeitsuren erlazio semantiko ahulak kontuan izanik.

Bildutako informazio negatiboaren arabera Campbellek (1973: 86) aurkeztutako kasu gehienak proposamen genetikoaren sostengutzakoetarik kanpo utziko ditu. Alde izan daitekeen guztia bilduta ere dozena bat kasu edo baino ez da, eta hauetan ere arazo fonetikoek edo semantikoek beraiekin dakarte Campbellen ondorioa:

I do not deny that there may be a genetic relationship between these two families, but Olson has not shown that his similarities are indeed to be attributed to some special relationship and not possibly to chance or other factors (1973: 87).

8.2. Erroa eta maileguak

Erroek eta gainerako morfemek berezko dutelarik egitura kanonikoa, eta hizkuntza guti direlarik beren bilakabidearen garairen batean besteren bat(zu)ekin harremanetan izan eta haietarik lexikoaren eta gramatikaren elementu zenbait bertakotu edota haietariko batzuen arabera eraldatu dituztenak, morfemen egiturak lekukotasunik eman lezake hizkuntzon arteko harremanaren historiaz, dela morfemon mailegu-izaera agertuaz, dela hauen kronologia-ezarketa lagunduaz, dela zein hizkuntzatatik eta bidetatik iritsi diren hartzailera zehaztuaz.

Mitxelenak inoiz aitortu zuenez (cf. 1964: 33), hizkuntzalaritari gertatzen ahal zaio, besterik gabe eta arrazoi formal hutsengatik *abagadaune*, *apukadu*, *atizatu*, *endorea* eta abar luze batekin legez, hitzok mailegutzat jotzea, are inork beren jatorria aurkitu edo bilatu ere ez duelarik. Hitzen luzera ere dagoeneko Sapirrek aldarrikatu zuen irizpidea dugu: delako hizkuntza batean halako forma kanoniko bat dugularik, hitz batek silaba kopuru jakin batetik gora badu bi analisi-aukera ditugu; hots, edota zati txikiagoetan eman daitekeen eratorri edo konposatu batekin ari gara, edota mailegu batekin (cf. Mitxelena 1963: 48).⁹⁴ Hemendik jarraitzen da, aitzineuskara zaharrerako erroaren egitura kanonikotzat CVC hartuaz, hurrenez hurren konposatu eta eratorri bana ditugun *horbel* edo *zuri*-rekin bezala egiterik ez izanik **ardano*-rekin, mailegaketaren aukera ez genukela ahaztu behar honetan.

Huld-ek (1990) Polomé, Salmons eta besterekin Europa-mendebaleko substratua bilatzerakoan lau irizpide aurkeztu ditu lanabes gisa: 1) erdaratiko hotsak, 2) hots konbinaketa arrotzak, 3) ezaugarri morfologiko bereziak, 4) banaketa muga-tuak.⁹⁵ Lau irizpideok erabiliaz eta IE erro kanonikoa CVC monosilabikoa dela kontuan izanik, Meilletek “mendebaleko hizkuntzak” deitu zituenetarik bi dozena

94. Beti ere aska ezin genezakeen jatorrizko lexikoko eraketa arkaikoak ere badirela gogoan izanik, Mitxelenak eta gainerako iturriek duten bezala.

95. Zein diren ezagutu ondoren beren kronologia zehazteko Mitxelenak (1974: 197-8) ondoko irizpideak aurkezten ditu: «Si nos atenemos a los criterios formales, los más fáciles de aplicar objetivamente, han de tenerse presentes dos aspectos, contradictorios a primera vista: en términos generales, los préstamos serán tanto más antiguos cuanto mejor conserven su aspecto original y, a la vez, cuanto más lo hayan modificado. Serán antiguos, en otras palabras, en la medida en que no muestren señales de los cambios fonéticos que se han realizado en los romances vecinos, pero también en la medida en que han participado de otros, propios del vasco mismo, ya que esta participación es la mejor prueba de que se habían incorporado al léxico de la lengua antes de su cumplimiento. Unos y otros, sin embargo,

hitz bil daitezke: zazpi italikoan eta zeltikoan Huldek “Alpeetako” deritzon iturri-hizkuntza galdutik: hitz tipikoak disilabikoak eta erdiko geminatuak dituztelarik; gainerakoak Balkan eta Egeo aldeko dira silaba irekiekin, soilik diptongoak eta sudurkari gehi herskari taldeekin (1990: 394).⁹⁶

Baitchurak (1987: 168-169) arrazoi bide du konparatzaileek oker jokutzen dutela hizkuntzen lexikoaren erdiarekin jokatzean gainerakoa mailegatua dela aitza-kiatuz.⁹⁷ Izan ere, jatorrizko lexikoaren ereduena gora-beherak, indarra eta iraupena maileguen bertakotzetik atera daiteke usu, Mitxelenak euskal fonologia zaharrarekin egin zuen legez: hots, baldin eta latinetiko lexikoan *-nn-* > *-n-*, *-n-* > *-ø-*, *-ll-* > *-l-*, *-l-* > *-r-* eta jatorrizko lexikoan *-n-*, *-ø-*, *-l-*, *-r-* gorde badira, orduan aitzineuskararen *-N-* / *-n-*, *-L-* / *-l-* bereizi behar ziren, latinez *-nn-* / *-n-*, *-ll-* / *-l-* egiten ziren bezalatsu. Potetek (1995: 345) «When loanwords are excluded, one realizes that many Tagalog words are based on monosyllabic root (consonant-vowel-consonant)» edota Jobek (1995: 242) lezgi hizkuntzan soilik maileguetan ematen dela ahostun — V — ahostun segida gogoratzen dutenean, guztiok teoriar aspalditik dakiguna baino ez digute gogoratzen, hots, maileguei bertakotzea kostatu egin dakiekeela eta inoiz beren azaleko egiturak⁹⁸ sala ditzakeela atzeritartzat. Hizkuntza austronesioetan bestela ere enbor bisilabikoetarako joera garbi ez balitz, mailegatuek lekukotasun interesgarriak eman ahalko lukete:

About 96 per cent of the “word-bases” which are supposed to have existed already in Original IN[donesian] are disyllabic. The tendency to dissect borrowed words consisting of four or more syllables in two disyllabic words proves that these languages try to impose this model on any base which may be subject to alteration in this way: Skt. *svayamvara* ‘self-choice of a husband by a girl’ > Mal. *ailam bara*; Skt. *paramesvari* title of a queen > Mal. *permai* (which means ‘pretty’) *suri* (‘queen’); Dutch *karnemelk* ‘buttermilk’ > Jav. *karan mélik*; the Dutch family-name *Bonebakker* > Jav. *Bunu baker*. Many monosyllabic words have been borrowed from other languages in disyllabic form: Dutch *dienst* ‘service’ > Jav. *dinés*; Dutch *pacht* ‘lease’ > Mal. *pajak*; Dutch *klacht* ‘complaint’ > Jav. *kélah* (Gonda 1949/51-52: 323).

pueden coincidir alguna vez y también sucede que la configuración fónica del préstamo, poco característica, no alcance a dar luz acerca de la fecha de su introducción». Horieta esanahi aldaeretara (cf. § 8.4.), geografikoetara (ikus hurrengo oharra), eta bestetara jo behar.

96. Banaketa mugatuari dagokionez gogora Gorrotxategi 1987-n *sarika*-rekin erabiltzen den argudioa, ez mailegutatzat jotzeko baizik eta estratu zeltikotik ala latindarretik hartua den erabakitzeke.

97. Ez ordea, berak nahiko lukeen bezala hitz guztiak direlako mailegu eta, beraz, maila bereko; azken finean Schuchardtekin eztabaidan Meilletek duela 80 urte gogoratu bezala, hizkuntza guztietan “jatorrizko lexikoa” kontzeptu erlatiboa izan arren, hizkuntzaren bilakabide ezagunaren barnean absolutua bilakatzen da eta garai diferenteetan sartutako maileguek ez bezalako informazioa eman liezaiguke.

98. Ohar bedi ez garelako soilik egitura segmentalaz ari: «By the structural study of a language it is possible to isolate a number of more or less complete phonological systems of which one may be regarded as primary. A system whose prosodic structure conforms to the primary pattern, may be felt by the native speaker to be fully naturalized, even through phonematic features may reveal its non-primary character. Words felt by the speaker to be of a special kind are marked by special prosodic patterns. “Special words” are of the following types: a) exclamation... b) onomatopéyas... c) loanwords» (Henderson 1951: 156, Asia Hego-ekialdeko hizkuntzez). E. E. Walls-ek (“The word and the phonological hierarchy of Mezquital Otomi”, *Language* 44 (1968), 76-90) «A balance of the following components (in ranked order) is crucial to word structure: stress, tone, length, nasalization, glottalization and syllable release (...)» dio hasieratik bertatik. Euskaraz ere *básó* eta *basó*-ren artean den diferentzia segmentuz landakoak lehendabizikoaren mailegu izaera salatzen du argiro.

Hizkuntza zenbaitetan maileguek izan duten bilakaeraren azterketa konparatuak interes berezia luke hizkuntza hartzaileen egitura morfonologikoa ikertzeko. Inoiz, Schütz-ek (1976) hawaierak ingelesetik hartutako maileguekin ikertu duenez, jatorri bereko maileguek oso emaitza ezberdinak baitutuzte gertuko hartzaileetan.⁹⁹ Hawaieraren adibidera itzuliaz, han bertakotutako maileguak gogoangarri dira, ez soilik hizkuntza horren —hobe herri horren— historiaren barnean suposatzen dituzten fenomeno bereziengatik, baizik eta orobat familiako kide hurbil dituen Tonga eta Fiji irletako austronesioak jatorri beretik hartu dituenetik berezi samarrak direlako: beren fonema inbentarioak eta distribuzioak baduke horretan zerikusirik.¹⁰⁰

Bestalde, polinesioak omen direlarik silaba irekiaren aldeko joera nabarmenena duten hizkuntzak (Kruppa 1971: 668),¹⁰¹ horietan ere kausi liteke hizkuntzaren garai diferenteetan gerta daitekeen eredu aldaketaren arrastorik; izan ere, mendebalekoetan, joera hori amaitu eta silaba itxi zenbait agertu dira dagoeneko, dela hizkera arinaren eta bestelako barneko fenomenoengatik, dela inguruko hizkuntza ez-polinesioen eraginagatik (ibid).

Galandek (1984: 305hh) tuaregez erro-eskemak maileguak eta aldaketa morfologikoa eta fonetikoa oztopatzen duela diosku; izan ere

Si le système des racines et des schèmes fonctionnait sans défaillance pour la totalité du vocabulaire, il entraînerait (...) une imperméabilité marquée aux emprunts, qui ne pourraient être insérés dans ce cadre rigide qu'aux prix d'une complète adaptation: L. Massignon constatait que «c'est en sémitique que la résistance des structures morphologiques aux contaminations étrangères du lexique et de la syntaxe est maxime».

Erro-eskema horiek bestelako aldaketei ere —fonetikoetarik hasita— zailtasun larriak ezartzen dizkiete eta ez da harritzekoa Galandek dioskunez (1984: 312) tuaregez maileguak bertakotzen direnean lehendik diren eskemak hartzea, berririk gehienetan sortu gabe.^{101b} Alabaina, hizkuntza semitikoren batean, amha-

99. Hori da sanskritotik hartutako maileguekin malayalamean eta tamilean dakusaguna (cf. Mohanan 1989: 615), edota latinetik ondarearekin euskaraz eta erromantzez (cf. Mitxelena 1974).

100. Hemen ere maileguen bertakotzeak hizkuntzaren joera sakonen berri eman liezaiguke: ingelesezko CVC morfemak hartzen dituztenean, hizkuntza hauetan CVCV bilakatu ohi dira, euskara zaharreko *muta cum liquida* taldeak ezabatzeo erregelaren antzeko (baina kontrako zuzenbideko) erregela batez: *bell* > *pere*, *fig* > *piki*, *bull* > *puru*, etab. (Kruppa 1971: 678). Bokal kopia hawaieraz galdu eta bestelako bokalak eransten direla badirudi ere, Schützek (1976: 88) neurri batean hori misionisten saio hutsala izan zela diosku.

101. Martinetek artikulua ezagun batean zioenaren aurka, D. Copceag-ek ("Une tendance "romane" à la syllabe ouverte", *C.L.T.A.* 7, 57-62, Bucarest 1957) ukatu egiten du horrelakorik Erromania osorako bederen dio «La tendance en question peut être donc nommée, à la rigueur, "tendance de type japonais"» dio ondorio gisa.

101b. Euskaraz, baldin eta § 9.9.ean eta beste zenbait tokitan defendatzen dudan erreduplikazioa eta *d* > *ø* / *l* gertatu izan bada garairen batean, orduan zail litzateke *adar* mailegutzat onartzea: lehen ere bazuen arazorik bere IE izaera eta distribuzioa zuzitzeko (cf. Mitxelena 1964, Gorrotxategi 1987); orain **dar* / (*d*)*a-dar* / *in-dar*, *gi-dar*, *larr-u* (cf. *barr-u* § 8.4.ean) bezalako paradigma batekin (cf. **dats* / (*d*)*a-dats* / *lats*) zailtasun are larriagoak, gaintuztezinak, bide lirateke.

Ez da zer esanik, bigarren gradu berreraiketak bigarren eta n-garren gradu hipotesiak eskatzen dituela eta itsuak ere badakusala kateako lehenaren eta azkenaren segurtasunaren arteko aldea. Kontua segurtasun hori areagotzea bide da, balio orokorreko (ez *ad hoc*) hatsarrien bitartez.

rikoaz esateko, morfologikoki semitikoa jarraitu arren bai gainerako hizkuntza semitikoetatik eta baita kanpotik hainbat (cf. Appleyard 1979: 71) mailegatzean, erro-sistemaren gotortze zein aldaketaren oinarrian diren fenomeno analogikoak ugaldtu egin daitezke, lehengo erregularitateak berrantolatuz.

Nolanahi ere, anomalia-ehiztari den erro-berreraikitzaileak, maileguetan baduke zer ikerturik, bai zeri ohartu jatorrizkotzat itsu-itsuan ez hartzeko, bai azterketaren bitartez hizkuntza hartzailearen egoera zaharragoetarantz hurbildu eta historikoki nola aldatuaz joan diren bilatzeko.

8.3. Erroa, tipologia eta berreraiketa

Bernabék (1988: 357) IE-ren sistema fonologikoaren adibide argiaz erakusten zigunez, berreraiketak aldatuaz joan (ohi) dira hizkuntz teoria eta metodologia berriak garatu eta hizkuntzalaritza sinkronikotik hedatu ahala. Adibide ezin klasikoago honetan mende Erdiko epean (Brugmannengandik Lehmannengaino) 25 bokal, 20 herskari eta hainbat sudurkari, likido, ozen eta espirantetatik 9 bokal, 12 herskari eta askozaz enparauko gutxiagotako teori(et)ara igaro gara.

Metodo berriak, halere, atzerapenarekin iritsi omen dira, halako urruntasun bat izan baita hizkuntzalari teoriko, ohiz hizkuntza modernoei lotuen eta hizkuntzalari historikoen artean. Alabaina, heldu baziren heldu ziren! Jakobsonek 1958an aldarrikapen famatu hura egin zuenetik —berreraiketaren emaitzen eta emaitza horiekiko tipologiazko gogoeten artean hausturaren bat izaki, berreraiketa aldatu beharrekoa— eztabaida luzea izan da egiantz tipologikoaren izenean berreraiketari tipo ezagunago eta ohikoagoa gainjarri nahi ziotenen eta konparaketa edo berreraiketa hutsak emandako ezaugarriak zuzen-zuzenean eta bestelakorik gabe aitzinhizkuntzan isplatu nahi zituztenen artean.

Gamkrelidzek (1967: 708) —Jakobsonen omenaldian, bidenabar— «Language typology is, then, a necessary prerequisite for all the reconstructive work, for diachronic linguistics in general» bota bazuen,¹⁰² Meid-ek (*apud* Bernabé 1988: 367) oso bestelako ikuspegia defendatzen du:

Los elementos que proporciona la consideración genética de la lingüística, es decir, la reconstrucción genética, tienen que servir a la tipología como datos primarios y no pueden ser falsificados por ella. Que, por ejemplo, una reconstrucción del indoeuropeo (como el sistema de oclusivas) se mida por el rasero de otra familia y en consecuencia se considere falsa (Gamkrelidze) es metodológicamente un abuso. El error de subordinar la reconstrucción a criterios externos lleva en sus últimas consecuencias a absurdos lógicos.

102. Eta are «Linguistic typology should be assigned a special place in diachronic linguistics, in reconstructing the common linguistic patterns of historically attested related language systems and in establishing the transformations of the given structures into historical systems. Such a reconstruction of the common language pattern should be effected in full conformity with the general linguistic regularities established in typological linguistics and the theory of language universals. Typological verification of a language system under reconstruction enhances the probability of the postulated phonological and morphological structures which reflect, in the first approximation, the system of the common language (...) (*apud* Bernabé 1988: *ibid.*).

Berreraiketa eta tipologia bi maila diferentetako operazioak direla defendatzen duen Fox (1995) baten aurka, Schlerath berreraiketa tipologiarekiko askearen aldekoa da: honentzat, eta kiderik bilatu ahalko litzaiokoe erraxki, lege fonetikoak dira berreraiketaren gailur, horiek gabe etimologiarik eta, beraz, berreraiketarik ere ez delarik (1987: 43).¹⁰³

Meiden arranguretarik abiatuaz Bernabék (1988: 368) Gamkrelidze eta kideen lanek alorrari ekarri dizkioten gaitzen artean aitzinhizkuntzei nola edo hala egokitzen omen zaizkien proposamen samaldak aipatu ditu. Okerragoak bide dira berreraiketaren datuekiko hurruntasun eta are errespetu gutxia.¹⁰⁴

Gure artean tipologia berreraiketari gainjarri dionik izan bada Vennemannek europera zaharrarekin erkatzeko “egokitu” zuen aitzineuskara litzateke: *a* bokalaren nagusigo erabatekoa, hasperena edo eza aukera librean, laringal erorketak, VC egitura atzizkietan, SOV hitzordena betidanikoa, etab., hizkuntza eransleen tipologiak horrela eskatzen omen duelako (cf. Lakarra 1998b). Erroaren inguruko anitz fenomeno aztertzen direlarik bertan, neke du inork aitzineuskararen erroaren tipo onargarririk —hots, benetako datuei loturik— kausitzea, edo gardenago, alderdi gehiegi dira ez iluntasunean gelditzen, baizik eta berreraiketak indar handiz edo txikiz argitzen zituenen kontra ere doazenak.¹⁰⁵ Bestalde, euskararen azken mendeotako tipologia eranslea Jainkoak paradisuari hizkuntza hau sortu zuenean betirako itsatsi balitzaio bezala ari da Vennemann, eta ikuspegi hau errotik, erroaren azterketatik bertatik, alegia, aldatu beharra izan genezake.¹⁰⁶ Azkenik, hainbat teoria tipologizaletan legez, ez da bertan etimologia berririk —euskararen etimologia

On the other hand, the reconstructed system of the common language should be characterized by the property of typological deductibility, i.e., it should have transformation characteristics allowing a deduction of the systems of historical languages in full conformity with the evidence of diachronic typology —with patterns of linguistic transformations established on the basis of the historical data of the attested structures. Thus, diachronic verification of a postulated language system constitutes —along with its verification on the basis of the data of synchronic typology— one of the main aspects in assessing the probability criteria of the postulated common language system. Language typology thus proves to be an indispensable premise of any language reconstruction— of diachronic linguistics in general. This determines the significance and the place of linguistic typology in diachronic, comparative-historical linguistics» (Gamkrelidze 1987: 50-51).

103. Berreraiketa *ala* sailkapena aurkeztu dute *mass comparison* delakoaren zaleek; cf. Campbell 1987 eta beste hainbat; Lakarra prestatzen-b-n aritu gogo dut honetaz astiroago.

104. Bernabék biltzen dituenetz landa, ikustekoak dira Jobenak. Honentzat teoria glotalikoa ez omen teoria, baizik eta hipotesi edo eredu asko jota ere (1995: 238) eta Salmonsek garrantzia handia ematen omen dio Jakobsonen oinarrigabeko baieztapen zenbaiti (239). Baina, batez ere, Gamkrelidzek ez omen dio egia CVC egituretan bi glotalen aurkako murriztapen orokorra dela esatean, eta hori ez bakarrik lehenago Wedekind-ek Etiopiako hizkuntzetarako markatua zuelako (241-242), baizik eta Gamkrelidzek hitz egiten eta aztertzen duen kaukasiar hizkuntza zenbaitetan ere betetzen ez delako.

105. Euskarazko artikulua, *-a* zahar eta bakar egiten duelarik, nabarmenenetarik genuke. Puntu honetan Traski kasu handirik egiten ez badio ere Vennemannek, arrazoi osoa du hark aldameneko hizkuntzetan bezala euskaraz ere artikulua berriegia dela, ez europera zaharrerako, baizik eta are hasierako Mitxelenaren aitzineuskararako ere proposatzeko: gogora akitanieraren egoera eta Erdi Aroko lehen lekukotasunetarik akabukoetara den ugalketa; cf. Lakarra 1998b.

106. Eredutipologikoen betierekotasuna inorengan baino harrigarriago gertatzen da “*deriva*”-z hainbat idatzi duen egile batengan; bidenabar Trasken (1997: 127) markatzen duen bezala, txinera modernoa hizkuntza eransleen zenbait ezaugarri hartzen ari da.

berri egokirik esan nahi da— eta ez da zer esanik, fruitu horietarik direla ezagutzen (teoria) berreraikitzaileak.¹⁰⁷

8.4. Erroaz eta etimologiaz

Etimologia hitzak adiera (“benetako esanahia”, esaterako) eta helburu ugari eta aski diferenteak izan ditu historikoki; nolana ere, Watkinsek (1990: 167) dioenez etimologia linguistika historikoaren eta hizkuntz aldaketaren ikerketaren oinarri dugu oraindik, izatez hizkuntzalaritza baino askozaz zaharrago den arren, hiztunek beren hizkuntz-ezagutzazko metahizkuntza ere den neurrian.

Etimologia asmakeria hutsa izatetik aspaldi aldatu bazen ere, oraindik orain irizpideak finkatu nahian dira ikerbide horretako langileak: garai batean (eta gero ere ezin ahaztu ezinbesteko baita) bilakabide fonetikoak izan zen ekuazio etimologikoen oinarria, bilakabide semantiko ezezagunago eta sailkatuezinagoak baino areago, nolana ere. Geroztik geografia linguistikoak ere laguntzarik eman izan du formen sorrera edo hedabidea zehazten, batez ere lekukotasun urri eta berankorrek dituzten hizkuntzetan.

Malkiel-ek (cf. 1954, eta beste hainbat lan) inork baino gehiago landu duen hitz-familien azterketaren bidez ere aurrerapausu garrantzitsua eman izan da berreraiketan, etimologia berriak eskuratzeari landa, morfologiaren eta sintaxiaren garai zaharragoak argitzera edota lehendik printza solte gisa baino ezagutzen ez genituenak sistema zaharren isla legez ulertzera eraman baikaituzte bide horietatik abiatutako saioek. Horretaz landa, etimologia berriek fonetika eta gramatika historikoaren hainbat alderdi ilun edo ezezagun askatu digute.

Devoto batek beste askoren iritzia islatzen bazuen duela zenbait hamarkada etimologia indieuroparra hildakotzat emanaz (cf. Szemerényi 1962b: 428), zer esan *Fonética Histórica Vasca* ondorengo euskal etimologiaz. Badirudi mugari honetan aurkeztutako eredu agortua dela edota euskalariak ez garela gai haren bitartez emaitza berriak lortzeko eta, horren kontrako alderdia, lortutako etimologia berriek ez dutela eredu berri bat aurkeztera behartzeko adina indar.

IE hizkuntzetan begibistako etimologiak 1850erako aurkituak ziren (Watkins 1990: 173) eta handik hona zailagoak eta ezkutuagoak antzematea izan dute helburu Szemerényi legez saio berriak egin eta inoiz (Szemerényi 1962b) irizpideak zehazten ahalegindu direnek. Edozein hizkuntza IE-tako hitz baten etimologiak lehendabizikoz hizkuntza beraren elementu ezagunen bitartez hitz horren egitura azaldu nahi luke, gero —guztiak hizkuntz egoera amankomun iragan baten (IE-

107. Trasken 1985eko lanari buruz ere bazen alde honetatik zeresanik; 1997koan hango baieztapen tipologiko ausartenak desagertuak dira.

Mithun-en lan interesgarrietarik baten ondorioa honakoa dugu: «Typological resemblances alone are not reliable indicators of deep genetic relationship. Typological investigations can be crucial to the comparativist, however, as a guide not only to the reconstruction of typologically coherent proto-languages, but also to a sound understanding of the interrelationships among structural factors in languages, and the motivations and sequences of change involving them. The pressing need in diachronic work with non-Indo-European languages is not a new set of comparative techniques, but rather richer models of language structures» (1990: 51).

ren) oinordeko diren aldetik— elementu ezagun horiek hizkuntza ahaideetan nola bilakatu diren miatuaz.

Austronesioz kaos metodologikoa ekiditeko “erro-hautagaia” bereizteko prozesua agerriki eta zehazki markatu eta orpoz-orpoz jarraitu izan da. Blustek ondoko metodologia proposatu du:

1. -CVC amaierako sekuentziarik ez da errotzat onartuko baldin eta oso antzeko esanahiko sekuentziak lau morfema etimologikoki ezberdinetan aurkitzen ez badira. Gainera
 - a) erro-hautagaia goiko mailan (aitzin-austronesio, aitzin-malayo-polinesio, edo aitzin-hesperonesio) berreraikitako morfema batean aurkitu beharko da, eta, era berean hiru morfema etimologikoki aske edo gehiagotan, azken hauek hizkuntza edo azpitalde bereko izan edo ez.
 - b) erro-hautagaiak (a) baldintzapean berreraikitako hitzen distribuzio bera izan behar du, baina ez du zer azaldu berreraikitako morfema batean ere. Aldiz, hizkuntza edo azpitalde batera mugaturiko erro-hautagai bat ez da kontuan hartuko.
2. Materialen bat aipatzean ukitutako hizkuntza orotako hots aldaketa esanguratsu guztiak kontuan izango dira, hau da, egokitasun fonetikoaren kontrol erabatekoa gorde beharko da, horren barne delarik aldakortasun morfofonemikoa edo/eta alofonikoa.
3. Morfema kognadoak lekukotasun bakartzat hartuko dira.
4. Erro-aldakortasuna horren ereduaren lekukotasun garbia denean baino ez da onartuko.
5. Osagarriak antzemateko prozesua erroak ezagutzekoak betetzen dituen metodologi-kontrol berdinei lotuko zaie (*apud* Zorc 1990: 179-180).¹⁰⁸

Euskarari dagokionez, *gizarte*, *gizaxo*, *gizontxo*, etab. edonork bana ditzake beren morfema-osagaietan eta *gizon* guztien oinarritzko osagai (oraingoz) zatikaezina dela ondoriozta; gainetik, *Basauri*, *basarte*, *basotxo* eta beste hainbat paralelo litzateke eraketa legea antzeman dugula konturatzeko. Banaketak eta azterketak aurrera egiteko elementu berberak edo lotuak aurkituaz jarraitu beharko dugu,¹⁰⁹ euskara historikoan morfema autonomo biziak izan ezarren aurreko

108. Berak eta Dyenek aurkitu austronesioaren erro monosilabikoak kausitzeko ondoko irizpideak aurkezten ditu Zorc (1990: 179-180; euskararentzat azkena ez bada ere gainerakoak erabilgarri dirudite): «1. Find a doubled monosyllable and a form with an established affix, e.g. **puk+puk* ‘beat, pound’, **ka-púk* ‘beaten fibres’; 2. Look for ineluctable parallelism of meaning, e.g. **suk+suk* ‘put in or on’, **pa-suk*, **ma-suk* ‘enter’; 3. Identify partial reduplications: *CV+CVC — **su+suk* ‘prick, pierce’; 4. Identify any instances of resyllabification, i.e., *CVC+VC > *CV.CVC, especially if *CVC+VC (suffix). Although this has not been found to be as productive as final CVC types, note the following possible interpretations: **tanán* ‘hand’ = **tan* ‘grasp’ + *-*an*, **paRaw* ‘hoarse’ = **paR* ‘id’ + *-*aw*, **baki?* ‘frog’ = **bak* ‘pounding noise’ + *-*i?*; 5. Identify any binding of bases (i.e., compounds), e.g., **ruk+suk* ‘put on’, **ruk+sak* ‘destroy’; 6. Establish splitting of bases with an epenthetic laryngeal (i.e., *CVC > *CV?VC) or *CVhVC, e.g., **su?uk* ‘enter’ (**suk*), **pi?et* ‘narrow’ (**pit*) or a semivowel, e.g. PHN **yak* > **iyak* ‘cry’ or PPH **siw* ‘chick’ > **siyu?* (cf.: PPH **siw+siw*).»

109. Malkielek (1954: 266) dioenez, IE hizkuntzetan zenbait hitz kategoriak (preposizio, izenordain, juntagailu...) eratorri gutxi du, hitz familia eta horren jatorri eta bilakabidea aztertzea zailduaz. Euskaraz ere horrelatsu direla esan bide daiteke.

garairen batean segurtasunez emankorrek izandakoen bila.¹¹⁰ Honetarako era guztietako anomalietara jo beharko dugu, “gogoeta-gai” (cf. Malkiel 1954: 270 deiturarako) hauen bitartez besteren laguntzaz baino gorago eginaz.

Har dezagun *beltz* (mend. *baltz*) kolore-izen ezagunaren kasua; bere familia osoa azter bageneza **bel* aldaera eridengo genuke, historikoki konposatu zenbaitetan mugatua ikusi arren: *goibel*, *harbel*, *horbel*, *ospel*, *ubel*, *ustel*, etab. Horietan guztietan oraindik garbi antzeman dezakegu kolorearen erreferentzia *goi*, *harri*, *horri*, eta *ur*-i gehitutako osagaien, gero autonomia galdu duen familiaren gune zen enbor sinpleagoa (*bel*), eta *-tz* adjektibo-eraketarako (?) atzizkitzat ulertuaz *beltz*. Bestalde, *gibel* organu baten izena nahiz ‘atze, oste’ dugu; kasu honetan banaketa hor bertan amaituko litzateke, baina goiko adibideotan isolatu *bel*-ekin erka bageneza, organuaren koloreari dagokion elementu batez osatua dela pentsatu ahal dugu. Ez da zer esanik, **gi*- ez dela euskara historikoan osagai autonomoetarik eta *gibel*-i buruzko gogoeta beharbada antzua litzatekeela hau balitz *gi*- morfemaren adibide bakarra. Zorionez *giharre* (kolore izen erantsiarekin) edo *gizen* — beharbada baita *giberri* ere— aurkez genitzake, agian **gi* ‘haragi’ oinarri bat defendatzeko eskua ematen digutelarik; **gi* hori isolatu ondoren *gi*-zen zatitu ahalko dugu, *ze*-*zen* bere lagun *go*-*gor* eta beste zenbait erreduplikazioen bidetik azalduaz, bederen (ikus § 9.9.).

Barru-ko **bar* aspalditxo ezagun dugu; familia bereko izan litezkeen **bur*-*bar* (> *bular*) eta, beharbada, *i*-*bar* (< **ur*-*bar* eta cf. *i*-*bai* < **ur*-*ban*-*i*) ez dut uste; *muker*, *oker*, *puzker* (cf. *buztan* < *butz*-*gain*) —eta agian *ezker*— soilik oraintsu bildu dira **ger*-en inguruan (cf. Lakarra 1995).^{110b}

Enborrak utzi eta atzizkietara bihurtuaz, baldin eta *beltz* = *bel* + *-tz* bada, orduan zergatik ez galdetu *hortz* = *hor* + *-tz* ote den, edota *barr*-*u* eta *larr*-*u*-ko *-u* horren funtzioaz? Izan ere *can*-*ino* aldamenen luke eta ozen + txistukari amaitzen diren enbor eskasetarik bat azalduko ere luke. Abiada hartuaz, *bost* < *bortz* are urrutiago eraman ahalko bide genuke, azkena *bor*-*tz* zatituaz, *en*-*bor*, *zil*-*bor*, *borobil* eta besteren bat lagun; alabaina, Malkieli mailegatuaz Watkinsek (1990: 178) etimologilariari eskatzen dizkion ezaugarrien artean (asmaketa, hizkuntz-azterketa tekniken maisugoa eta hizkuntzazko eta kulturazko erudizioaz landa) bada laugarren bat besteak bezain beharrezkoa: noiz gelditu jakitea, alegia. Aski izan bedi, beraz, baieztatzea etimologia berriek zeresan handia dutela aitzineuska-

110. Cf. Haas 1969 eta Blust 1988 hizkuntz amerindiar eta austronesioen adibideekin, hurrenez hurren; Blust 1977 ere interesgarria da “konparazio paradigma berria”ren kontzeptua hizkuntza austronesioei ezartzeko egin saio legez.

110b. Hemen aipatzen dut lan osoan zehar inoren eta neure etimologia eta hurbilketa saio guztiei egokiro datorkien Benvenisteren hurrengo pasartea: «En général les critères d’une reconstruction formelle peuvent être stricts, parce qu’ils découlent de règles précises, dont on ne peut s’écarter que si l’on se croit en mesure d’y substituer des règles plus exactes. Tout l’appareil de la phonétique et de la morphologie intervient pour soutenir ou réfuter ces tentatives. Mais en matière de sens, on n’a pour guide qu’une certaine vraisemblance, fondée sur le “bon sens”, sur l’appréciation personnelle du linguiste, sur les parallèles qu’il peut citer. Le problème est toujours, à tous les niveaux de l’analyse, à l’intérieur d’une même langue ou aux différentes étapes d’une reconstruction comparative, de déterminer si et comment deux morphèmes formellement identiques ou comparables peuvent être identifiés par leur sens» (Benveniste 1954: 251). Gogora, orobat, § 1.eko azken ahapaldia.

raren egitura morfonologikoa eta horren barnean erro eta gainerako morfema zaharren zernolakoak argitzen.

9. Ondorioak

Saio honek luze jo du dagoeneko eta euskal erroaren azterketarako interesgarri eta beharbada beharrezko ere gerta litezkeen hizkuntza guztietako arazo eta azterketa-eredu oparoen berri ere ezingo genuke bertan eman, azal-azaletik izan arren, aldizkari honetako erredakzio eta irakurlegoaren eskuzabaltasun eta pazientzia osoa ahiturik ere. Noan, bada, ez itxita baizik eta zirriborraturik plazaratuta, edo hoberenean ere etorkizun hurbileko ikerketentzako irekita (hala itxaroten dugu, bederen) gelditu diren puntu batzuk bilbatzera.

1. Ezer baino lehen, badirudi hizkuntzalaritza historiko eta konparatuak, berreiriketaz zein diakronia hutsaz interesatua delarik, ezin duela bere ikergaietarik erroarena baztertu. Uhlenbeckek (1995) dioenez —eta edozeinek dakienez— egitura morfologikorik gabeko hizkuntzarik ez delarik, edota fonemen kokagune eta konbinaketa hizkuntzaren garai orotan hitzen tasun berezko izanik, erroarena ez da, morfologo edo fonologo edo are tipologo sinkronikoaren jabego hutseko, horiek guztiak erroaz arduratu arren, eta damukizun larria da, izan ere, euskal erroaz euskalariak merezi eta behar baino gutxiago aritzea. Tipologoaren eta beste-lako ikertzaileen (sintaxilarien, morfologoaren...) lan teorikoetan eta analisisetan kausi litezkeen erroaren azterketaren aldeko akuiluez landa, konparatzaileak eta berre-raikitzaileak arrazoi bereziak (edota berezilari diren partetikoak) ditu erroa aztertzeko. Hasteko, ene usteko, esan daiteke erroaren forma kanoniko askotarikoa proposatzea hizkuntza jakin baten garai guztietarako, azaleko aniztasun hori aurreko garairen bateko bakartasunetik erakartzen saiatu gabe, ez dela ikerbide emankor gertatu hainbat hizkuntza historia ezagunekotan, edota euskararena baino ezagunagokoetan, eta ez dugula eskubide apartekorik sinisteko euskararekin emankor-rago izan daitekeenik joera hori. Hortaz —eta gogora 31. oharren akabukoan Mitxelenak zioskuna—, Uhlenbeckek (cf. § 2.1.) erro aniztasuna gutxitzen duen zein-nahi analisisik, aurkez litzakeen oztopo eta arrisku guztiekin, abantaila metodologiko, teoriko eta praktikoa guztiak dituela bertan goxo egin nahi lukeen beste edozeinen aurrean (cf. §§ 3.1.-3.3. hamito-semitikoaz, IE-az eta yokutsaz). Taxonomia hutsak sinkronian bedekapenak aspaldi galdu zituelarik, ezin gordeko diakronian ere.

2. Oraindik ikerketa eta zehaztasun asko merezi dukeen puntua izan arren, jadanik baieztatu bide liteke erroa konparaketarako unitate bilakatzeak kognaduen segurtasun / luzerarekin loturarik baduela. Hots, CVC egiturek, batez ere hiru elementuak berberak izanik —edota egokitasun erregularrez lotuak—, CV edo VC txikiagoak baino segurtasun handiagoa erdiesten digula ezagun izanik, areagokoa dateke edozein CVC ez baizik eta erro osoak eta erroaren inguruko bestelako ezaugarriak (ablautak, erregela fonotaktikoak, erro horren konbinaketa baldintzak...) konparazioan erabil bagenitza (cf. Bender eta Campbell gogoetak, §. 8.1.). Boudak euskara eta hizkuntza kaukasikoekin egindako konparaketetan,¹¹¹

111. Ez dakit Wilbur (1981) txantxetan ala benetan hartu behar den Bouda joera horretako ikertzaile zehatzen zerrendan ematen digunean.

oro har fonema bakarrak darabiltzan —eta eurok ez euskarazko berberak ere beti!— eta erroaren zein edozein morfema-egitura eta -baldintzaren aurkako analisiak suposatzen dituzten zatiketa/erkaketak aurkeztean, ez dio errazkeriari eta halabeharrari biderik ixten, eta are ate, leiho eta zirrikitu guztiak erakusten ditu... horrelakoren beharrik balute! (cf. §§ 2.2., 2.3. eta 6.5.).

3. Erlazio genetikoak frogatzeko edo deuseztatzeko erroa zuzen-zuzenean (ez honetan edo hartan biltzen diren korrespondentzia multzo legez) erabiltzea agian ez dugu errazki lortuko. Izan ere korrespondentzia materialak dira helburu horiek erdiesten lagun gaitzaketenak eta ez formalak. Gogotan har bedi, ordea, erroak —forma kanoniko abstraktuenean ere— konparatzean materialtasuna ez dela konparaketatik erabat landa gelditzen, ez, demagun, berreraiketa sintaktikoan edo morfologikoan gerta litekeen graduan inondik ere.

Nolanahi ere den, erroaren azterketa eta berreraiketak (cf. §§ 4.1.-4.2. adibide gehiagotarako) hizkuntzarenari ematen dion sakontasun diakronikoa begibis-takoa dela begitantzen zait batetik eta, erlazio genetikoak frogatzeko edo deuseztatzeko balioko ez balu ere diagnostiko gisa baliorik izan dezakeela deritzot. Gogoangarri iruditzen zaizkit lehen aipatu aitzin-hamito-semitikoaren edota § 6.2.-ko yuki-wappoaren azterketak batetik edota § 6.5.eko kartveliko eta euskararenak bes-tetik.

4. Aitzineuskararen berreraiketean beste zenbait hizkuntzarenean bezala, erakutsi izan da erroa, haren eskema eta eskema-aldaketak, salbuespenak, morfema konbinaketak eta gai hauei lotu beste hainbat arazo ezinbestekoak direla berreraiketa horiek halabeharraren gainean ez baizik eta lan sistematikoarenean oinarriturik izan daitezen. Lakarra 1995-en lehenago Iverson & Salmonsek (1992) aitzin-IE-rako ireki bidetik, aitzineuskara zaharrerako (*Pre-Proto-Basque*) CVC forma kanonikoko erro monosilabikoa proposatzen da. Horretarako Mitxelenak aurkeztu silabaren (C)V(W)(R)(S)(T) egitura gehiegizkoa zela eta CVC aski genuela frogatu nuen Artiagoitiak (1990) lehenago aitzineuskararako (*Proto-Basque*) erakutsi bezala; bestetik, CVC horretako **T (silaba azkeneko herskari) murriztapena eta artean markatu gabeko **TVT (morfema berean bi herskari konbinatzeko murriztapena)¹¹² lot zitezkeela erakutsi nuen aitzineuskararen teoria monosilabikoaren bitartez.¹¹³ Lehendabizikoz aurkitutako edota lehen baino item gehiagotan ezagututako zenbait errok (**bel*, **bur*, **gur*, **ger*) erakusten du, ene ustez, hipotesi berriaren interesa. Orobat, gure erro-hipotesiaren barnean zenbait arazo errazki argitzeak, esaterako 1) zergatik ez den CVT ez CVRT edo CVST aitzineuskara eta

112. Cf. 24. oharra Morvanen -T-ez amaitutako etimologiez. Ez dugu hemen TVCTV ugaria (*berdin*, *bazter*, etab., tarteko ozen edo txistukariarekin) kontuan hartzen; ikus Lakarra 1995. Ondorio hauetara euskararen hots egituraren azterketa berariazkoaren bitartez —erro eta silabaren, batez ere kodarenaren bitartez, alegia— iritsi gaitetzke, ez konbinatzen diren hotsen natura hutsetik: izan ere ez da alde honetatik morfema bisilabikoetan konbinatzeko oztoporik, ez bederen euskarazko murriztapena arrunt bilakatzeko heinean.

113. Forma gramatikaletan (*eta*, *edo*, *ala*, etab., zein izenordainetan) aurki daitezke CVC-ren salbuespen garbienak; gertakari honen pisua erabakitzeke gogoan izan bedi beste hainbat hizkuntza eta hizkuntz familiatan ere berdintsu jazotzen dela; cf. Szemerényi 1978 nahiz Gamkrelidze & Ivanov 1995 IE-rako, edo Moscati 1964 eta Lipinski 1997 semitikorako eta 66. oharrean aipatu Gonda 1949/51-52 austronesiorako.

euskara zaharrean, 2) erroa monosilabiko izaki, gehienez ere CV(R)(S) erakoa, orduan TVTV ezinezko egiten dela, baina ez aldiz TVR+TV(R)S edo TVS+TV(R)S; hortik *baga falta baina *berdin, beldur, bazter*, etab., izatea.¹¹⁴

5. Erro-isomorfiak erabili izan dira hizkuntzen eta hizkuntz-familien arteko lotura genetikoak zein hizkuntz-elkarteak bilatzeko. Izan ere, ezin harritu prozedura honetaz erro-egituraz hainbat hizkuntzatan dakigunaren arabera oso iraupen luzeko ezaugarria gertatzen baita. Erroaren azterketa eta berreraiketak hizkuntz elkarten sorrera eta bilakabidea aztertzeko baliatu dira. Txamerak hizkuntz-elkarteak erroaren inguruko hainbat ezaugarri zenbatean alda lezaketen erakutsi digu (cf. § 5.1.). Bere familia austronesikoaren jatorrizko disilabismoa utzi eta inguruko hizkuntz familien monosilabismoa eta izaera isolatzailea hartu ditu, erro aurretiko eta akabuko kontsonante alternantziekin batean.

Aitortu behar da, halere, “antzekotasun” hutsak korrespondentzia fonetikoetan bezala, ez direla aski eta IE / K kasuan legez (§ 5.2.), ezin dela errazegi jokatu hizkuntz elkarteak arrazoi pisukorik gabe onartuaz. Ere- edo elkarte-linguistikoaren bitartez azaldu nahi izan diren ezaugarrion artean ozenen sistema, ablaut ereduak, erroaren egitura (CVC) eta morfema konbinaketa, sintasi aktiboa eta beste zenbait aipatu izan dituzte ikertzaile batzuek. Alabaina, bi familietan erroaren formula horren gauzatzea aski diferentea izan daiteke: esaterako, “C” kontsonante talde “harmonikoa” izan daiteke K-z, nahiz morfema hasieran, nahiz morfema akabuan; IE-az ez da horrelakorik. Halaber, egia da IE-ak morfema aitzineko s likidoa izan lezakeela, baina ez da horrelakorik morfemaren gainerako guneeetan K-z gertatu bezala, ozenen eta glotalen distribuzioan ere diferentzia larriak dira... Harrisen ustez (1990: 86) ez da antzekotasun handirik K eta IE-ren erroen CVC formulen artean ere, dela “C” gautzatzeko diren aukera anitzengatik, dela formularen salbuespen ugariengatik. Orotara, K erroak eta IE-renak aski ezberdin ditugu eta, beraz, horretan¹¹⁵ oinarrituriko baieztapenak berrikusi beharko dira.

6. Lan honetan austronesioa eta aitzin-txinerarena, hamito-semitikoarena eta aitzin-yukia eta wappoaren kasuak laburtu ditugu lotura genetikoaren azterketan erroaren teoriak duen garrantziaren argudioaren aurkezpenarako.¹¹⁶ Lehendabizikoan txineraren erro monosilabikoen eta austronesioaren enborretako bigarren silaben arteko kognadoak eta are artizki berberak aurkitu ditugu; erro bilitero amankomunak bigarreanean; hirugarrenean, azkenik, wappo eta aitzin-ipar-yukiaren arteko azterketa gramatikalarren eta barne-berreraiketaren bitartez fosil morfologiko zenbaiten jatorrizko balioa antzeman dugu eta, ez mailegu gisa, baizik eta bien etorki litzatekeen hizkuntza baten hondar eta lekukotasuntzat hartzea litzatekeela zuzenago ikusi ere bai (cf. §§ 6.1.-6.3).

Aurreko kasuetan erakutsi den isomorfismo eta murriztapenik eta txandaketa paralelismorik ez da Lakarra 1998a-n aztertu dudana K-ren eta AE-ren artean: sus-

114. Eta baita, beharbada, *ardano, *gatzana, burdina eta beste zenbait mailegu izatea ere.

115. Eta bestetan, cf. 59. oharrean Charachidzeren gogoetak aitzin-aberriaren kokapenaz.

116. Ez da esan beharrik, ni ez naiz berezilaria alor horietan; alabaina, batzuk erabat zabalduak eta onartuak dira alorrean, eta oraingoz hipotesi soil direnek huts egingo balute ere, hurbilketak berak baliatua eta baliagarri jarraituko luke.

